

MISSALE ROMANUM

KONSTITUZIO APOSTOLIKOA

ERROMAKO MEZA LIBURUA
VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOAREN
DEKRETUZ ERABERRITURIK PROMULGATUA

PAULO APEZPIKUAK

JAINKOAREN ZERBITZARIEN ZERBITZARIAK
OROIGARRI IZAN DADIN BETIKO

ERROMAKO MEZA LIBURUA, Trentoko Kontzilioaren dekretuz Gure Aitzineko Pio V.a sailduak 1570ean promulgatua, ¹ Kristoren Eliza guziarentzat Biltzar sakratu hartatik etorri izan diren hainbeste fruitu harrigarriren artean, gogoangarrietakotzat hartu izan da beti. Alabainan, lau mendetan latin-ohikuneko apezentzat eukaristi oparia eskaintzeko araua izan da, eta Ebanjelioaren zabaltzaile diren misiolariak mundu guziko herrialdeetara eraman zuten. Ez dugu ahanzi behar, gainerat, ezin kondatuzko sailduak Meza Liburu honen bibli irakurgaiak eta otoitzak izan zituztela beren gogoasegarri eta Jainkoaganako maitasunaren pizgarri; horien zatirik garrantzitsuen Gregorio Handia sailduak antolatua zen.

Bainan kristau-herrian, liturgi mugimendua azkartzen eta zabaltzen hasi zenean –eta mugimendu hau, oroigarri den Gure Aitzineko Pio XII.ak zioenez, gure aldian Jainkoak izan dituen burubide arduratsuen eta Elizan Izpiritu Sailduak izandako pasatze osasungarriaren ezaugarritzat hartu behar da– ² argi eta garbi ikusi zen, Erromako Meza Liburuaren testuak berrikusi eta aberastu beharrekoak zirela. Gure Aitzineko Pio XII.ak berak hasi zuen berrikuste hau, Bazko Gaubeila eta Aste Saildua berri zituenean; ³ horrela, Erromako Meza Liburu gaur egungo pentsaera berriaren eskakizunetara egokitzeko lehen urratsa eman zuen.

1 Quo primum Konstituzio Apostolikoa (1570.07.14).

2 Ik. PIO XII.a, Allocutio iis, qui primo Conventui ex omni natione de Liturgia pastoralis, Assisii habito, interfuerunt (1956.09.22): A.A.S. 48 (1956), 712. or.

3 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Dominicæ Resurrectionis Dekretua (1951.02.09): A.A.S. 43 (1951), 128. or. eta hur.; Maxima redemptionis nostræ mysteria Dekretu orokorra (1955.11.16): A.A.S. 47 (1955), 838. or. eta hur.

Oraintsu Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoak, Sacrosanctum Concilium Konstituzioaren bidez, Erromako Meza Liburua berrikusteko oinarriak ezarri ditu, eta hau erabaki du : lehenik, «testuak eta ohikuneak, gauza saildunen ezaugarri direnez, hori argiago adierazteko moldean zuzendu behar direla» ;⁴ bigarrenik, «Mezaren Egunerokoa berrikusi behar dela, zati bakoitzaren erranahia eta zati guziek elkarrekin duten zerikusia argiroago ager dadin, eta fededunen izpirituzko esku-hartze eginkorra errexu dadin» ;⁵ hirugarrenik, «Jainkoaren hitzaren mahaia azkarrago prestatzeko kristautentzat, zabalago ideki behar direla Bibliako aberastasunak» ;⁶ eta azkenik, «Elkar-mezarako ohikune berria prestatu behar dela eta "Pontificale" liburuan eta Erromako Meza Liburuan ezarri».⁷

Ez da uste izan behar, hala ere, Erromako Meza Liburuaren berrikuste hau prestaerarik gabe eginga izan dela ; azkeneko lau mendeotan liturgi jakitearen arloan egin izan diren aurrerakuntzak asko urratu du honetarako bidea. Trentoko Kontzilioaren ondotik, «Vatikanoko Liburutegiko kodex zaharren eta beste leku batzuetatik ekarritakoen» azterketa –Gure Aitzineko Pio V.a sailduaren Quo primum Konstituzio Apostolikoak dioenez– guziz lagungarri izan zen Erromako Meza Liburua berrikusteko. Bainan, geroztik, antzina-antzinako liturgi iturriak aurkitu eta argitaratuak izan dira ; eta Ekialdeko Elizaren liturgi testuak sakonago ezagutu eta aztertutak izan dira, gainera. Horregatik, egunean baino egunean gehiago izan dira jakiteari eta izpirituari dagozkien aberastasun hauek, liburutegi ilunetan gorde atxiki gabe, argitaratu behar zirela uste izan dutenak, kristauen buru-bihotzak argitu eta janaritzeko.

Erromako Meza Liburuaren egitura berriaren hari nagusiak aurkeztuko ditugu orain. Lehenik, liburuaren sarrera gisa jarri dugun Antolaketa Orokorrean, eukaristi oparia ospatzeko arau berriak datoz, bai ohikuneei eta biltzarkide bakoitzaren eginkizun bereziari dagokienez, bai gauza eta leku sailduneei dagokienez.

Moldeberritze honen aldakuntza nagusia Eukaristi Otoitza deitzen direnari dagokio. Erromako ohikunean otoitz honen lehen zatiak, erran nahi baita, prefazioak, mendeetan zehar molde asko izan du ; bigarren zatiak, berriz, Canon Actionis deitzen direnak, IV-V. mendetik hurat aldatarik gabeko molde hartu zuen. Ekialdeko liturgiek, aldiz, Anaforetan beretan ere nolabaiteko desberdintasuna izan zuten. Hori dela eta, aitzina Erroman erabili izan ziren edo berrirren berri egin diren prefazio anitzez aberastu da Eukaristi Otoitza : prefazio hauek argiago dakartzate fede-misterioaren alderdirik nagusienak, eta eskerrak emateko arrazoin aberats eta ugariak eskaintzen dituzte ; honez gainerat, aipaturiko Eukaristi Otoitzari hiru Kanon berri gehitzeko agindu dugu. Hala ere, arrazoin pastoralei begiraturik eta elkarmeza erraxago emateko, Kanon bakoitzean Jaunaren hitzak berdinak izan daitezela agindu dugu. Hau dela eta, Eukaristi Otoitz bakoitzean hitz hauek honela erraitea erabaki dugu:

Ogiaren gainean: *Har zazue eta jan guziek huntarik : hau nere Gorputza baita, zuentzat emanen dena.*

Kalizaren gainean : *Har zazue eta edan guziek huntarik : hau nere Odolaren kaliza baita, batasun berri eta betikoaren odola, zuentzat eta askorentzat bekatuak barkatzeko ixuriko dena. Egizue hau nere oroigarri.*

Hau da sinesmenaren misterioa erranaldia, Jaunak erran hitzetatik tiratua eta apezak errana, fededunen gorapenaren sarrera gisa gelditu da.

4 VATIKANOKO II. KONTZILIOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 2
1. zk.

5 Ik. ibid., 50. zk.

6 Ik. ibid., 51. zk.

7 Ik. ibid., 58. zk.

Mezaren Egunerokoari doakionez, «ohikuneak, beren izate berean jarraitzen dutelarik, errextu dira». ⁸ Eta honela, «urteak jin eta urteak joan, bikoiztu edo probetxurik gabe gehitu izan direnak » ⁹ kendu dira : hau, eskaintzako, ogia zatitzeko eta jaunartzeko ohikuneetan gertatzen zen, partikulazki.

Honez gainera, «zaharraren zaharrez galdutako gauza batzuk, Eliz Buraso sailduen antzinako eginbideen arabera, berritz ezarri dira» : ¹⁰ hauen artekoak dira homilia, ¹¹ Jainkoaren herriaren otoitza, ¹² eta Mezaren hastapeneko damu-otoitza edo Jainkoarekin eta anaiekin adiskidetzeari, ohikune honi, egoki zenez, bere garrantzia itzuliz.

Vatikanoko II. Kontzilioak, gainera, «erabakiko den urteen epe batean herriak Liburu Sailduen zatirik nagusia entzun dezala» ¹³ agindu zuenez, igandeetako irakurgaiak hiru urtetan banatu dira. Epistolaren eta Ebanjelioaren aitzin, igande eta besta-egunetan, Itun Zaharretik hartu irakurgai izanen da, edo Bazkoaldian Apostoluen Egintzak liburutik hartutakoa. Honela, salbamen-misterioaren etengabeko aitzinamendua argiago ageriko da, Jainkoaren agerpeneko hitzak berak erabiliz. Bibliako testu-sorta hain ugariaren bidez, besta-egunetan Idazteuneko zatirik garrantzitsuen aurkeztuko zaie fededunei ; eta irakurgai hauek astelegunetan egiten diren Liburu Sailduetako beste irakurgaiak osatuko dira.

Hauek guzikiak, fededunen baitan Jainkoaren hitzarekiko gosea ¹⁴ gero eta handiagoa izan dadin moldatu dira, honela, eta Izpiritu Saildua gidari dela, itun berriko herriak Elizaren batasun osorako gidatua izan dezan. Esperantzaren bizia dugu, gainera, Meza Liburuaren Antolaketa honek osotasun handiagoz prestatuko dituela bai apezak bai fededunak Jaunaren Afaria ospatzeko eta, aldi berean, Liburu Sailduak sakonago gogoetagai harturik, egunetik egunera janari gehiago aurkituko dutela Jaunaren hitzean. Honen ondorioa, Vatikanoko II. Kontzilioak gogo zuenez, hau izango da : Liburu Sailduak arimaren etengabeko bizi-iturri bihurtuko direla guzientzat, kristau-irakaspenaren argibiderik oinarritzakoa eta, azkenik, teologi hezieraren muin-muina.

Erromako Meza Liburuaren berrikuste huntan azaldu ditugun hiru zatien aldakuntzaz gainerat –erran nahi baita : Eukaristi Otoitzaz, Mezaren Egunerokoaz eta Irakurgaien Liburuaz gainera–, beste atal batzuk ere berrikusi eta aldatu dira : Aldiko Berezia, Sailduen Berezia eta Betikoa, Sakramendu eta Ohikuneetarako Mezak eta Deboziozko Mezak. Otoitzak arta bereziz aztertu dira ; alde batetik, anitzago dira orain otoitzak, gaurko behar berriei otoitzera berriak dagozkielako, eta, bestetik, hauen jatorrizko testua ezarri da, antzinako kodexen argitan, kritika bidez. Hauek horrela izanik, liturgialdi nagusietako astelegun guzietan –Abendu, Eguberri, Garizuma eta Bazko aldietakoek– bakoitzak bere otoitz bereziak dauzkate egunez egun.

Hau ere erran dezagun : nahiz Erromako Gradualeko testua aldatu ez den –kantuari gagozkiolarik behinik behin–, testu hori ulergarriago gerta dakigun, San Agustinek eta San Leon Handiak ardura aipatzen duten erantzun-salmoa berriz ere ezarri da ; gainera, Meza isiletako sarrera eta jaunartze-antifonak ere, egoki iruditu denean, aldatu izan dira.

Bukatzeko, Erromako Meza Liburu berria dela eta, orain arte agertu dugun guziari Guk lege-indarra eman nahi diogu. Gure Aitzineko Pio V.a sailduak Erromako Meza Liburu ofizialki promulgatu

8 Ik. ibid., 50. zk.

9 Ik. ibid., 50. zk.

10 Ik. ibid., 50. zk.

11 Ik. ibid., 52. zk.

12 Ik. ibid., 53. zk.

13 Ik. ibid., 51. zk.

14 Ik. Amos 8, 11.

zuenean, liturgi batasunaren eragingarritzat eta Elizaren kultu jatorraren ageragarritzat aurkeztu zion hura kristau-herriari. Horrelatsu, Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera, Meza Liburu berrian «legezko aldaketak eta egokitzeak»¹⁵ ezarriz, Guk ere badugu uste on, fededunek elkarren arteko batasunaren agergarri eta indargarritzat hartuko dutela egokitze hori ; honela, nahiz hainbeste hizkuntza ezberdin izan, intsentsua baino usaintsuago den otoitz bakarra eta bera iganen da zeruetako Aitarengana, Apez Nagusia dugun Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Izipiritu Sainduaren baitan.

Konstituzio huntan datozen aginduek, urte honetako azaroaren 30etik, Abendualdiko lehen igandetik aitzina indar izan dezatela agindu dugu.

Hau ere nahi dugu : erabaki eta agindu dugun guziak indarra eta eragina izan dezala orain eta gero ere, Gure Aitzinekoengandiko edozein Konstituzio eta Agindu Apostoliko, horrelakorik izan baledi, edo beste edozein erabaki eragozpen izango ez delarik, nahiz aipagarriena eta indargetzekoa izan.

Erroman San-Petri baitan emana, Ortzegun Sainduan, 1969ko apirilaren 3an, Gure Aitasaindutzaldiko seigarren urtean.

PAULO VI.a AITA SAINDUAK

15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 38-40. zk.

ERROMAKO MEZA LIBURUAREN ANTOLAKETA OROKORRA

HITZAURREA

1. Jaunak, bere Gorputz Odolen oparia sorraraziko zuen Bazko-afaria ospatzekoa zela, prestatu zegoen gela handi bat apain zezatela agindu zuen (Lk 22, 12). Elizak beretzat hartu izan du beti agindu hau ; horrengatik ezarri ditu Eukaristiaren ospakizunerako arauak, erran nahi baita : pertsona, leku, ohikune eta testuei dagozkien arauak. Kontzilioaren aginduz orain ezarri diren arauak eta hemendik goiti Mezaren ospakizunean erromatar errituko Elizak erabiliko duen Meza Liburu berria Elizak duen gogo hunen agergerri dira, hau da : Eukaristiako misterio agurgarrian daukan fedearen eta berari dion maitasun aldaezinaren agergerri ; eta, nahiz berrikuntza batzuk egin, hari bereko tradizio etengabea aitortzen dute.

Aldaketarik gabeko fedearen agergerri

2. Meza oparia dela irakatsi zuen handiki Trentoko Kontzilioak,¹ Elizaren tradizio etengabea jarraikiz ; hori bera adierazi du berritz Vatikanoko II. Kontzilioak, Mezari buruz erranahi sakoneko hitz hauek erranez : «Gure Salbatzaileak, Azken Afarian, bere Gorputz Odolen eukaristi oparia prestatu zuen ; hunen bidez, bera etorri arte, mendeetan zehar iraunaraziko zuen gurutzeko oparia eta, horrela, bere heriotzaren eta piztearen oroigarria utziko zion Elizari, bere Emazte maiteari».²

Mezako otoitzetan etengabe ageri da Kontzilioaren irakaspen hau. Hain zuzen, San Leonen antzinako Sakramendu Liburuko hitzek adierazten dute irakaspen hori : «Opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean gure erospena egiten»³ dela alegia ; hori Eukaristi Otoitzetan egoki eta oso-osoan agertzen da ; Eukaristi Otoitzetan, hain zuzen ere, apeza, «anamnesia» egitean, herri guziaren izenean zuzentzen zaio Jainkoari, eskerrak emaiten dizkio eta opari bizia eta saildua eskaintzen, hau da : Elizaren eskaintza eta Jainkoak berak gu berekin baketu gaituen oparia ;⁴ eta Kristoren Gorputz Odolak Aitarentzat opari atsegingarri eta mundu guziarentzat salbagarri⁵ izan daitezela eskatzen du.

Honela, Meza Liburu berrian Elizaren *lex orandi* denak betiko *lex credendi* delakoari erantzuten dio ; eta honek hau dakarkigu gogora : eskaintza egiteko moldean ez bada, gauza bat bera direla gurutzeko oparia eta hau Mezan, sakramendu-moldean, berritzea : Jaunak Azken Afarian prestatu eta Apostoluei bere oroigarritzat ospatzeko agindu ziena bera, hain zuzen ; eta, horrengatik, Meza, aldi berean, goratzeko, eskerrak emaiteko, baketzeko eta ordaintzeko oparia dela.

3. Kristo egi egiaz dago Eukaristiako ogi-arnoen itxurapean ; misterio harrigarri hau Vatikanoko II. Kontzilioak⁶ eta Elizaren Irakaskintzako beste agiri batzuek⁷ berritz baieztatzen dute, eta Trentoko Kontzilioak⁸

sinetsi beharrekotzat erabakitako maila berean eta indar beraz baieztatu ere. Bestalde, hau bera agertzen da Mezaren ospakizunean, ez bakarrik izate-aldatze edo transubstantziazioaren bidez Kristo bertaratzen duten sagara-hitzetan, baina ere eukaristi liturgian erakusten den errespeturik eta errespetu handiena adieraztean ere. Horrengatik eskatzen zaio kristau-herriari, Ortzegun Sainduan eta Kristoren Gorputz eta Odol Sainduen bestaburuan Sakramendu agurgarri hau molde berezian adora dezala.

4. Kristoren ordezkari bezala oparia eskaintzea eta herri sainduaren biltzarrean buru izaitea dagokien Apezpikuaren eta apezaren ministerioa zer den huntantxe agertzen da : ohikunearen beraren antolaketa apezari lehen-lekua betetzen diolako eta eginkizun berezia aitortzen diolako. Eginkizun hau zer eta nolakoa den, Ortzegun Sainduz –Apezgoaren sorrera gogoratzen den egunez– Krisma Mezan erraiten den prefazioan ageri da bereziki argi eta zabal. Esku-ezartzeaz apez-ahalmena emaiten dela azaltzen da prefazio hortan ; ahalmen horren zeregin ezberdinak zehazten dira eta Itun Berriko Apez Nagusia den Kristoren luzapena dela adierazten.

5. Ministeriorako apezgoaren guna jakiteak lagundu ere asko laguntzen du fededunen errege-apezgoa zer den jakiten eta hunen goi-balioa osoro aintzat hartzen : fededunen Izpirituzko eskaintza, Bitarteko bakarra den Kristoren opariarekin batera bururatzen baita Apezpikuaren eta apezaren ministerioaren bidez.⁹ Hain zuzen ere, Eukaristiaren ospakizuna Eliza osoaren egintza da, eta ospakizun hortan bakoitzak, Jainkoaren herrian duen mailaren arabera, berari doakion guzia bete behar du eta hori besterik ez. Hori dela eta, mendeetan zehar jaramon handirik egin ez zaien ospakizunaren zati batzuk arreta bereziki aztertu beharko dira. Herri hau, izan ere, Jainkoaren herria da, Kristok bere odolaz erositua, Jaunak berak bildua eta bere hitzaz janaritua, giza familia osoaren galdeak Jainkoari zuzentzeko deitua den herria ; salbamen-misterioagatik Kristoren bidez eskerrak emaiten dituen, haren oparia eskainiz ; Kristoren Gorputza eta Odola hartuz, batasunean sendotzen den herria. Herri hau,

bere jatorriaz saildua den arren, saildutasunean etengabe garatuz doa, eukaristi misterioan ohartuki, jarrera biziz eta onuraz esku hartzen duela.¹⁰

Etenik gabeko tradizioaren agergarri

6. Vatikanoko II. Kontzilioak, Mezaren Egunerokoa berrikusteko arauak eman zituenean, beste gauza batzuen artean, ohikune batzuk «Eliz Guraso sainduen jatorrizko eginbidearen arabera»¹¹ berrituz ezar zitezela erabaki zuen ; honetarako, 1570ean Trentoko Meza Liburua argitaratzean, Pio V.a sainduak *Quo primum* Konstituzio Apostolikoan erabilitako hitzak berak aipatu zituen. Erromako bi Meza Liburu hauek hitz berberak erabiltzeak hau adierazten digu : bien artean lau menderen aldea izanik ere, biek tradizio bat bera jasotzen dutela. Eta tradizio horren barnea aztertzeko badugu, ikusiko dugu Meza Liburu berriak zein egoki osatzen duen aitzinekoa.

7. Aldi hura oso gaitza izan zen. Zalantzan jartzen zuen fede katolikoaren zenbait irakaspen : Mezaren opari-alderdia, ministeriorako apezgoaren izaera eta Eukaristiako ogi-arnoen itxurapean Kristo egiaz eta beti egotea. Hori zela eta, Pio V.a sainduak orduan egin nahi izan zuena, lehen eta behin, hau izan zen : antzinako tradizioaren azken urratsak onik atera, arrazoinrik gabe egiten baitzioten aurka tradizio horri ; hortarako aldakuntza txiki batzuk besterik ez ziren egin ohikune sakratuan. Izan ere, 1474an lehen aldiz argitaratutako Meza Liburutik 1570eko Meza Liburura alde txikia dago ; eta lehen argitalpen hura Inozentzio III. aren garaietako Meza Liburuaren berrargitaratzea besterik ez zen izan. Vatikanoko Liburutegiko Kodexak argibide izan ziren erran-molde batzuk zuzentzeko, baina «antzinako autore ospetsuen» ikerlan hau Erdi Aroko liturgi azalpenetan bakarrik egin zen.

8. Gaur egun, aldiz, «Eliz Guraso sainduen eginbide» hori –eta horri jarraitu nahi izan zioten Meza Liburuaren zuzentzaileek– adituen idazki askok aberastu du. 1571n lehen aldiz argitaratutako *Gregorianum* deitu Sakramendu Liburuaren ondotik, maiz egin dituzte erromatar

eta anbrosioar antzinako Sakramendu Liburuen argitalpen kritikoak ; baita Espainiako eta Galiako liturgi liburu zaharren argitalpenak ere ; hauetan, Izpiritu aldetik eder-ederra zen otoitz asko aurkitu da, ordu arte ezezaguna zena.

Hainbeste liturgi liburu aurkitu izan denaz gozotik, hobeki ezagutzen dira orain, Ekialdean eta Mendebaldean ohikuneak prestatu aitzinetik, lehen-mendeetan izan ziren tradizioak.

Gainerat, aurrera egin duten Eliz Guraso sailduei buruzko ikerlanei esker, eukaristi misterioaren teologia gehiago argitu da : argitasun hau antzinako kristaualdiko Eliz Guraso ospetsuenen irakaspenetatik etorri da, hala nola, San Ireneo, San Ambrosio, Jerusalemgo San Zirilo eta San Joan Krisostomoren irakaspenetatik.

9. Horrengatik, «Eliz Guraso sailduen eginbideak», hurbileko gure aitzinekoek utzi zigutena betetze hutsa baino zerbait gehiago eskatzen du, hau da : osorik ulertzea eta sakonago aztertzea Elizaren lehenaldiak eta bat bera den fedea adierazteko Elizak giza eta kultura-ingurune guziz ezberdinetan –semiten, greziarren eta latindarren herrialdeetan– izan dituen agerbide guziak. Ikuspegi zabal hunen laguntzaz argiago ikus dezakegu zein harrigarritzko leialtasuna eragiten duen Izpiritu Sailduak Jainkoaren herrian fedearen gordailua aldatu gabe betetzeko, hain handia izanik ere otoitzen eta ohikuneen anitztasuna.

Egoera berrira egokitzea

10. Meza Liburu berri hau, Erromako Elizaren *lex orandi* delakoaren lekuko eta azken kontzilioek ekarritako fedearen gordailu izanik, liturgi tradizioan garrantzi handiko pausoa ere bada.

Vatikanoko II. Kontzilioko Gurasoek Trentoko Kontzilioaren baieztapen dogmatikoak berrituz ontzat eman zituztenean, historiaren guziz bestelako une batean egin zuten hori ; hau dela eta, duela lau mende burura etorri ere eginen ez zitzaizkien eginbide eta jokabideak hartu behar izan zituzten arlo pastoralean.

11. Trentoko Kontzilioak argi ikusi zuen jadanik, eduki balios anitz zuela Mezak

katekesirako ; baina, ezin atera izan zituen eguneroko bizitzarako behar ziren ondorio guziak. Eukaristiaren ospakizunean herri-hizkuntzaren erabilpena zilegi izaitzea orduan ere askoren nahikeria bizia zen. Kontzilioak, ordea, orduko egoera berezia gogoan izanik, Elizak beti irakatsi izan zuena berriz ere irakatsi behar zuela azpimarratu nahi izan zuen, hau da : Eukaristiako oparia, lehen eta behin, Kristoren beraren egintza dela, eta fededunen esku hartzeko moldeak ez duela haren barne-eraginkortasuna aldatzen. Horrengatik, hitz sendoz eta, aldi berean, zuhurrez hau erran zuen : «Nahiz mezak herriarentzat irakasgai anitz izan, ez zitzaien Aiteri komenigarri iruditu, normalki herri-hizkuntzan ospatzea».¹² Gainerat, erran zuen kondenagarri zela hurrengo hau uste zuena : alegia, «Eukaristi Otoitzaren zatia eta sagara-hitzak ixilik erraiten direlako, Erromako Elizaren ohikunea arbuigarria dela, edo Meza herri-hizkuntzan eman behar dela».¹³ Hala ere, alde batetik, Meza herri-hizkuntza erabiltzea debekatu bazuten ere, bestetik, horren orde, katekesi egokia eman zezatela agindu zien arduradunei : «Kristoren ardiek goserik izan ez dezaten... Eliz Biltzarrak artzainei eta arimen arduradun guzieren agintzen die, Meza emaiten den bitartean, ala horiek berek ala horien orde beste batzuek, Meza irakurtzen den zatiren baten azalpena egin eta, gainerat, opari guziz saildu hunen misterioaren bat azal dezatela, bereziki igande eta besta-egunetan».¹⁴

12. Vatikanoko II. Kontzilioak, Elizaren eginbidea aldi honetako beharretara egokitzeko bildurik, Trentoko Kontzilioak egin zuen bezala, liturgia sakratuaren izaera didaktikoa eta pastoral sakonki aztertu zuen.¹⁵ Ohikune sakratua latinez egitea bidezkoa eta eragingarria dela katoliko den nehorik ez duen ukatzen, «maiz ama-hizkuntzaren erabilera herriarentzat oso ongi etor litekeela» ikusi ahal izan zuen Vatikanoko II. Kontzilioak, eta hortarako baimena eman ere egin zuen.¹⁶ Erabaki hau gogo berot hartu zuten leku guzietan ; eta honela, Apezpikuek eta Alki Apostolikoak zuzendurik, herriarekin egiten diren liturgi ospakizun guziak herri-hizkuntzan ospatzea zilegi izatera etorri gara, ospatzen den misterioa hobeki ezagutua izan dadin.

13. Liturgian herri-hizkuntza erabiltzea lagungarri oso garrantzitsua gertatzen denez, ospakizunak bere baitan duen misterioaren katekesia argiago emaiteko, Vatikanoko II. Kontzilioak, Trentokoaren agindu batzuk bete behar zirela adierazi zuen, ez baitziren leku guzietan betetzen, adibidez : igande eta besta-egunetarako agindua zegoen homilia egitea,¹⁷ eta ohikune sakratuetan tarteka oharpenak egiteko ahalbidea.¹⁸

Vatikanoko II. Kontzilioak irakasten du, «Mezan esku-hartze osoena fededunek, apezaren jaunartzearen ondotik, opari beretik Jaunaren Gorputza hartzea» dela ;¹⁹ horrengatik, Trentoko Gurasoen beste nahikari hau ere bete dadila eskatzen du artoski : Eukaristia sainduan beteago esku hartzeko, «Meza bakoitzean, han diren fededunek gure Jauna har dezatela, ez bakarrik gogoz, baina sakramenduz ere».²⁰

14. Trentokoaren artzain-gogo eta -asmo berak eraginik, Vatikanoko II. Kontzilioak beste ikuspegi batetik azaldu zuen, Trentokoak ogi-arnoen itxurapean jaunartzeari buruz erabaki zuena. Eukaristiako sakramendua ogiaren itxurapean bakarrik hartzeak indar bete-betea dueneko irakatsia ez du gaur egun nehorik ere zalantzan jartzen ; haatik, ogi-arnoen itxurapean hartzea ere ontzat eman zuen kasu batzuetan, hala nola : sakramendu-ezaugarriaren molde argiago hunen bidez, fededunak esku hartzen duten misterioaz hobeki jabe daitezkeen kasuetan.²¹

15. Horrela, Elizak, «antzinakoa» -hau da, tradizioko gordailua- beterik, zintzoki betetzen du egiaren irakasle izateko bere eginkizuna eta baita «berria» aintzat hartzeko eta zuhurtasunez erabiltzeko eginbeharra ere (ik. Mt 13, 52).

Horrengatik, Meza Liburuaren zati batean datozen Elizaren otoitz batzuek gehiago begiratzen diete momentuko beharriaz : adibidez, Sakramendu eta Ohikuneetarako Mezek eta Zenbait Beharralditarakoek. Meza hauetan, antzinakoak eta oraingoak egoki elkartzeko dira. Horrela, Elizaren antzina-antzinatik hartutako erran-molde batzuk hunkitu gabe gelditu dira, hainbeste aldiz argitaratua izan den Erromako Meza Liburuan ikus daitekeenez ; beste asko, oraingo beharriaz eta egomoldera egokitua

izan da ; beste batzuk, aldiz, oso-osoan berriak egin dira, burutapenak -eta maiz erran-moldeak berak ere bai- oraintsuko kontzilio-agirietatik hartuz ; adibidez, Elizaren, laikoaren, giza lana saindutearen, herrialde guzien batasunaren eta gure aldi honetako premia berezien alde egindako otoitzak.

Gaurko munduaren egoera berria gogoan izanik, aspaldi-aspaldiko testuak erabiltzekoan uste izan da, gaurko teologiaren erraiteko molde eta Elizaren oraingo arauetara egokitzu erranaldi batzuk aldatzean, ez zaiola altxor beneragarri horri inolako irainik egiten ; horrela aldatuak izan dira, adibidez, lurreko ontasunak erabiltzeari buruzko erranaldi batzuk, eta Elizaren beste garai batzuetakoak ziren gorputzeko penitentziaren moldeak gogorarazten zituztenak.

Horretara, Vatikanoko II. Kontzilioaren liturgi arauak osatu eta hobetu dituzte puntu askotan Trentokoarenak. Vatikanoko II.ak, hain zuzen, bururatu du lau mende hauetan eta, azken aldi huntan -bereziki, Pio X.a sainduak eta haren ondokoek liturgi gaietarako piztu zuten zaletasunari esker-, fededunak liturgia sakratura hurbiltzeko egin izan den hainbat ahalegin.

I. KAPITULUA

EUKARISTI OSPAKIZUNAREN GARRANTZIA ETA DUINTASUNA

16. Mezaren ospakizuna, Kristoren eta hierarkikoki prestatutako Jainkoaren herriaren egintza dugunez, kristau-bizitza osoaren ardatza da Eliza osoarentzat eta lekuan lekukoarentzat, baita fededun bakoitzarentzat ere ;²² Mezaren ospakizunean bururatzen baita Jainkoak mundua Kristogan saindutzen duen ekintza nagusia eta gizon-emazteek Aitari emaiten dioten adorazioa, Jainkoaren Semea den Kristoren bitartez, Izpiritu Sainduarengan, Jainkoa adoraturaz.²³ Mezan, gainerat, urte osoan barna erospeneko misterioen oroimena egiten da, eta oroimena eginez, nolazbait erraiteko, gertaberritzen dira misterio horiek.²⁴ Gainerako egintza sakratuek

eta kristau-bizitzako beste egintza guziek bat etorri behar dute Mezarekin, hura baitute sorburu eta hura helburu.²⁵

17. Horrengatik, garrantzirik handieneko gauza da Mezaren, hau da, Jaunaren Afariaren ospakizuna behar bezala prestatzea, ministro sakratuek ala fededunek, bakoitzak berari doakionez esku hartuz, hortik fruiturik beteenak ardiets ditzaten ;²⁶ hortarako sortu zuen Kristo gure Jaunak bere Gorputz Odolen eukaristi oparia eta utzi zion Elizari, bere Emazte maiteari,²⁷ bere pasionearen eta piztearen oroigarri.

18. Hau guzia ardietsiko da, liturgi biltzar bakoitzaren nolakotasuna eta beste zenbait gauza gogoan izanik, fededunek ohartuki, egitez eta bete-betean esku hartzeko moduan prestatzen bada ospakizun osoa, hau da : esku-hartzea gorputzezkoa eta arimazkoa bada eta sutua fedez, itxaropenez eta maitasunez ; hauxe da Elizak nahi duena eta ospakizunak berak eskatzen duena ; horrelakoak baitira kristau-herriak Bataioaren indarrez dituen eskubidea eta eginbeharra.²⁸

19. Fededunak elizkizunean tarteko izaiteak eta egitez parte hartzeak beste zernahik baino hobeki adierazten du liturgi ospakizuna Elizaren egintza dela ;²⁹ baina nahiz hori batzuetan ezinezkoa izaten den, Eukaristiaren ospakizunak beti betetzen du bere indarra eta duintasuna, Kristoren eta Elizaren ekintza delako ; ekintza hortan betetzen du apezak bere eginkizun nagusia eta beti herriaren salbamenerako ari da.

Horrengatik, eukaristi oparia, ahal den heinean, egunero ere ospatzea gomendatzen zaio apezari.³⁰

20. Eukaristiaren ospakizuna, liturgia guzia bezala, fedea janaritu, indartu eta adierazten duten eta zentzumenari dagozkion ezaugarrien bidez egiten denaz geroz,³¹ ahal den ahaleginik handiena egin behar da Elizak jarri molde eta elementu egokiak hautatu eta antolatzen : elizkizuna non eta norentzat egiten den kontuan izanik, fededunen esku-hartze eginkor eta beteari hobeki eragingo dioten molde eta elementuak, alegia, eta haien izpirituarentzat baliosenak izanen direnak.

21. Horrengatik, Antolaketa Orokor hunen helburua hau da : Eukaristiaren ospakizuna behar bezala prestazeko eginbide nagusiak ezartzea, batetik, eta arauak zehaztea ospakizun-molde bakoitza nola egin adierazteko, bestetik.³²

22. Oso-osoa garrantzitsua da Eliza partikularrean Eukaristiaren ospakizuna.

Diozesako Apezpikua da, bere ardurapeko Eliza partikularrean Jainkoaren misterioen lehen banatzailea, liturgi bizitza osoaren zuzendaria, eragilea eta zaintzailea.³³ Apezpikua buru dela egin ospakizunetan, bereziki apezak, diakreak eta herriak esku hartzen dutela hark egin eukaristi ospakizunetan, agerian jartzen da Elizaren misterioa. Horrengatik, molde huntan nagusiki ospaturiko Mezak eredugarri dira diozesa osoarentzat.

Berari dagokio eginahalak egitea, apezak, diakreak eta kristau-fededun laikoek beti ahalik sakonen uler dezaten ohikuneen eta testu liturgikoen zinezko erranahia eta, halaber, eukaristi ospakizuna molda bizian eta probetxuz ospatzera erakarriak izan daitezten. Helburu berberaz, saia bedi halako ospakizunen bikaintasuna gero eta handiagoa izan dadin ; horretarako, oso baliotsua da leku sakratuaren, musikaren eta artearen edertasuna.

23. Bestalde, ospakizunak arau horiei eta liturgia sakratuaren izpirituari molde beteagoan erantzun diezaien eta ospakizunaren eraginkortasun pastoral handiagoa izan dadin, Antolaketa Orokor hauetan eta Mezaren Egunerokoan zenbait egokitze eta aldaketa egin da.

24. Aldaketa hauek, gehienetan, zenbait ohikune edo testu hautatzea dira, hau da, kantuak, irakurgaiak, otoitzak, oharpenak eta zeinuak hautatzea, parte-hartzaileen beharrei, prestakuntzari eta izaerari egokiago erantzuteko. Apez ospatzaileari dagokio aldaketa horiek egitea. Halere, izan beza apezak gogoan bera liturgia sakratuaren zerbitzaria dela eta ez duela zilegi Mezaren ospakizunean ezer gehitzea, kentzea nahiz aldatzea bere baitarik.³⁴

25. Gainerat, Meza Liburuak, doakion tokian, zenbait aldaketa dakar ; horiek egitea,

liturgia sakratuari buruzko Konstituzioaren arabera, diozesako Apezpikuari edo Apezpikuen Biltzarrari dagokie³⁵ (ik. geroago 387, 388-393. zk.).

26. Herrien eta eskualdeen ohiturei eta izaerari erantzuteko egin beharrekoak diren aldaketa eta egokitzapen nagusienei dagokienez, liturgia sakratuari buruzko Konstituzioaren 40. zenbakiaren arabera, bete bedi *De Liturgia Romana et inculturatione* irakaspenak dioena³⁶ eta geroago (395-399. zk.) erranen dena.

II. KAPITULUA

MEZAREN EGITURA, OSAGAIK ETA ZATIAK

I. MEZAREN EGITURA OROKORRA

27. Mezan edo Jaunaren Afarian, Jaunaren oroigarria edo eukaristi oparia ospatzeko biltzen da Jainkoaren herria, apez buru eta Kristoren ordezkari dela.³⁷ Eliza sailduaren lekuan lekuko biltzarrari oso egoki datorkio, beraz, Kristok agindu zuen hura : «Nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago Ni haien erdian» (Mt 18, 20). Hain zuzen ere, gurutzeko oparia betiketoz duen³⁸ Mezaren ospakizunean, hantxe dago Kristo egiaz : haren izenean bildu den biltzarrean bertan, biltzarburuarengan, hunen hitzetan eta, bere izatez eta iraunkorki, Eukaristiako ogi-arnoen itxurapean.³⁹

28. Mezak bi zati dituela erran genezake : Hitzaren liturgia eta Eukaristiaren liturgia ; baina bi zati hauek bata besteari estu lotuak daude, kultu edo ospakizun bakarra egiteraino.⁴⁰ Mezan, Jaunaren mahaia atontzen da, Jainkoaren hitzaren eta Kristoren Gorputzaren mahaia, eta fededunek hezibidea eta apairua⁴¹ aurkitzen dute mahai hortan. Badira beste ohikune batzuk ere ospakizuna hasteko eta bukatzeko.

II. MEZAREN OSAGAIK

Jainkoaren hitza irakurtzea eta argitzea

29. Liburu Sainduak Elizan irakurtzen direnean, Jainkoa bera mintzatzen zaio bere herriari eta Kristok, bere hitzean presente dagoelarik, erraiten du Ebanjelioa.

Hori dela eta, Jainkoaren hitzaren irakurketa garrantzi handiko zatia da liturgian, eta errespetuz entzun behar dute denek. Jainkoaren hitza, Liburu Sainduetako irakurgaietan, edozein alditako gizon-emazte guzientzat errana eta nahiz guzientzat ulergarria izan, haren azalpen argia homiliaren bidez eginez geroz, errexten da haren ulertzea eta ondorioa ; preseski, homilia liturgi ekintzaren zatia da.⁴²

Apezari dagozkion otoitzak eta gainerako zatiak

30. Apezari dagozkion egitekoen artean, ospakizun osoaren puntu gorena den Eukaristi Otoitza da lehena. Horren ondotik, otoitzak datoz, erran nahi baita : hastapenako otoitza, oparigaien gainekoa eta jaunartze ondokoa. Herri saildu osoaren eta han dauden guzien izenean zuzentzen dizkio apezak Jainkoari otoitz horiek,⁴³ Kristoren ordezkari biltzar buru delarik. Arrazoinz, beraz, deitzen dira «buru denaren otoitzak».

31. Molde berean, bildua dagoen biltzarrean buru den apezari zaio ohikunean berean diren oharpenen egitea. Errubrikek hala diotenean, zilegi zaio meza-emaileari horiek zertxobait egokitzea, parte-hartzaileek hobeki uler ditzaten ; halere, kontu izan beza apezak liturgi liburuan datorren oharpenaren erranahia bete behar duela beti, hitz gutxitan laburbilduz. Jainkoaren hitza zuzentzea eta azken benedikapena ematea ere buru den apezari dagokio. Sartzea labur batzuk egitea ere zilegi zaio, eguneko Mezarako fededunak prestatzeko : hastapenako agurraren ondotik eta damu-otoitzaren aitzinetik ; irakurgaien aitzinetik, hitzaren liturgian ; prefazio aitzinetik, Eukaristi Otoitzerako ; baina sekular ez Otoitz hunen barnean ; eta molde berean, apezari dagokio elizkizun osoa amaitzea, azken agurra egin aitzin.

32. «Buru denari» dagozkion eginkizun hauek ahots garbiz eta ozenez egin beharrekoak dira, eta guziek erne-erne entzun beharrekoak.⁴⁴ Horrengatik, apezak hori guzia egiten duen bitartean, ez bedi beste otoitzik edo kanturik egin, eta egon bedi ixilik organoa eta beste edozein soinugailu ere.

33. Apezak, dudarik gabe, biltzarburu denez, Elizaren eta bildua dagoen elkartearen izenean egiten ditu otoitzak ; batzuetan bere izenean bakarrik erraiten ditu, bere eginkizuna arta eta debozio gehioagorekin bete ahal izateko. Ebanjelioa irakurri aitzin, dohainak prestatzean eta apezak jaunartu aitzin eta ondotik egiteko proposatuak dauden otoitz hauek ixilik erranen dira.

Ospakizunean erabiltzen den beste zenbait erranmolde

34. Mezaren ospakizuna bere izatez «elkartekoa» izanez,⁴⁵ garrantzi berezia dute apezaren eta fededunen biltzarraren arteko elkarrizketek, baita gorapenek ere.⁴⁶ Elkarrizketak eta gorapenak, ez dira bakarrik ospakizuna elkarrekin egiten dela adierazteko, apezaren eta herriaren arteko batasuna erretzeko eta ardiesteko ere badira.

35. Elkartu fededunei esku-hartze bizia eskatzen zaie edozein Meza-moldetan ; esku-hartze hori fededunek apezaren agurrei eta otoitzei egiten dizkieten gorapenetan eta erantzunetan gertatzen da, horrela adierazteko eta azkartzeko elkarte osoaren ekintza dela.⁴⁷

36. Fededunen esku-hartze biziaren ezaugarri eta sustatzaile izanez, biltzar osoari dagozkion gainerako zatiak honako hauek dira, bereziki: damu-otoitza, fede-aitormena, Jainkoaren herriaren otoitza eta Jaunaren Otoitza.

37. Azkenik, beste zenbait erranmoldetaz :

a) batzuk, berenaz ohikune edo ekintza dira ; adibidez, **Aintza zeruetan**, erantzun-salmoa, **Alleluia** eta Ebanjelio aitzineko zatia, **Saindu**, anamnesiko gorapena, jaunartze ondoko kantua ;

b) beste batzuk, aldiz, ohikune jakinen lagungarri dira ; adibidez, sartzeko kantua,

eskaintzakoa, ogia zatitzekoa (**Jainkoaren Bildotsa**) eta jaunartzekoa.

Testu bakoitza nola erran

38. Apezak edo diakreak nahiz irakurleak nahiz denek, boz garbiz eta ozenez erran behar dituzten testuetan, nolako testua den halako boza erabili behar da, irakurgaia, otoitza, oharpena, gorapena edo kantu bakoitza bere izaitzearen arabera, ospakizunaren moldea eta biltzarra egiten den besta-eguna ere kontuan izanik. Izan bedi kontuan baita hizkuntza bakoitzaren nolakotasuna eta herrien izaera ere.

Ondoko arau eta errubriketan erabiltzen den «erran» nahiz «proklamatu» hitzak berdin balio du kantuentzat eta ozenki erran beharreko testuentzat, lehenago aipaturiko printzipioen arabera.

Kantuaren garrantzia

39. Jauna noiz etorriko zain bildutako kristau fededunei, salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak denek batean kanta ditzatela eskatzen die Apostoluak (ik. Kol 3, 16). Kantua, izan ere, bihotzeko bozkario betearen ezaugarri da (ik. Eg 2, 46). Hori dela eta, Agustin sainduak arrazoinnez dio : «Maitatzen duenak kantatzen du»,⁴⁸ eta oso aspalditik dator beste erranbide hau ere : «Ongi kantatzen duenak, bi aldiz egiten du otoitz».

40. Mezaren ospakizunean, beraz, oso kondutan har bedi kantua, betiere herri bakoitzaren izaera eta biltzar liturgiko bakoitzaren ahalbideak gogoan izanik. Beraz, kantatzekoak diren testu guziak beti kantatu beharrik ez badago ere, adibidez, asteleguneko Mezan, eginahal guziak egin behar dira igandetan eta Meza entzun beharreko egunetan ministroen eta herriaren kantua falta ez dadin ospakizunetan.

Kantatu behar dena hautatzean, izan bitez garrantzi handiagoa duten zatiak, bereziki apezak edo diakreak nahiz irakurleak, herriaren erantzunekin kantatu behar, edo apezak eta herriak batera kantatu behar.⁴⁹

41. Gainerako kantuen artean, izan beza gregoriar kantuak lehenbiziko lekua, Erromako

liturgiak oso berea duenaz geroz. Ez dira inola ere baztertzen gainerako musika sakratuaren moldeak, polifonia bereziki, baldin eta liturgi ekintzaren izpirituari erantzuten badiote eta fededun guzien esku-hartzea sustatzen badute⁵⁰.

Nazio ezberdinetako fededunak elkartzea noizbehinka baino maizago gertatzen denez, ongi legoke fededun hauek Mezaren Eguneroko zatiren batzuk latinez kantatzen jakitea, bereziki fede-aitormena eta Jaunaren Otoitza, doinurik errexenak erabiliz.⁵¹

Keinuak eta gorputz-jarrerak

42. Ospakizun osoa errespetuz eta xinpletasun zintzoz distiratsu egitera jo behar dute ala apezaren, diakrearen eta laguntzaileen ala herriaren keinuek eta gorputz-jarrerak, zati guzien zinezko erranahi bete ager dadin eta denen parte-hartzea susta.⁵² Aintzat hartu beharko da, beraz, Antolaketa Orokor honek eta Erromako Errituaren jardueran ohikoa denak ezarria eta Jainkoaren herriari on izpirituala ekarriko diona, norberaren joera eta iritzia baino gehiago.

Ospakizunean tarteko direnek gorputz-jarrera bera izaita liturgia sakraturako biltzartu diren kristau-elkarteko kideen batasunaren ezau-garri da, han diren guzien gogo-bihotzen batasuna adierazten baitu eta sustatzen.

43. Fededunak egon bitez zutik sartzeko kantuaren hastapenatik edo apeza aldarera datorrenetik otoitzaren bukaera arte ; Ebanjelio aitzainetik kantatzen den **Alleluia** artean ; Ebanjelioa proklamatu artean ; fede-aitormena eta Jainkoaren herriaren otoitza egin artean ; baita oparigaien gaineko otoitz aitzainetik **Haurrideak, egin dezagun otoitz** deia egiten denetik Meza bukatu arte ere, geroago aipatuko diren uneetan ez bada.

Egon bitez, ordea, jarririk Ebanjelio aitzainetik irakurtzen diren irakurgaietan eta erantzun-salmoa erraitekoan, homiliakoan eta eskaintzarako oparigaiak prestatzen diren artean ; baita, egoki iduritzen bada, jaunartze ondoko isilaldi sakratua egin artean ere.

Belauniko egonen dira, berriz, sagaraldian, baldin eta gaixotasunagatik, lekua estua

delako edo jendetza handia delako nahiz beste arrazoinren batengatik hori ezinezkoa ez bada. Sagarakoan belaunikatu ezin direnek, berriz, konkorr bezate burua, sagara ondotik apeza belaunikatzen denean.

Apezpikuen Biltzarrari dagokio, halere, Mezaren ospakizunerako aipatu diren keinu eta gorputz-jarrera hauek herri bakoitzaren moldetara eta arrazoinezko ohituretara, zuzenbidearen arabera, egokitzea.⁵³ Baina ospakizunaren zati bakoitzaren erranahiari eta izaerari erantzun diezaien saiatu beharko da. **Saindu, Saindua** gorapena egin ondoan Eukaristi Otoitza bukatu arte eta jaunartze aitzainetik apezak **Huna hemen Jainkoaren Bildotsa** erraiten duenean herria belauniko egoiteko ohitura dagoen tokietan, goresgarri da ohitura hori betetzea.

Keinu eta gorputz-jarreretan berdintasun hau lortzeko, obeditu biezaiete fededunek diakreak nahiz laguntzaile laikoak nahiz apezak, Meza Liburuan erabakia dagoenaren arabera, ospakizuna artean eginen dituen oharpenei.

44. «Keinu» hitzaz, ekintzak eta prozesioak ere adierazi nahi dira ; adibidez, apeza diakrearekin eta laguntzaileekin aldarera hurbiltzea, diakreak Ebanjelioa proklamatu aitzin Ebanjelio Liburua irakurtokira eramatea, fededunek emaitzak aldarera eramatea eta jaunartzeko hurbiltzea. Ekintza eta prozesio hauek guziak egin bitez errespetuz, kasu bakoitzerako manatuaren arabera kantu egokiak kantatu bitartean.

Isilaldiak

45. Beharrezko da isilaldi sakratua ere, ospakizunaren zati denez, bere garaian ukaitea.⁵⁴ Isilaldi hauek zertarako diren jakiteko, Mezaren zein zatitan egiten diren izan behar da gogoan ; damu-otoitzean, adibidez, eta otoitzerako dei egindakoan, fededunak nor bere baitan bilduko dira ; irakurgaia nahiz homilia bururatu eta, entzun dutena une batez gogoetatuko dute ; jaunartu ondoan, berriz, beren bihotzetan Jainkoa goratu eta otoitz eginen dute.

Goresgarria da ospakizunaren aitzainetik ere isiltasuna izaita elizan, sakristian eta hurbil dauden lekuetan, denak debozioe eta ongi presta daitezen misterio sailduak ospatzeko.

III. MEZAREN ZATI BAKOITZA

A) HASTAPENEN OHIKUNEA

46. Hitzaren liturgiaren aitzinetikoak – sartzeko kantua, agurra, damu-otoitza, **Urrikal, Jauna, Aintza zeruetan** eta otoitza– ospakizunari hastapena emateko eta prestatzeko dira.

Ohikune hauen helburua hau da : bildu diren fededunek elkarte osatzea eta Jainkoaren hitza behar den bezala entzuteko eta Eukaristia egoki ospatzeko prestatzea.

Liturgi liburuen arabera, Mezarekin lotuta egiten diren ospakizun batzuetan, uzten dira hastapeneko ohikunak edo molde berezian egiten.

Sartzeko kantua

47. Herria biltzarrean bildua dagoela, apeza diakrearekin eta laguntzaileekin sartzen den bitartean, sartzeko kantua hasiko da. Kantu hunen zeregina hau da : ospakizunari hastapena ematea, elkartu direnen batasuna sustatzea eta hauen gogo-bihotzak liturgialdiaren edo bestaren misterioa gogoetatzeko prestatzea, eta apezari eta laguntzaileei prozesioan lagun egitea.

48. Kantariak eta herriak txandaka kantatuko dute, nahiz kantari batek eta herriak nahiz herriak bakarrik nahiz koralak bakarrik. Kantu hortarako Erromako Graduarekin nahiz *Graduale simplex* izenekoan aurkitzen den antifona har daiteke bere salmoarekin, nahiz ospakizun sakratuari edo egunari nahiz liturgialdiari egoki datorkion beste kantu bat, Apezpikuen Biltzarrak onarturiko testuarekin.⁵⁵

Sartzeko kanturik ez bada, Meza Liburuan datorren antifona erranen dute fededun guzietan nahiz horietako batzuek nahiz irakurleen batek ; besterik ezean, apezak berak irakurriko du, hastapeneko oharpentzat ere (ik. 31. zk.) egokitu dezakeelarik.

Aldarea eta biltzarrean bildu herria agurtzea

49. Apezak, diakreak eta laguntzaileek, aldarera heltzean, agurtzen dute, haren aitzinean kunkukurtze nagusia eginez.

Ondotik, apezak eta diakreak musu eginen diote aldareari, errespetua erakusteko ; eta, egoki bada, apezak intsentsuaz usainduko ditu gurutzeta eta aldarea.

50. Sartzeko kantua bukatu, apezak, bere tokian zutik, biltzar osoarekin batean Aitaren eginen du ; ondotik, apezak, agurraren bidez, Jauna presente dagoela adieraziko dio bildutako herriari. Agur hunen eta herriaren erantzunaren bidez, argi erakusten da bildua dagoen Elizaren misterioa.

Herriari agurra eginik, apezak nahiz diakreak nahiz beste laguntzailearen batek, oharpen labur-laburra egin diezaiokio herriari, eguneko Mezarako girotzeko.

Damu-otoitza

51. Ondotik, damurako deia eginen du apezak ; isilaldi laburra egin ondoan, elkarte osoak bekatuen aitormena eginez bururatuko du damu-otoitza, eta apezak barkamen-galdea eginez bukatuko du, nahiz eta eskari honek Penitentziako sakramenduaren ondorioz ez izan.

Igandeetan eta, bereziki, Bazkoaldian, damu-otoitza egin ohi den tokian, batzuetan ura ren benedikapena eta ihintzatzea egin daiteke, Bataioaren oroigarri.⁵⁶

Urrikal, Jauna

52. Damu-otoitzaren ondotik, **Urrikal, Jauna** hasiko du beti, damu-otoitzaren barnean erran ez bada. Fededunek Jauna goratu eta urrikala eskatzen duten kantua izanik, gehienetan guzietan egin beharrekoa da, hau da, herriak, koralak eta kantari batek parte hartzen dutela.

Eskari bakoitza gehienetan bi aldiz egiten da ; baina gehiagotan ere erran daiteke, hizkuntza bakoitzaren izaerak nahiz musikak nahiz beste zerbaitek eskatzen duenaren arabera. **Urrikal, Jauna** damu-otoitzaren zati bezala kantatzen denean, eskari bakoitzaren aitzinetik erranaldi laburra, edo «tropus» deitua, jarriko da.

Aintza zeruetan

53. **Aintza zeruetan** aspaldi-aspaldidaniko eta itzal handiko gorazarrea da : hunen bidez, Izpiritu Sainduarengan bildua den Elizak Jainko Aita eta Bildotsa goستن ditu eta galdeak egiten. Ezin da gorazarre honetako testua aldatu, beste bat sartzeko. Apezak hasiko du edo, hala behar bada, kantariak ala koralak. Fededunen biltzarrak kantatuko du ala herriak eta kantariak txandaka ala koralak bakarrik. Kantatzen ez bada, denek batera erranen dute edo bi taldetan, elkarri erantzunez.

Abendualdian eta Garizuman ez bada, igandetan kantatuko da edo erranen, baita bestaburu eta bestetan ere, eta ospakizun nagusi berezietan.

Otoitza

54. Ondotik, apezak otoitzera dei egingen dio herriari ; eta denek, apezarekin batean, isilaldi labur bat egingen dute, Jainkoaren aitzinean daudela kontura daitezen eta bihotz barnean beren galdeak egin ditzaten. Orduan, apezak Mezako otoitza –kolekta deitua– irakurriko du. Otoitz hunen bidez ospakizunaren nolakotasuna adierazten da. Elizaren antzinako tradizioari jarraikiz, otoitz hau Jainko Aitari zuzendua izan ohi da, Kristoren bidez, Izpiritu Sainduarengan,⁵⁷ eta Hirutasun Saindua aipatuz bururatzen da, molde luzean, honela :

Aitari zuzendua denean : **Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Aitari zuzendua izanik, otoitzaren azkenean Semearen aipamena egiten denean : **Zurekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Semeari zuzendua denean : **Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean Jainko eta errege bizi baitzira gizaldi eta gizaldietan.**

Herriak, eskari hau onartzeko, **Amen** erranen du eta horrela bere egingen otoitza. Mezan kolekta-otoitz bakarra erranen da.

B) HITZAREN LITURGIA

55. Liburu Sainduetatik hartu irakurgaiak osatzen dute hitzaren liturgiaren zati nagusia, tartean kantatzen diren kantuekin batean ; homiliak, fede-aitormenak eta Jainkoaren herriaren otoitzak, berriz, garatu eta bururatzen dute hitzaren liturgia. Homiliak argitzen dituen irakurgaietan, Jainkoak hitz egiten dio bere herriari,⁵⁸ erospenteta salbamen-misterioa argitzen eta izpirituzko janaria eskaintzen ; eta Kristo berbera, bere hitzaren bidez, fededunen erdian dago.⁵⁹ Jainkoaren hitz hau herriak isilaldiaren eta kantuen bidez bere egingo du eta, gainerat, fede-aitormenaren bidez onartuko ; eta hitz honekin hazirik, Jainkoaren herriaren otoitzean Eliza osoaren premietarako eta munduaren salbamenerako galdeak egingen ditu.

Isilaldia

56. Gogoeta errettuko duen moldean ospatu behar da hitzaren liturgia ; osoki baztertzekoa da, beraz, nor bere baitan biltzea trabatuko lukeen molde bateko nahiz besteko presa. Lagungarri dira hortarako baita isilaldi laburrak ere, bildutako elkarteari egokituak, Izpiritu Sainduaren eraginez, Jainkoaren Hitza bihotzean suma dezan eta otoitzean erantzuna emaitako presta dadin. Hala nola, hitzaren liturgia hasi aitzinetik, lehen eta bigarren irakurgaien ondotik eta homiliaren bukaeran egin daitezke halako isilaldiak.⁶⁰

Bibliako irakurgaiak

57. Irakurgaietan Jainkoaren hitzaren mahaia prestatzen zaie fededunei eta Bibliako altxorrek agerian jartzen.⁶¹ Beraz, Bibliako irakurgaiak beren antolaeran bete behar dira, horrela bi Itunak eta salbamenaren historia bat etortzea agerian jartzen baita ; Jainkoaren hitza ekartzen duten irakurgaien eta erantzun-salmoaren orde ezin da Bibliakoa ez den inolako beste testurik sartu.⁶²

58. Herriak esku hartuz ospatutako Mezetan, irakurgaiak beti irakurtokitik egingen dira.

59. Tradizioaren arabera, irakurgaiak proklamatzeko ez da biltzarburuaren egitekoa, laguntzaileena baizik. Irakurgaiak, beraz, irakurleak proklamatu ditu ; Ebanjelioa, berriz, diakreak edo diakrerik ez bada, beste apez batek. Halere, diakrerik edo beste apezik ez balitz, apez meza-emaileak berak irakurriko du Ebanjelioa ; eta beste irakurle egokirik ez balitz, irakur bitza gainerako irakurgaiak ere apez meza-emaileak.

Irakurgai bakoitzaren ondotik, egin beza irakurleak gorapena eta, horri erantzunez, gorets beza bildua dagoen herriak sinesmenez eta gogo onez entzuna duen Jainkoaren hitza.

60. Ebanjelioaren irakurketa da hitzaren liturgiaren gailurra. Errespeturik handiena zor zaiola erakusten du liturgiak berak ; gainerako irakurgaiei ez bezalako ohore berezia emaiten diote, bai proklamatu behar duen ministroak, benedikapena eskatuz edo otoitzaren bidez prestatuz, bai fededunek, Kristo bera mintzatzen zaiela beren gorapenez ezagutu eta aitortzen dutelarik, irakurgaia zutik entzunez, edo Ebanjelio Liburuari egin ohi zaizkion errespetu zeinuez.

Erantzun-salmoa

61. Lehen irakurgaia irakurri ondoan, hitzaren liturgiaren zati den erantzun-salmoa dator eta garrantzi liturgiko eta pastoral handia du, Jainkoaren hitza gogoetatzea sustatzen baitu.

Erantzun-salmoak irakurgai bakoitzari erantzun behar dio, eta *Irakurgaiak* liburutik hartu behar da normalki.

Erantzun-salmoa kantatzea da egokiena, gutxienez herriak eman beharreko erantzuna kantatzea. Salmolariak, beraz, irakurtokitik ala beste leku egokiren batetik proklamatu ditu salmoaren bertsoak, biltzar guziak jarririk entzuten duela ; gainerat, bereziki, bere erantzuna errepikatuko du, baldin salmo osoa etengabe –hau da, erantzunik gabe– irakurtzen ez bada bederen. Halere, salmoei dagozkien erantzunetan herriak errexkiago esku har dezan, zenbait errepika eta salmo hautatu dira, urteko liturgialdien edo sailen sailen arabera. Salmoa kantatzen denean, irakurgaiari doakion

salmoaren ordez, aipaturiko horiek erabil daitezke. Salmoa kantatu ezin bada, Jainkoaren hitza gogoetatzea errextuko duen molderik egokienean erranen da ozenki.

Irakurgaiak liburuan datorren salmoaren ordez, kanta daiteke Erromako *Graduale*-ko gradual-erantzuna edo *Graduale simplex*-eko erantzun-salmoa nahiz **Alleluia** errepika duena, liburu hauek badutenaz gain.

Ebanjelio aitzineko gorapena

62. Ebanjelioaren aitzinetik proklamatu irakurgaiaren ondotik, **Alleluia** edo errubriketan ezarritako beste kantu bat kantatuko da, liturgialdiari doakionaz. Berez ohikune edo ekitaldi den gorapen honekin, Ebanjelioan mintzatuko zaion Jaunari harrera eta agurra egingen dio fededunen biltzarrak, eta kantuz aitortuko du haren baitan duen fedea. Zutik kantatuko dute denek, koralak nahiz kantariak hastapena eman ondoan eta, behar baldin bada, errepikatu egingen da ; bertsoa koralak ala kantariak kantatuko du.

a) **Alleluia** liturgialdi guzietan kantatzen da, Garizuman salbu. Bertsuak Irakurgaiak liburutik edo Graduale-tik hartuko dira.

b) Garizuman, **Alleluia**-ren ordez, *Irakurgaiak* liburuan datorren Ebanjelio aitzineko bertsoa kantatuko da. *Graduale*-an datorren beste salmoren bat ala *tractus*-en bat ere kanta daiteke.

63. Ebanjelio aitzinetik irakurgai bakarra irakurtzen denean :

a) **Alleluia** erran behar den liturgialdian, **Alleluia** errepika duen salmoa, ala salmoa eta **Alleluia** bere bertsuarekin har daiteke.

b) **Alleluia** erran behar ez den liturgialdian, aldiz, salmoa eta Ebanjelio aitzineko bertsoa har daitezke edo salmoa besterik ez.

c) **Alleluia** edo Ebanjelio aitzineko bertsoa kantatzen ez bada, erran gabe utz daiteke.

64. «Neurtitza», Bazko eta Mendekostegunez kanpo, ez da beharrezkoa, eta **Alleluia**-ren aitzinetik kantatuko da.

Homilia

65. Homilia liturgiaren zati da ; guziz gomendagarria,⁶³ beharrezkoa baita kristau-bizitza hazteko. Komeni da Liburu Sainduetako irakurgaien zati baten argibidea izaitzea, nahiz Mezaren Egunerokoaren testu batena nahiz eguneko Meza bereziarena, betiere ospatzen den misterioa eta entzuleen behar bereziak gogoan izanik.⁶⁴

66. Homilia, bereziki, meza-emaile den apezak berak eginen du edo, honek eskaturik, beste elkarmeza-emaileren batek edo, aldian behin, egoki iduriz geroz, baita diakreak ere ; baina inoiz ere ez laikoak.⁶⁵ Kasu berezietan eta arrazoin zuzenik dagoenean, egin dezake homilia biltzarrean dagoen Apezpikuak edo apez batek, elkarmeza eman ezin badu ere.

Igande eta besta oso diren egunetan, herria bildurik emaiten diren Meza guzietan egin beharrezkoa da homilia eta ezin da egin gabe utzi, arrazoin larriren bat gabe ; hortik kanpo, gomendatua da homilia egitea, bereziki Abendualdiko, Garizumako eta Bazkoaldiko astelegunetan, baita elizara jendetza handia joaten den beste besta edo astelegunetan ere.⁶⁶

Egoki da, homilia bukatuak, isilaldi laburra egitea.

Fede-aitormena

67. Kredo edo fede-aitormena honetarako egiten da : bildu den herri osoak Liburu Sainduetatik irakurgaietan proklamatu eta homilian argitu Jainkoaren hitzari erantzuna eman diezaion eta, liturgian erabiltzeko onartua den formulaz fedeko egiak oihukatuz, sinesmeneko misterio handiak gogora ditzan eta aitortu, Eukaristian misterio horien ospakizuna hasi aitzinetik.

68. Kredo apezak herriarekin batean igande eta bestaburuetan erran edo kantatu behar du ; debozio bereziz egiten diren beste ospakizun batzuetan ere erran daiteke.

Kantatzen bada, hasi beza apezak edo, nahi bada, kantariak edo koralak, baina denek kantatu behar dute, batean nahiz herriarekin aldizkatuz.

Kantatzen ez bada, denek erran behar dute ozenki, batean edo bi taldetan elkarri erantzunez.

Jainkoaren herriaren otoitza

69. Guzien aldeko otoitzean edo Jainkoaren herriaren otoitzean herriak fedez onartu duen Jainkoaren hitzari erantzuten dio eta, nolabait, Bataiotik datorkion bere apez-eginkizuna betez, otoitz egiten du gizon-emazte guzien salbamenerako. Herriarekin ospatzen diren Mezetan bereziki egin beharrezkoa da otoitz hau ; eta Eliza sainduaren, herri-agintarien, beharralditan dire nen, gizon-emazte guzien eta munduaren salbamenaren alde egiten dira eskariak.⁶⁷

70. Honako hauek izanen dira gehienetan galde-sailak :

- a) Elizaren beharren alde,
- b) herri-agintarien alde eta mundu osoaren salbamenerako,
- c) zailtasunen baten zamapean daudenen alde,
- d) lekuko kristau-elkartearen alde.

Ospakizun berezietan, aldiz -adibidez, Sendotzan, Ezkontzan edo Hilen mezetan-, ospakizunari egokiago datorkion beste eskari-sailen bat hautatu daiteke.

71. Apez meza-emaileari dagokio jarlekutik otoitz hau zuzentzea. Oharpen laburrez emanen dio hastapena, fededunei otoitzera dei eginez, eta azken otoitzaz bururatuko du. Proposatuko diren asmoak izan bitez soilak, askatasun zuhurrez eta hitz gutxiz eginak, eta adieraz bezate elkarte osoaren galdea.

Gehienetan, irakurtokitik edo beste leku egokiren batetik irakurriko ditu nahiz diakreak nahiz kantariak nahiz irakurleak nahiz fededun laikoak.⁶⁸

Herriak, berriz, zutik adieraziko du bere otoitza, galde bakoitzaren ondotik denek batean erantzunez edo ixilik otoitz eginez.

C) UKARISTIAREN LITURGIA

72. Azken Afarian, Kristok Bazko-oparia eta apairu prestatu zuen eta, hunen bidez, gurutzeko oparia berriz gertaberritzen da Elizan, Kristoren ordezkari den apezak Kristok berak egin zuena eta dizipuluei bere oroigarri egiteko agindu ziena bera egiten duenean.⁶⁹

Kristok, hain zuzen, ogia eta kaliza bere eskuetan hartu, eskerrak eman, zatitu eta bere dizipuluei eman zien, erranez : Hartzazue, jan, edan ; hau nere Gorputza da ; hau nere Odolaren kaliza da. Egizue hau nere oroigarri. Horrengatik, Elizak Eukaristiaren liturgi ospakizun osoa Kristoren hitz eta egintza hauen arabera antolatu du. Hori dela eta :

1) Oparigaiak prestatzekoan, ogia eta arnoa eramaten dira aldarera, urarekin batera, hau da : Kristok berak bere eskuetan hartu zituen gauzak.

2) Eukaristi Otoitzean eskerrak emaiten dizkiogu Jainkoari salbamen-egintzagatik, eta oparigaiak Kristoren Gorputz eta Odol egiten dira.

3) Ogia zatitzean eta jaunartzean, fededunek, asko izanik ere, ogi bakarretik janez Jaunaren Gorputza hartzen dute eta kaliza beretik edanez Jaunaren Odola hartzen, Apostoluek Kristoren beraren eskuetatik hartu zituzten bezala.

Oparigaien prestaera

73. Eukaristiaren liturgia hastean, aldarera eramaten dira Kristoren Gorputz eta Odol egiten diren oparigaiak.

Lehenik, aldarea edo Jaunaren mahaia prestatuko da, aldarea eukaristi liturgiaren erdigunea baita ;⁷⁰ aldarean sagara-oihala, garbi-oihaltxo, Meza Liburua eta kaliza ezarriko dira ; kaliza ondoko mahaitxoan ere presta daiteke.

Ondotik, oparigaiak ekarriko dira : ongi legoke ogia eta arnoa fededunek ekartzea.

Apezak edo diakreak leku egoki batean hartuko ditu aldarera eramateko. Nahiz fededunek liturgikizunerako ekartzen dituzten

ogi-arnoak berenak ez izan lehen bezala, halere, oparigaiak aurkezteko ohikune honek Izpirituzko erranahi eta adierazpen bera du.

Dirua edo beste emaitza batzuk ere ekar daitezke behartsuentzat edo elizarentzat : fededunek berek ekar ditzakete edo elizan bertan bildu ; leku egoki batean ezarriko dira, eukaristi mahaitik kanpo.

74. Oparigaiak eramateko egin ohi den prozesioan, oparigaien aurkezpeneko kantua kantatzen da (ik. 37. b zk.) ; kantu honek gutxienez oparigaiak aldare gainean ezarri arte iraunen du. Kantu hau kantatzeko arauak, sartzeko kantuarentzat emandako arau berberak dira (ik. 48. zk.). Oparigaiak aitzineko ohikunean beti kanta daiteke kantu bat, oparigaiak prozesioan ekartzen ez badira ere.

75. Apezak aldare gainean emanen ditu ogia eta arnoa, ezarritako formulak errezatzen dituen bitartean. Aldarean ezarri oparigaiak intsentsutu ditzake apezak, gero bai gurutzeta eta aldarea bera ere, Elizaren emaitzak eta otoitzak, intsentsua bezala, Jainkoaren aitzinera igaten direla adierazteko. Ondotik, diakreak edo beste laguntzaile batek intsentsa ditzake apezak, honek duen ministerio sakratuagatik, eta herria, Bataioari esker duen duintasunagatik.

76. Ondotik, apezak eskuak garbituko ditu aldare bazterrean. Ohikune honek barneko garbitasun-gogoia adierazten du.

Oparigaien gaineko otoitza

77. Oparigaiak ezarri eta hortarako egin diren ohikuneak bukatutakoan, dei egiten dio herriari apezak berekin batean otoitz egitera, eta oparigaien gaineko otoitza errezatuko du ; horrela bururatzen da oparigaien prestatzea, eta dena prest gelditzen da Eukaristi Otoitzerako.

Mezan oparigaien gaineko otoitz bakarra egiten da, bukaera laburrez bukatuz, honela : **Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** Bukaeran Semearen aipamena egiten bada : **Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Herriak, eskari hau onartzeko, **Amen** erranen du eta, horrela, bere egiten otoitza.

Eukaristi Otoitza

78. Orain hasten da ospakizun osoaren erdigunea eta gailurra, hau da, Eukaristi Otoitza : esker eta sagara-otoitza. Apezak bihotza Jainkoagana altxatzeko deia eginen dio herriari, otoitz eginez eta eskerrak emanaz ; eta Jesu Kristoren bidez eta Izpiritu Saindua baitan, elkarte osoaren izenean, Jainko Aitari zuzentzen dion otoitzean apezak berekin bat eginen du herria. Otoitz hunen erranahia hau da : fededunen biltzar osoak Kristorekin bat egiten duela, Jainkoaren egintza handiak aitortuz eta oparia eskainiz. Denek errespetuz eta ixilik entzun behar dute Eukaristi Otoitza.

79. Eukaristi Otoitzak dituen zatirik nagusienak honela bereiz daitezke :

a) Eskerrak emaita -hau, bereziki, prefazioan adierazten da- : apezak, herri saindu osoaren izenean, Jainko Aita goratzen du eta, salbamen-egintza guziagatik edo beraren alderdi berezi batzuegatik, eskerrak emaiten dizkio, egunari, bestari edo liturgialdiari doakionez.

b) Gorapena : hunen bidez, biltzar osoak, zerutarrekin bat eginik, **Saindu, Saindua** kantatzen du. Gorapen hau Eukaristi Otoitzaren zatia da eta herri guziak proklamatu du apezarekin batean.

c) Epiklesia : zati huntan, Elizak eskari berezi batzuen bidez, Izpiritu Sainduaren eragina eskatzen du, gizakiek eskaini dohainak sagartuak gerta daitezen, hau da : Kristoren Gorputz eta Odol egin daitezen, eta jaunartzekoan ostia notagabea salbagarri gerta dadin hartuko duten guzientzat.

d) Eukaristia moldatua izan zeneko kontakizuna eta sagaratzea : zati huntan, Kristoren hitz eta ekintzen bidez, Kristok berak Azken Afarian moldatu zuen oparia gauzatzen da ; ogi-arnoen itxurapean bere Gorputza eta Odola eskaini baitzituen eta janari-edaritzat Apostoluei eman zizkien, misterio honi beti iraurarazteko aginduz.

e) Anamnesia : une huntan, Elizak Apostoluen bitartez Kristo Jaunarengandik hartuta agindua betetzean, Kristoren beraren oroigarria bururatzen du, bereziki haren pasione dohatsua, pizte zorionsua eta zerura igotzea gogoratuz.

f) Eskaintza : hunen bidez Elizak, bereziki hemen eta orain bildua dagoen Elizak, oroigarri huntan opari notagabea eskaintzen dio Aitari, Izpiritu Sainduarengan. Elizaren nahia hau da : fededunek, ez bakarrik opari notagabea, baina beren burua ere opari eskain dezatela⁷¹ eta, Kristoren bitartez, Jainkoarekiko eta bata bestearekiko batasun osoa egin dezatela, azkenean Jainkoa guzientzat guzia izan dadin.⁷²

g) Eskariak : hauen bidez adierazten da, Eliza osoarekin -zeruko eta lurreko Elizarekin- bat eginik ospatzen dela Eukaristia ; eta beraren alde eta haren gorputz-atal guzien alde, bizien eta hilen alde, egiten dela oparia, gorputz-atal guziak Kristoren Gorputz Odolez ardietsi salbamenean eta erospenean esku hartzera deituak direnez.

h) Azken doxologia : hunen bidez Jainkoaren gorespina adierazten da ; herriak **Amen** erranez baiesten eta bururatzen da.

Jaunartzeko ohikunea

80. Eukaristi ospakizuna Bazko-afaria dugunez, Jaunak eman aginduaren arabera, sinestedunek, behar bezala prestatuak, haren Gorputza eta Odola hartzea komeni da, izpirituzko janaritzat. Hortarako dira ogi-zatitzea eta prestaera diren gainerako ohikunak ; hauen bidez eramaten dira fededunak jaunartze-aldira.

Jaunaren Otoitza

81. Jaunaren Otoitzean egunean eguneko ogia eskatzen da eta hor, kristauontzat, eukaristi ogia ere gomendatzen da ; bekatuen garbikuntza ere eskatzen da, gauza sainduak egiaz sainduei emanak izan daitezen. Apezak otoitzerako deia eginen du eta fededun guziek apezarekin batean erranen dute otoitza. Enbolismoa apezak bakarrik erranen du eta herriak doxologiaz bukatuko. Jaunaren Otoitzaren azkeneko galdea zabalago azaltzen duen enbolismoak gaiztoaren indarretik askatzea eskatzen du fededunen elkarte osoarentzat.

Deia, otoitza bera, enbolismoa eta zati hau bukatzeko herriak erraiten duen doxologia kantatuz nahiz ozenki erranen dira.

Bakearen ohikunea

82. Ondotik, bakearen ohikunea dator : hunen bidez Elizak bakea eta batasuna eskatzen du beretzat eta giza familia osoarentzat, eta fededunek eliz batasuna eta elkarrenganako maitasuna adierazten dute, Sakramenduan parte hartu aitzinetik.

Bakea emaitaren ohikuneari gagozkiola, ezar bezate Apezpikuen Biltzarrek molderik hoberena, herri bakoitzaren molde eta ohiturak gogoan izanik. Halere, bakoitzak bere inguruan ditueni bakarrik eta soiltasunez komeni da bakea emaita.

Ogi-zatitzea

83. Apezak zatituko du eukaristi ogia, behar izanez geroz diakreak edo elkarmeza-emaile batek lagundurik. Ogi-zatitzeak, Azken Afarian Kristok egindako ohikune honek, Eukaristiaren ospakizun osoari eman zion izena Apostoluen aldian. Fededunek, asko izanik ere, ogi bizi-emaile bakarria hartzean, gorputz bat egiten dugula adierazten du ohikune horrek (1 Ko 10, 17), munduaren salbamenerako hil eta piztu zen Kristo baita ogi hori. Bakea eman ondoan, hasten da ogi-zatitzea eta behar bezalako errespetuz eginen da, behar baino gehiago luzatu gabe baina garrantzi gabekoa deneko itxura eman gabe. Ohikune hau egitea apezari eta diakreaki dagokie.

Apezak ogia zatitu eta ostia-zatitxoa kalizara botako du. Horrekin salbamenerako den Jaunaren Gorputz Odolen batasuna adierazten da, bizirik eta aintzaz betea den Kristo Jesusen Gorputza, alegia. **Jainkoaren Bildotsa** deia normalki koralak edo kantariak kantatuko du edo, gutxienez, ozenki erranen, herriak erantzuten duela. Dei hau, ogi-zatitzea egiten den artean behar bezainbatean errepika daiteke, ohikunea bururatu arte. Azkenean, **emaguzu bakea** erranez bukatuko da.

Jaunartzea

84. Bere barnean ixilik otoitz eginez prestatuko da apeza, Kristoren Gorputza eta Odola molde

baliosean hartzeko. Fededunek hori bera eginen dute, ixilik otoitz eginez.

Ondotik, apezak eukaristi ogia, patenaren edo kalizaren gainean jarria, fededunei erakutsiko die eta Kristoren apairura dei eginen eta, fededunekin batean, agindurik dauden Ebanjelioko hitzak erabiliz, apaltasun-ekintza eginen du.

85. Oso desiragarri da fededunek, apezak berak egin behar duen bezala, Meza hartan bertan sagaraturiko ogiaz Jaunaren Gorputza hartzea ; baita, aurreikusitako kasuetan, kalizatik edatea ere (*ik.* 283. *zk.*), ageriko ezaugarritz hobeki ager dadin, jaunartzea orduantxe ospatzen den oparian parte hartzea dela.⁷³

86. Apezak jaunartzen duen artean kominione-kantua hasiko da ; kantu honek, bozen batasunaren bidez, jaunartzen dutenen izpirituzko batasuna adierazi behar du, bihotzeko bozkarioa agertu eta argi erakutsi Eukaristia hartzera joateko prozesioa «elkartzeari» dela. Fededunei Sakramendua banatu artean iraunen du kantuak.⁷⁴ Jaunartze ondoan, gorespen bat kantatzekoa bada, geldi bedi behar delarik kominione-kantua.

Kantariak ere lasai jaunartu ahal dezaten zaindu behar da.

87. Jaunartze-kanturako har daiteke Erromako *Graduale*-ko antifonaren bat, salmo eta nahiz salmorik gabe nahiz *Graduale simplex*-eko antifona bere salmoarekin, nahiz egokia den beste kantu bat, Apezpikuen Biltzarrak onartua. Koralak bakarrik nahiz koralak edo kantari batek herriarekin batean kantatuko dute.

Kanturik ez balitz, Meza Liburuan datorren antifona erran dezakete fededun guzietan edo horietako batzuek edo irakurleren batek ; besterik ezean, apezak berak irakurriko du, berak jaunartu ondoan, eta fededunei gure Jauna eman baino lehen.

88. Jauna emaita bukatutakoan, apezak eta fededunek aldi batez otoitz eginen dute ixilik, egoki iduritzen bada. Nahi bada, biltzar osoak salmoren bat nahiz gorespenezko beste kantu bat nahiz gorazarreren bat kanta dezake.

89. Jainkoaren herriaren otoitz hau eta jaunartze-ohikune osoa burutzeko, apezak jau nartze-ondoko otoitza eginen du, ospatutako misterioaren fruituak ardiets daitezela eskatuz.

Mezan jaunartze ondoko otoitz bakarra eginen da eta bukaera laburrez bukatuko, honela :

Aitari zuzendua denean : **Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez ;**

Aitari zuzendua denean, baina azkenean Semearen aipamena egiten bada : **Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan ;**

Semeari zuzendua denean : **Jainko eta errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.** Herriak **Amen** erranen du eta, horrela, otoitza bere eginen.

D) BUKAERAKO OHIKUNEA

90. Bukaerako ohikuneak zati hauek ditu :

a) Ohar laburrak, beharrezko baldin badira ;

b) apezaren agurra eta benedikapena ; hau, egun eta egokiera batzuetan, herriaren gaineko otoitzaz edo benedikapen-molde nagusiaz aberasten eta adierazten da ;

c) azken agurra, diakreak nahiz apezak egina, bakoitza bere eginkizun onetara itzultze dadin, Jainkoa goratuz eta benedikatu ;

d) aldareari apezak eta diakreak musu egitea eta, ondotik, aldare aitzinean apezak, diakreak eta gainerako laguntzaileek konkortze nagusia egitea.

III. KAPITULUA

EGINKIZUNAK ETA MINISTERIOAK MEZAREN OSPAKIZUNEAN

91. Kristoren eta Elizaren ekintza da eukaristi ospakizuna ; hau da, Apezpikuaren ardurapean bildua eta prestatua dagoen herri sailduaren ekintza. Horrengatik, eliz gorputz osoari dagokio

eta horixe adierazten eta gertarazten du. Gorputz-atal bakoitzarengan, halere, eragin ezberdina du, zeren ordenak, eginkizunak eta bertan esku hartzeko moduak ezberdinak baitira.⁷⁵

Horrela, «jatorri hautatu, errege eta apez, nazio sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri» den kristau-herriak agerian jartzen du bere antolakuntza koherentea eta hierarkikoa.⁷⁶

Denek ere, nola ministro ordenatuek hala kristau-fededun laikoek, beren zerbitzua nahiz eginkizuna betetzean, egin bezate bakoitzari doakion guzia eta ez besterik.⁷⁷

I. ORDENA SAKRATUARI DAGOZKION EGINKIZUNAK

92. Eukaristiaren legezko ospakizun oro Apezpikuak zuzenduko du, berak zuzenean edo bere laguntzaile dituen apezaren bitartez.⁷⁸

Mezatarako herria bildu denean, Apezpikua bertan badago, oso komenigarri da Eukaristian bera buru izatea eta apezak ekintza sakratuan lagun izatea, elkarmeza-emaile moduan. «Batasunaren sakramendu» den Eliza hunen misterioa argiago ager dadin egiten da hori, ez ohikunearen azaleko ospea handitzeko.⁷⁹

Baina Eukaristian Apezpikua buru ez bada eta horretarako, bere orde, beste norbait izendatu badu, orduan egoki da hitzaren liturgian biltzarburu bera izatea, albaren gainean estola, bular-gurutzea eta eliz kapa soinean harturik, eta Mezaren azkenean benedikapena ere berak ematea.⁸⁰

93. Apezak ere Ordena sakratuaren ahalmena du, Elizan Kristoren ordezkari bezala oparia eskaintzeko.⁸¹ Hori dela eta, orain eta hemen bildua dagoen herriaren biltzarburu izan da, otoitza zuzenduko du, salbamen-mezua iragarriko, herria berekin elkartuko du Aita Jainkoari Kristoren bitartez Izpiritu Sainduagan oparia es kaintzean ; bere haurrideei betiereko biziaren ogia emanen die eta berak ere haiekin batera hartuko du. Hau dela eta, Eukaristia ospatzean, duintasunez eta apalik zerbitzatu behar ditu Jainkoa eta herria eta, bere jokaeraz eta jainkozko hitzak proklamatzeko moldez, Kristo han bizirik dagoela iradoki behar die fededunei.

94. Apezaren ondotik, diakreak du, hartua duen Ordena sakratuaren kariaz, lehenbiziko lekua eukaristi ospakizunean zerbitzari direnen artean. Diakretzako Ordena sakratua Apostoluen aspaldiko garai haietatik ospe handiko zerbitzumaila izan da Elizan.⁸² Mezan diakreak duen berariazko eginkizuna Ebanjelioa iragartzea da eta inoiz Jainkoaren hitza predikatzea ere bai ; Jainkoaren herriaren otoitzean galdeak adieraztea ; apezari laguntzea ; aldarea prestatzea eta oparia ospatzean zerbitzatzeta ; fededunei Eukaristia banatzea, bereziki arnoaren itxurapean, eta keinuei eta gorputz-jarrerei buruz biltzar osoari oharpenak egitea.

II. JAINKOAREN HERRIAREN EGINKIZUNAK

95. Mezaren ospakizunean, fededunek «herri saildua, Jainkoak beretzat irabazitako herria, errege eta apez den herria» osatzen dute, Jainkoari eskerrak emaitako eta, apezaren eskuz ez ezik, apezarekin batean opari errugabea eskaintzeko eta beren burua ere eskaintzen ikasteko.⁸³ Ardura bitez, bada, hau erakusten, erlijiozko sen sakonaren bidez eta ospakizun berean esku hartzen duten haurrideenganako maitasunaren bidez.

Utz bezate, beraz, alde batera bakarkeriako nahiz zatiketako edozein itxura ere, gogoan izanik bakarra dela zeruan duten Aita eta, horrengatik, denak haurride direla elkarrentzat.

96. Egin bezate, bada, gorputz bat Jainkoaren hitza entzunez, otoitz eta kantuetan esku hartuz, bereziki denek batera oparia eskaintzean eta Jaunaren mahaian parte hartzean. Batasun hau ederki agertzen da, fededun guziek elkarrekin keinu eta gorputz-jarrera berak dituztenean.

97. Fededunek ez bezate ezezkorik eman, ospakizunean ministerio edo eginkizunen bat betetzeko eskatzen zaienean, eta zerbitza bezate pozik Jainkoaren herria.

III. MINISTERIO BEREZIAK

Akolito eta irakurle prestatu ministerioa

98. Aldarearen zerbitzurako eta apezari eta diakreari laguntzeko prestatua dago akolitoa.

Berari dagokio, bereziki, aldarea eta ontzi sakratuak prestatzea eta, behar izanez geroz, ezohiko zerbitzari gisa, fededunei Eukaristia banatzea.⁸⁴

Aldareko zerbitzuan akolitoak baditu bere zati berariazkoak (*ik. 187-193. zk.*), berak bete beharrekoak.

99. Liburu Sainduetako irakurgaiak proklamatzeko formatua dago irakurlea, Ebanjelioa ez bada. Jainkoaren herriaren otoitzeko galdeak ere aurkez ditzake eta, salmolaririk ez dagoenean, erantzun-salmoa proklamatu ere bai.

Eukaristi ospakizunean irakurleak badu bere eginkizun berezia (*ik. 194-198. zk.*), berak bete beharrekoa, ordenatua dagoen zerbitzaria tartean egonik ere.

Gainerako eginkizunak

100. Akolito formaturik ez denean, laguntzaile laikoak izenda daitezke aldarearen zerbitzurako eta apezari eta diakreari laguntzeko. Gurutzea, kandelak, intsentsu-ontzia, ogia, arnoa, ura eramanen dituzte horiek eta gure Jauna emaitako ere izenda daitezke, ezohiko ministro moduan.⁸⁵

101. Irakurle formaturik ez denean, izenda bitez beste laiko batzuk Liburu Sainduetako irakurgaiak proklamatzeko, eginkizun hori betetzeko zinez gai baldin badira eta artarekin prestatuak, horrela fededunek, irakurgaiak entzunez, Liburu Sainduekiko maitasun samurra eta bizia ardiets dezaten beren bihotzean.⁸⁶

102. Salmoa edo irakurgaien arteko beste kantu biblioren bat kantatzea salmolaritari dagokio. Eginkizun hau ongi bete dezan, beharrezko du kantariak salmo-kanturako trebetasuna izatea, hitzak ondo ebakitzen eta garbi ahoskatzen jakitea eta kanturako gaitasuna izatea.

103. Fededunen artean, bere eginkizun liturgiko berezia du koralak edo abestaldeak :

berari dagozkion zatiak ongi kantatzea, kantuaren nolakotasunaren arabera, eta fededunei kantuan parte hartzen laguntzea.⁸⁷

Koralarentzat erraiten den honek berdin balio du gainerako musikarientzat ere, bakoitzari doakionez, bereziki organistarentzat.

104. Kantariren bat edo kantu-zuzendariren bat jartzea komeni da, herriaren kantua zuzentzeko eta eusteko. Are gehiago, koralarik ez balitz, kantari batek zuzenduko ditu kantuak, herriak berari doakiona kantatuko duelarik.⁸⁸

105. Eginkizun liturgikoa betetzen dute beste hauek ere :

a) Sakristauak ala serorak : liburu liturgikoak, jantziak eta Meza ospatzeko behar diren gainerako gauzak prestatuko ditu artarekin.

b) Ohargileak : honek argitasunak eta oharpenak eginen ditu egoki denean, laburki, fededunak ospakizunean esku hartu eta hobeki ulertzeko presta daitezen. Oharpenak ongi prestaturik eramatea komeni da eta argiak eta neurritsuak izaita. Bere eginkizuna betetzeko, ohargileak fededunen aitzinean leku egokia izan behar du, baina ez irakurtokia.

c) Elizan diru-bilketak egiten dituztenek.

d) Herrialde batzuetan, fededunei eliz atarian ongi etorria egiteko arduraduna ere izan ohi da, bakoitzari bere lekua erakusteko eta prozesioak prestatzeko.

106. Bereziki Apezpiku-elizetan eta eliza nagusienetan ondo legoke gai izan den ministroa edo zeremoni zuzendaria izendatua izaita, elizkizun sakratuak egoki prestatzeko, eta ministro sakratuek eta fededun laikoek beren egitekoak errespetuz, behar den bezala eta debozioz bete ditzaten.

107. Apezari edo diakreari ez dagozkion eginkizunak –lehenago aipatuak baitira (100-106. zk.)–, parrokoak nahiz elizako erretoreak hautatutako laiko egokien esku utz daitezke,⁸⁹ benedikapen liturgikoa edo aldi baterako izendapena emanik. Apeza aldarean zerbitzatzeko eginkizunari buruz, errespetu bidez Apezpikuak bere diozesarako emandako arauak.

IV. EGINKIZUNAK BANATZEA ETA OSPAKIZUNA PRESTATZEA

108. Biltzarburu-eginkizuna apez batek berak bete behar du beti zati guzietan, Apezpikua bertan dagoenean berari dagozkion Meza-zatietan ez bada (*ik. lehenago, 92. zk.*)

109. Ministerio bera egiteko zerbitzari bat baino gehiago balitz, ez dago inolako trabarik zerbitzuaren zati batzuk batek eta beste zati batzuk beste batek egin ditzan ; adibidez, diakre batek kantatzen diren zatiak har ditzake bere gain, eta beste batek aldareko zerbitzua ; irakurgai bat baino gehiago izanez geroz, ongi legoke irakurle batek baino gehiagok proklamatzeko ; eta gauza bera gainerakoetan. Halere, ez da ospakizuneko osagai bat askoren artean banatuko ; adibidez, irakurgai bera bik, batak bestearen ondotik, irakurtzea, Jaunaren Pasionea ez bada.

110. Herriarekin ospatzen den Mezan laguntzaile bat besterik ez badago, bete bitza horrek laguntzaileen eginkizun guziak.

111. Liturgi ospakizun bakoitzaren prestaera egin bezate artarekin eta gogo onez elkaturik, Meza Liburuaren eta gainerako liburu liturgikoen arabera ospakizunean zerikusia duten guziek, bai ohikuneari bai musika-alderdiei eta ikuspegi pastoralari dagozkienetan, eliz arduradunaren gidaritzapean, eta zuzenean fededunei dagozkienetan haien iritzia ere entzunik. Ospakizunean buru izan den apezak, halere, berari dagozkienetan erabakiak hartzeko eskubidea du.⁹⁰

IV. KAPITULUA

MEZA OSPATZEKO ZENBAIT MOLDE

112. Lekuan lekuko Elizan, bere apez-taldeaz, diakreez eta ministro laikoez inguratutik, Apezpikua buru dela⁹¹ eta Jainkoaren herri sailduak bertan oso-osorik eta egitez parte hartuz ospatzen den Mezari dagokio zalantzarik gabe lehentasuna, beraren erranahiagatik.

Horrelako Mezan gauzatzen da, hain zuzen ere, Elizaren agerbiderik nagusia.

Apezpikuak eman Mezan edo, berak Eukaristia ospatu gabe, bera buru den Mezan, bete bitez Apezpikuen Zeremoni Liburuan datozen arauak.⁹²

113. Elkarrekin jakin batekin emaiten den Meza ere osoki aintzat hartzekoa da, bereziki parroki elkarrekin emaiten denean, garai eta leku jakinetan Eliza orokorra adierazten duelako, bereziki igandearen elkarrekin ospakizunean.⁹³

114. Elkarrekin ospatzen dituzten Mezen artean, komentuko mezak –Elizak egunero ospatzen duen liturgiaren zati delako–, edo «elkarrekin-meza» deritzanak, garrantzi berezia du. Eta Meza hauek aparteko moldera eman beharrik ez izanik ere, oso ongi legoke kantatzea eta, bereziki, elkarrekin guzietan –erlijioso nahiz kalonje-oso-osorik esku hartzea. Horrengatik, honelako Mezan, bete beza nork bere eginkizuna, hartu duen Ordenaren edo ministerioaren arabera. Beraz, kasu hauetan, fededunen probetxu pastoralagatik Meza bakarka eman behar ez duten apez guzietan, ahal bada, elkarrekin emaita da onena. Areago oraindik, elkarrekin apez guzietan, fededunen probetxu pastoralagatik Meza bakarka eman beharra izanik ere, egun berean komentuko mezan edo «elkarrekin-mezan» esku har dezakete.⁹⁴ Egokiago da, izan ere, eukaristi ospakizunean dauden apezek, arrazoin zuzenen batekin salbuesten ez baditu bederen, beren Ordenari doakion eginkizuna betetzea eta, horrengatik, jantzi sakratuak soinean harturik, elkarrekin emaita bezala esku hartzea. Elkarrekin emaiten ez badute, doakion koru-jantzia edo erroketea eramanen dute sotanaren gainean.

I. HERRIAREKIN OSPATU MEZA

115. «Herriarekin ospatu Meza» emaitan, fededunek esku hartuz emaiten den Meza erra nahi da. Ahal den guzietan, bereziki igande eta besta-egunetan, Meza hau kantuz eta egoki diren beste laguntzaileekin emaita komeni da,⁹⁵ halere, kanturik gabe eta laguntzaile bakarrekin ere eman daiteke.

116. Edozein meza-ospakizunean, diakreak, bertan baldin bada, bete beza bere eginkizuna. Meza-emaitari, komuzki, akolitoak, irakurleak eta kantariak laguntzea komeni da. Ondotik azalduko dugun errituak, alabaina, laguntzaile gehiago izatea ere aurreikusten du.

Prestatu beharrekoak

117. Aldarea gutxienez zapi zuri batez estali behar da. Aldare gainean edo inguruan, ospakizun orotan gutxienez bi argimutil ezarri behar dira kandela piztuekin, edo lau nahiz sei –bereziki, igandeko edo besta osoko Meza denean– eta, diozesako Apezpikuak Meza emaiten duenean, zazpi kandela. molde berean, aldare gainean edo aldaretik hurbil, gurutzak ere egon behar du, Kristo gurutziltzatua irudiarekin. Argimutilak eta Kristo gurutziltzatua irudia daraman gurutzak sartzeko prozesioan eraman daitezke. Ebanjelio Liburua ere aldare gainean ipin daiteke, baldin sartzeko prozesioan eramanen ez bada eta beste irakurgaien liburuak ezberdina bada.

118. Honako hauek ere prestatu behar dira :

- a) apezaren jarleku ondoan : Meza Liburua eta, beharrezko bada, kantu-liburuxka,
- b) irakurtokian : irakurgaien liburua,
- c) bazterreko mahaitxoan : kaliza, sagaroi-hala, garbi-oihaltzoa, kaliza-estalkitxo –erabiltzen bada–, patena eta kopoiak –beharrezko badira– biltzarburu den apezak, diakreak, laguntzaileak eta herriak jaunartzeko ogiarekin ; ur-arnoen ontziak arnoarekin eta urarekin, baldin hauek oparigaien aurkezpenekoan fededunek ekarri behar ez badituzte ; ur benedikatuaren ontzia, ihintzatzea egiteko bada ; fededunen jaunartzerako azpiltxoak eta esku-garbiketarako behar direnak.

Egoki da kaliza estalkitxoaz estaltzea ; eguneko kolorekoa edo zuria izan daiteke estalkitxoak.

119. Sakristian, nolako Meza-ospakizuna izanen den kontuan izanik, apezaren, diakrearen eta gainerako laguntzaileen eliz jantziak prestatu behar dira (*ik. 337-341. zk.*) :

a) apezarentzat : alba, estola eta kasuila ;

b) diakrearentzat : alba, estola eta dalmatika ; halabeharrak edo ospe txikiagoko mailak eskatuz geroz, utz daiteke dalmatika ;

c) gainerako laguntzaileentzat : alba edo onartuak diren beste jantziren batzuk.⁹⁶

Alba janzten dutenek erabil bezate kordia eta amitoa ere, albaren forma dela-eta horiek beharrezko ez badira bederen.

Mezarako sartzean prozesioa egitekoa bada, presta bitez Ebanjelio Liburua ere ; igandean eta besta-egunetan intsentsu-ontzia eta nabeta intsentsuarekin, eta prozesioan eramanen diren gurutzea eta argimutilak kandela piztuekin.

A) MEZA DIAKRERIK GABE

Hastapenako ohikuneak

120. Herria biltzarrean bildua dagoelarik, apeza eta laguntzaileak, bakoitza bere eliz jantziak soinean dituela, aldarera joanen dira molde huntan :

a) laguntzaile bat, ketan dagoen intsentsu-ontzia daramala, baldin intsentsua erabiltzekoa bada ;

b) kandelak daramatzaten laguntzaileak eta hauen erdian akolitoa edo beste laguntzailearen bat gurutzearekin ;

c) akolitoak eta gainerako laguntzaileak ;

d) irakurlea, Ebanjelio Liburua zertxobait altxaturik eraman dezakeelarik, ez, ordea, Irakurgaien liburua ;

e) meza-emaile izanen den apeza.

Intsentsua erabiltzekoa bada, apezak, prozesioa hasi aitzinetik, intsentsua jarriko du ontzian eta gurutzearen seinalea eginez benedikatu, ezer erran gabe.

121. Aldarerantz prozesioa egin bitartean, sartzeko kantua kantatuko da (*ik. 47-48. zk.*).

122. Aldarera iritsitakoan, apezak eta laguntzaileek konkortze nagusia eginen dute.

Prozesioan Kristo gurutziltzatuaren irudia duen gurutzea eraman bada, ezar daiteke aldarera

ondoan, aldarera gurutzetatzat, baina gurutze bakarra izan dadila ; bestela leku egokiren batean utziko da. Argimutilak, berriz, aldarera gainean nahiz ondoan jarriko dira ; eta Ebanjelio Liburua aldarera gainean.

123. Apezak, aldarera heltzean, musu eginen dio errespetuz. Ondotik, egoki iduritzen bada, gurutzea eta aldarera intsentsatuko ditu, inguratuz.

124. Hau egunik, apeza bere jarlekura joanen da. Sartzeko kantua bukatutakoan, guziek – apez eta fededun–, zutik, gurutzearen seinalea eginen dute. Apezak hau erranen du : **Aitarean, eta Semearen, eta Izipiritu Sainduaren izenean.** Herriak erantzunen du : **Amen.**

Gero, apezak, herriari begira eta besoak zabalduz, biltzarra agurtuko du, ezarritako agur-moldearen batez. Eta apezak berak edo beste laguntzaile egoki batek, oharpen laburra ere egin diezaieke fededunei, eguneko Mezarako girotzeko.

125. Gero damu-otoitza eginen du. Ondotik, **Urrikal, Jauna** kantatuko nahiz erranen da, errubriken arabera (*ik. 52. zk.*).

126. Agindua dagoenean, **Aintza zeruetan** kantatuko nahiz erranen da (*ik. 53. zk.*).

127. Ondotik, apezak herriari otoitz egitera deituko dio, eskuak bilduz eta **Egin dezagun otoitz** erranez. Eta guziek, apezarekin batean, otoitz eginen dute unetxo batez ixilik. Gero, apezak, besoak zabalik, otoitza erranen du, eta bukaeran herriak erantzunen : **Amen.**

Hitzaren liturgia

128. Otoitza bukatutakoan, jarriko dira denak. Apezak egin diezaieke, labor-labor, fededunei oharpena hitzaren liturgiarako sartzea gisa. Irakurleak, berriz, irakurtokira joan eta, Meza aitzinetik bertan ezarria behar duen irakurgailiburutik, lehen irakurgaia proklamatu du, denek entzuten dutela. Bukatzean, irakurleak **Jaunak errana** gorapena oihukatuko du, eta denek erantzunen dute **Eskerrak Zuri, Jauna.**

Orduan, isilaldi laburra egin daiteke, egoki iduritzen bada, denek gogoeta dezaten entzun dutena.

129. Gero, salmolariak nahiz irakurleak berak salmo-ahapaldia erranen du, eta herriak eskuarki errepika erranez erantzunen.

130. Ebanjelio aitzinetik bigarren irakurgairik baldin bada, irakurleak irakurtokitik proklama tuko du, denek entzuten dutela eta, bukatzean, gorapenari erantzunen, lehenago erran bezala (*ik. 128. zk.*). Ondotik, egoki iduritzen bada, isilaldi laburra egin daiteke.

131. Ondotik, denak zutiturik, **Alleluia** edo beste kantu bat kantatuko da, liturgialdiak eskatzen duenaren arabera (*ik. 62-64. zk.*).

132. **Alleluia** edo beste kantu hori kantatu bitartean, intsentsurik erabiltzen bada, apezak intsentsua jarriko du eta benedikatu. Gero, eskuak bildurik eta aldare aitzinean erabat konkorturik, **Garbi itzazu** erranen du ixilik.

133. Ondotik, Ebanjelio Liburua hartuko du, aldarean baldin badago, eta, laguntzaile laikoak aitzinetik doazela –hauek eraman ditzakete intsentsu-ontzia eta kandelak–, irakurtokira hurbilduko da, Ebanjelio Liburua zertxobait altxaturik eramanez. Bertan daudenak irakurtokira begira jarriko dira, Kristoren Ebanjelioari dioten errespetu berezia aditzera emanez.

134. Irakurtokian, apezak liburua ireki eta, eskuak bildurik, erranen du : **Jauna zuekin** ; herriak hau erantzunen du : **Eta zure izpirituarekin**, eta gero : **Jesu Kristoren Ebanjelioa**, hatz lodiaz liburuaren gainean gurutzearen seinalea eginez, eta ondotik baita bere bekokian, ahoan eta bularrean ere. Gainerako guzietan ere hori bera egingen dute. Herriak hau oihukatuko du : **Aintza Zuri, Jauna**. Apezak, intsentsurik erabiltzen bada, liburua intsentsatuko du (*ik. 277-278. zk.*). Ondotik, Ebanjelioa proklamatu du, bukaeran gorapen hau erranez : **Jaunak errana**, eta denek erantzunen dute : **Eskerrak Zuri, Jauna**. Apezak liburuari musu egingen dio, honako hau ixilik erranez : Ebanjelioko hitzez, gure bekatuak garbi bitez.

135. Irakurlerik ez balitz, apezak berak proklamatu du irakurgai guzietan eta salmoa oihukatuko, irakurtokian zutik dela. Han bertan jarriko du intsentsua ontzian, intsentsua

erabiltzeko bada, benedikatu eta, erabat konkorturik Garbi itzazu erranen du.

136. Apezak, jarlekuan nahiz irakurtokian edo, hala iduritzen bada, beste leku egokiren batean zutik dela, homilia egingen du ; bukatzean, isilaldia egin dezake.

137. Kredo kantatuko nahiz ozen erranen du apezak herriarekin batean (*ik. 68. zk.*), denak zutik direla. Eta, **Izpiritu Sainduaren egitez**, etab. erraiten, guzietan konkortze nagusia egingen dute ; eta Jaunaren Gizakundearen Adierazpeneko eta Jaunaren Sortzeako bestaburuetan, berriz, belaunikatu egingen dira.

138. Fede-aitormena eginik, apezak, bere jarlekuan zutik eta eskuak bildurik, ohar laburra eginez denen aldeko otoitza egitera gonbidatuko ditu fededunak. Ondotik, kantariak nahiz irakurleak nahiz besteren batek irakurtokitik edo beste leku egokiren batetik, asmoak aurkeztuko dizkio herriari eta herriak, bere aldetik, eskatuz erantzunen du. Azkenean apezak, eskuak zabalik, otoitza eginez bururatuko ditu galdeak.

Eukaristiaren liturgia

139. Denen aldeko otoitza bukatutik, guzietan jarriko dira eta oparigaien aurkezpeneko kantua hasiko da (*ik. 74. zk.*).

Akolitoak nahiz beste zerbitzari laikoren batek sagara-oihala, garbi-zapitxoa, kaliza, estalkitxoa eta Meza Liburua ezarriko ditu aldare gainean.

140. Fededunek Eukaristiaren ospakizunean esku hartzen dutela adierazteko, ondo legoke beharrezko diren ogia eta arnoa, edo eliz elkartearen nahiz behartsuen premietarako emaitzak, berek aurkeztea.

Fededunen emaitza hauek apezak hartuko ditu, akolitoak edo beste laguntzailearen batek laguntzen diola. Eukaristiarako ogi-arnoak apez meza-emaileari eramanen dizkiote eta honek aldarean jarriko ditu ; gainerako emaitzak, aldiz, beste leku egokiren batean utziko dituzte (*ik. 73. zk.*).

141. Aldarean apezak patena ogiarekin hartuko du eta, bi eskuekin aldare gainean pixka bat

altxaturik, **Benedikatua Zu, Jauna** otoitza erranen du ixilik. Gero sagara-oihalaren gainean utziko du patena ogiarekin.

142. Ondotik, aldarearen hegal batera joanda, arnoa eta ur pittin bat botako du kalizara, **Gizatasunean gurekin** otoitza erranen du ixilik, laguntzaileak ur-arnoen ontziak emaiten dizkion bitartean. Aldare erdira etorririk, bi eskuekin kaliza hartuko du eta, pixka bat altxaturik, **Benedikatua Zu, Jauna** otoitza erranen du ixilik. Ondotik, kaliza sagara-oihalaren gainean utziko du eta, behar bada, kaliza-estalkitxoaz estaliko.

Eskaintzakoan kanturik ez bada edo organoa jotzen ez badute, apezak, ogi-arnoak aurkeztean, ahots garbiz eta ozenez erran ditzake benedikazio-formulak, eta herriak erantzunen du : **Benedikatua Zu, Jauna, orain eta beti.**

143. Kaliza aldare gainean utzirik, apezak, erabat konkorturik, **Onar gaitzazu, Jauna** erranen du ixilik.

144. Ondotik, intsentsua erabiltzekoa bada, apezak ontzian jarri eta benedikatu eginen du, ezer erran gabe, eta oparigaiak, gurutzeta eta aldarea intsentsatuko ditu. Zerbitzariak, aldarearen hegalean zutik, apezka intsentsatuko du eta gero herria.

145. **Onar gaitzazu, Jauna** otoitza errandakoan, edo lurrindu ondoan, apezak, aldarearen hegalean zutik, eskuak garbituko ditu, **Garbi nezazu, Jauna** otoitza ixilik erranez, laguntzaileak ura emaiten dion bitartean.

146. Aldarearen erdira etorririk eta herriari begira, besoak zabalduz eta bilduz, otoitza egitera gonbidatuko du herria, honela : **Haurrideak, egin dezagun otoitza.** Herriak, zutiturik, erantzun eginen dio erranez : **Jainkoa goresteko.** ondotik apezak, besoak zabalik, oparigaien gaineko otoitza erranen du eta, azkenean, herriak **Amen** erantzunen.

147. Orduan, apezak Eukaristi Otoitza hasiko du. Errubriken arabera (*ik. 365. zk.*), Erromako Meza Liburuan datozen Eukaristi Otoitzetako bat edo Alki Apostolikoak ontzat emandakoren bat hautatuko du. Eukaristi Otoitzaren izaerak berak eskatzen du apezak –ordenatua delako– erraitea Otoitza eta ez beste nehork. Herriak,

berriz, bat eginen du apezarekin sinesmenez eta ixilik, eta Eukaristi Otoitzean zehar ezarriak dauden uneetan esku hartuz : Prefazio aitzineko elkarrizketan, **Saindu, Saindua** erranez, sagara ondoko gorapenean eta azken doxologiaren ondoko **Amen** edo Apezpikuen Biltzarrak, Alki Sainduaren oniritziarekin, ontzat emandako beste gorapen batzuk oihukatuz.

Oso komenigarri da musika duten Eukaristi Otoitzaren zatiak kantatzea apezak.

148. Eukaristi Otoitza hasirik, apezak, besoak zabalduz, **Jauna zuekin** kantatuko nahiz erranen du, eta herriak erantzunen : **Eta zure Izpituarekin.** Segidan **Gora bihotzak** erranez, eskuak altxatuko ditu, eta herriak erantzunen : **Jaunagan dauzkagu.** Gero, besoak zabalik, **Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari** erranen du, eta herriak erantzunen : **Egoki da eta zuzen.** Ondotik apezak, besoak zabalik, prefazioa erranen du ; bukatutakoan, eskuak bildurik, han diren guziekin batera, **Saindu, saindua** kantatuko du edo ozenki erranen (*ik. 79. b zk.*).

149. Apezak Eukaristi Otoitza erraiten jarraituko du, otoitza horietako bakoitzean datozen errubriken arabera.

Meza-emailea Apezpikua baldin bada, **zure zerbitzari I. gure Aita Sainduarekin** hitzen ondotik, **nirekin, zure zerbitzari ezdeus honekin** erantsiko du, edo **I. gure Aita Saindua** hitzen ondotik, **ni, zure zerbitzari ezdeus hau** erantsiko. Apezpikuak Eukaristia bere diozesatik kanpo ospatzen baldin badu, **zure zerbitzari I. gure Aita Sainduarekin** hitzen ondotik, **I.ko dioses honetako Apezpikua den I. nere anaiarekin, nirekin, zure zerbitzari ezdeus honekin** erantsiko du, edo **I. gure Aita Saindua** hitzen ondotik, **I.ko dioses honetako Apezpikua den I. nere anaia, ni, zure zerbitzari ezdeus hau** erantsiko.

Diozesako Apezpikua edo zuzenbidez haren parekoa dena, izendatu behar da honela : **zure zerbitzari I. gure Aita Sainduarekin eta I. gure Artzainarekin (edo Bikario, Prelatu, Prefektu, Abadearekin).**

Eukaristi Otoitzean, Apezpiku Koadjutoreak eta Laguntzaileak ere aipa daitezke ; ez, ordea, bertan izan daitezkeen gainerako Apezpikuak. Aipatzekoak asko

balira, denak batean aipatuko dira, honela : **I. gure Artzainarekin eta beraren Apezpiku Laguntzaileekin.**

Eukaristi Otoitz bakoitzean, aipamen hauek gramatika-arauetara egokitu beharra dago.

150. Sagara baino zerbait lehentxeago, ondo iduritzen bada, laguntzaileak txilina joz ohartaraziko ditu fededunak. Leku bakoitzeko ohituraren arabera, apezak ostia eta kaliza herriari erakustean ere jo daiteke txilina.

Intsentsua erabiltzekoa bada, ostia eta kaliza herriari erakustean, lurrindu egingen ditu laguntzaileak.

151. Sagara ondotik, apezak **Hau da sinestearen misterioa** erranen du eta herriak gorapena egingen, aginduak dauden formuletakoa bat hautatuz.

Eukaristi Otoitzaren bukaeran, patena ostiarekin eta kaliza hartu eta, biak altxaturik, apezak bakarrik **Hunen bitartez** doxologia erranen du. Azkenean, herriak **Amen** oihukatuko du. Ondotik, sagara-oihalaren gainean jarriko ditu apezak patena eta kaliza.

152. Eukaristi Otoitza bururaturik, apezak, eskuak bilduta, Jaunaren Otoitzaren aitzineko oharpena egingen du eta, gero, herriarekin batera ozenki erranen otoitz hori, besoak zabalik.

153. Jaunaren Otoitza bukatu ondoan,, apezak, besoak zabalik, **Atera gaitzazu, Jauna** enbolismoa erranen du, berak bakarrik ; eta azkenean herriak **Zurea duzu erregetza** erantzunen.

154. Gero, apezak, besoak zabalik, **Jesu Kristo gure Jauna, Zuk errana da Apostoluei** otoitza erranen du ahots garbiz eta, amaitutakoan, besoak zabalduz eta bilduz, bakea iragarriko du herriari begira, **Jaunaren bakea beti zuekin** erranez. Herriak **Eta zure izpirituarekin** erantzunen du. Ondotik, egoki iduritzen bada, apezak **Emazue bakea elkarri** erantsiko du.

Apezak eman diezaike bakea laguntzaileei, betiere presbiterioan geldituz, ospakizunean nahasketa ez sortzeko. Joka dezala horrela baldin, arrazoin zuzen batengatik, fededun gutxi batzuei bakea eman nahi badie ere. Eta denek, Apezpikuen Biltzarrak ezarritakoaren arabera, bakea, elkartasuna eta maitasuna adieraziko diote elkarri. Bakea eman bitartean, hau erran

daiteke : **Jaunaren bakea beti zuekin**, eta erantzun : **Eta zure izpirituarekin.**

155. Gero, apezak ogi sagaratua hartu, patena gainean zatitu eta zatitxo bat kalizara botako du, **Kaliza huntan** ixilik erranez. Bitartean, abestaldeak eta herriak **Jainkoaren Bildotsa** kantatuko dute nahiz erranen (*ik. 83. zk.*).

156. Orduan, apezak, jaunartzeko prestatuz, **Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea** nahiz **Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea** otoitza erranen du ixilik eta eskuak bildurik.

157. Otoitz hau bukatutakoan, apeza belaunikatu egingen da, Meza hartan sagaraturiko ostia hartuko du eta, patena gainean nahiz kaliza gainean pittin bat altxaturik, herriari erakutsiz erranen du : **Hona hemen Jainkoaren Bildotsa**, eta, herriarekin batera, **Jauna, ni ez naiz inor** erranen du.

158. Gero, aldarera begira zutik, apezak ixilik **Kristoren Gorputzak zaindu nazala betiko bizirako** erran eta **Kristoren Gorputza hartuko du errespetuz.** Jarraian, kaliza hartu, **Kristoren Odolak zaindu nazala betiko bizirako** erran eta **Kristoren Odola hartuko du errespetuz.**

159. Apezak Sakramendua hartzen duen artean, jaunartze-kantua hasiko da (*ik. 86. zk.*).

160. Gero, patena nahiz kopoia hartu eta jaunartzeko daudenengana joanen da, hauek eskuarki prozesioan hurbilduko direlarik.

Ez da zilegi ogi sagaratua nahiz kaliza sakratua fededunek beren eskuz hartzea edo eskuz esku elkarri banatzea. Belaunikaturik nahiz zutik hartuko dute fededunek gure Jauna, Apezpikuen Biltzarrak erabakiaren arabera. Zutik jaunartzen dutenean, Sakramendua hartu aitzinetik zor zaion erreberentzia egitea gomendatzen da, erabaki horien arabera.

161. Jaunartzea ogiaren itxurapean baizik egiten ez bada, apezak ogi sagaratua zertxobait altxaturik, bakoitzari erakutsi eta erranen dio : **Kristoren Gorputza.** Jaunartzeko dagoenak **Amen** erantzunen du eta Sakramendua hartuko ahoan nahiz, baimendua dagoen tokietan, eskuan, norberak nahi bezala. Jaunartzen duenak, ostia sakratua hartu bezain laster, osorik jango du.

Jaunartzea ogi-arnoen itxurapean egiten baldin bada, bete bedi bere lekuan adieraziko den erritua (*ik.* 284-287. *zk.*).

162. Jauna banatzen lagun diezaiketete apezari ospakizunean leudekeen beste apez batzuek. Beste apezik ez bada eta jaunartzekoen kopurua oso handia baldin bada, dei egin diezaieke apezak berari laguntzera ezohiko ministroei, erran nahi baita, akolito prestatuei edo ohikune honetarako izendatuak dauden beste fededun batzuei.⁹⁷ Beharrezko denean, apezak izenda ditzake «ad actum» hortarako gai diren fededunak.⁹⁸

Laguntzaile hauek ez bitez igo aldarera apezak Jauna hartu baino lehen eta fededunei banatu beharreko Eukaristia txit sailduko ogi-arnoak dauden ontzia har bezate beti apezaren eskutik.

163. Gure Jauna banatzea bukatutakoan, gelditu ahal izan den arno sagaratu erabat edan du aldarean apezak ; sobera diren ostia sagaratuak, berriz, aldarean jan ditzake edo Eukaristia betetzeko dagoen tokira eramanez.

Apezak, aldarera itzulirik, apurrak bilduko ditu, horrelakorik baledi ; gero, aldarearen hegalean nahiz bazterreko mahaitxoan, patena edo kopoia kalizaren gainean garbituko du, eta kaliza ere bai **Ahoz hartu dugun hau** ixilik erranez, eta garbi-zapiak lehortuko du. Ontziak aldarean garbitzen badira, laguntzaileak bazterreko mahaitxora eramanez ditu. Baina zilegi da, bereziki garbitu behar diren ontziak asko izanez geroz, aldarean nahiz bazterreko mahaitxoan eta sagara-oihal baten gainean uztea, behar bezala estalirik, Meza ondolik, herria agurtutakoan, garbitzeko.

164. Gero bere jarlekura itzul daiteke apeza. Isilaldi sakratua egin daiteke nahiz gorespenkantu bat edo salmoren bat kantatu (*ik.* 88. *zk.*).

165. Ondotik, jarlekuan nahiz aldare aitzinean zutik, apezak, herriari begira eta eskuak bildurik, erranen du : **Egin dezagun otoitz**, eta, besoak zabalik, jaunartze ondoko otoitza erranen du ; aitzinetik isilaldi labur bat egin daiteke, jaunartze ondoan, egin ez bada. Otoitza bukatzean, herriak **Amen** erantzunen du.

Bukaerako ohikunea

166. Jaunartze ondoko otoitza bukatutakoan, egokiak diren oharpenak eginen dira, egin behar badira, labur-labur.

167. Gero, apezak, besoak zabalduz, herria agurtuko du **Jauna zuekin** erranez, eta herriak **Eta zure izpirituarekin** erantzunen. Eta apezak, eskuak berriz bildurik, berehala ezkerreko eskua bular gainean jarriz eta eskuineko eskua jaso, erranen du : **Benedika zaitzate** **Jaungoiko ahalguzidunak** eta, herriaren gainean gurutzaren seinalea eginez, jarraituko du : **Aitak, eta Semeak, eta Izpiritu Sainduak** ; denek **Amen** erantzunen dute.

Egun eta egokiera batzuetan, benedikapen hau, liturgi arauari jarraikiz, herriaren gaineko otoitzaz edo benedizione nagusiaz aberasten eta adierazten da.

Apezpikuak berari doakion formulaz benedikatu du herria, gurutzaren seinalea hiru aldiz eginez herriaren gainean.⁹⁹

168. Benedikapenaren ondolik, berehala, apezak, eskuak bildurik, **Zoazte Jaunaren bakean** erranen du, eta denek **Eskerrak Jainkoari** erantzunen dute.

169. Orduan, apezak ohi bezala musu eginen dio aldareari eta, laguntzaileekin batera konkortze nagusia egin ondoan,, joan eginen da horiekin batera.

170. Meza ondolik beste liturgi elizkizunik balitz, bukaerako ohikunea –hau da, agurra, benedikapena eta azken agurra– ez dira eginen.

B) MEZA DIAKREAREKIN

171. Eukaristi ospakizunean diakrerik baldin bada, jantzi sakratuak soinean dituela, bete beza doakion zerbitzua. Hona hemen :

a) apezari lagunduko dio eta haren ondoan egonen da ;

b) aldarean, kalizari eta Meza Liburuari dagozkionetan lagunduko dio ;

c) Ebanjelioa proklamatu du eta, meza-emaile den apezak galdetzen badio, egin dezake homilia (*ik.* 66. *zk.*) ;

d) fededun herria gidatuko du oharpen egokiak eginez eta denen aldeko otoitza egiteko galdeak adieraziko ditu ;

e) apez meza-emailea Jauna emaiten lagunduko du, eta ontzi sakratuak garbituko ditu eta antolatuko ;

f) gainerako laguntzaileen eginkizunak beteko ditu, hala behar bada, laguntzailerik ez denean.

Hastapenako ohikuneak

172. Diakrea, Ebanjelio Liburua daramanean, apezaren aitzinean joanen da aldarera bidean. Bestela, apezaren ondoan.

173. Aldarera hurbiltzean, Ebanjelio Liburua badarama, erreberentzia egin gabe, aldarera igoko da. Gero, Ebanjelio Liburua aldare gainean jarriarik, apezarekin batean musu eginen dio aldareari.

Ebanjelio Liburua ez badarama, konkortze nagusia eginen dio aldareari apezarekin batean, ohi bezala, eta harekin batera musu eginez ohoratuko du.

Azkenik, intsentsua erabiltzekoa bada, apeza lagunduko du intsentsua jartzen eta gurutzea eta aldarea intsentsatzen.

174. Aldarea intsentsaturik, jarlekura joanen da apezarekin batean eta hunen ondoan egonen, behar denean laguntzeko.

Hitzaren liturgia

175. Alleluia edo beste kantu bat kantatu bitartean, intsentsua erabiltzekoa bada, intsentsua ontzian jartzen lagunduko du apeza ; gero, haren aitzinean osoki konkorturik, benedikapena eskatuko dio, **Benedika nezazu, Jauna** ahots apalez erranez. Apezak benedikapena emanen dio, erranez : **Izan bedi Jauna zure bihotzean.** Diakreak, gurutzearen seinalea eginez, **Amen** erantzunen du. Ondotik, aldareari erreberentzia eginik, haren gainean jarria dagoen Ebanjelio Liburua hartu eta irakurtokira joanen da, liburua zertxobait altxaturik daramala, eta intsentsu-ontzia kea dariola daramala eta laguntzaileak kandela piztuekin aitzinetik dituela. Han herria

agurtuko du, eskuak bildurik, hau erranez : **Jauna zuekin** ; gero, **Jesu Kristoren Ebanjelioa** erraiten, liburuan hatz lodiaz gurutzearen seinalea eginen du eta ondotik baita bere kopetan, ahoan eta bularrean ere ; liburua intsentsatuko du eta Ebanjelioa proklamatu. Bukatutakoan, **Jaunak errana** oihukatuko du, eta denek erantzunen dute : **Eskerrak Zuri, Jauna.** Gero, errespeturekin musu eginen dio liburuari, boz apalez erranez : **Ebanjelioko hitzez**, eta apezaren ondora itzuliko da.

Diakreak, Apezpikuaren laguntzen ari bada, hari eramanen dio liburua musu egin diezaion edo diakreak berak eginen dio musu, ixilik erranez : **Ebanjelioko hitzez.** Ospakizunik nagusienetan, egoki iduritzen bada, Ebanjelio Liburuaz benedikatu du Apezpikuak herria.

Azkenik, bazterreko mahaitxora edo beste leku egoki eta duinen batera eraman daiteke Ebanjelio Liburua.

176. Beste irakurle egokirik ez bada, irakur bitza diakreak gainerako irakurgaiak ere.

177. Apezak sartzea egin ondoan,, diakreak berak adieraziko ditu Jainkoaren herriaren otoitzerako galdeak, normalean irakurtokitik.

Eukaristiaren liturgia

178. Jainkoaren herriaren otoitza bururaturik, apeza jarlekuan jarriarik dagoela, diakreak aldarea prestatuko du, akolitoak lagundurik ; berari dagokio, dudarik gabe, ontzi sakratuez arduratzea. Herriaren emaitzak hartzerakoan ere, apeza lagunduko du. Gero, patena emanen dio apezari, sagaratzekoa den ogiarekin ; arnoa botako du kalizara eta ur xorta bat, **Gizatasunean gurekin** ixilik erranez, eta gero apezari emanen dio. Kaliza prestatze hau bazterreko mahaitxoan ere egin dezake. Intsentsua erabiltzekoa bada, lagunduko du apeza oparigaiak, gurutzea eta aldarea intsentsatzen eta gero berak nahiz akolitoak apeza eta herria intsentsatuko ditu.

179. Eukaristi Otoitza erran bitartean, apezaren ondoan egonen da diakrea zutik, apeza baino gibeltxago, kalizari eta Meza Liburuari dagozkienetan laguntzeko.

Epiklesia hasten denetik kalizaren erakustea egin arte diakrea, normalean, belauniko egonen da. Diakre bat baino gehiago baldin bada, sagarakoan horietako batek jar dezake intsentsua ontzian eta intsentsua eman ostiaren eta kalizaren erakustea egitean.

180. Eukaristi Otoitzaren bukaerako doxologian, apezaren ondoan zutik, kaliza altxaturik atxikiko du, apezak patena ogi sagaratuarekin gora altxatua daukan bitartean, herriak **Amen** oihukatu arte.

181. Apezak bake-otoitza egin, **Jaunaren bakea beti zuekin** erran eta herriak **Eta zure izpirituarekin** erantzun eta, diakreak, egoki iduritzen bada, bakerako deia eginen du, eskuak bildurik eta herriari begira, **Emaiozue bakea elkarri** erranez. Berari apezak emanen dio bakea eta berak hurbilean dituen laguntzaileei eman diezaieke.

182. Apezak jaunartuta eta, diakreak ogi-arnoen itxurapean hartuko du Jauna apezak emanik eta gero herriari Jauna emaiten lagunduko du apeza. Gure Jauna ogi-arnoen itxurapean emaitetia baldin bada, diakreak jaunartzera doazenei kaliza emanen die eta, Jauna emaitetia bukatu, gelditu den Kristoren Odola berehala hartuko du errespetuekin aldarean, hala behar bada gainerako diakreak eta apezak lagundurik.

183. Gure Jauna banatzea bukatu, diakrea apezarekin batera aldarera etorriko da, porrokkak bilduko ditu, horrelakorik baledi, eta gero kaliza eta gainerako ontzi sakratuak bazterreko mahaitxora eramanez ditu eta han garbitu eta beren leketan jarriko, ohi den bezala ; apeza, bitartean, jarlekura joanen da. Halere, utz ditzake garbitzekoak diren ontziak egoki estalirik bazterreko mahaitxoan, sagara-oihalaren gainean, gero, Meza bukatu bezain laster, herria agurtu eta, garbitzeko.

Bukaerako ohikunea

184. Jaunartze ondotik oititza erran eta, diakreak, behar izanez geroz, oharpenak eginen dizkio herriari labur-labur, apezak berak egitea nahiago ez bada bederen.

185. Herriaren gaineko oititza egin edo benedikapen nagusiko formula erabili nahi bada,

diakreak hau erranen du : **Apal burua Jaunaren benedikapena hartzeko.** Apezak benedikapena eman eta, azken agurra eginen dio diakreak herriari, eskuak bildurik eta herriari begira **Zoazte Jaunaren bakean** erranez.

186. Gero, apezarekin batean, aldareari musu eginen dio eta, konkortze nagusia egin eta, etorri den moduan itzuliko da.

C) AKOLITOAREN EGINKIZUNAK

187. Akolitoak bete ditzakeen eginkizunak molde askotakoak dira ; gainerat, horietako zenbait batera bete beharra gerta daiteke. Horrengatik, zenbait akolitoaren artean banatzea komeni da, egoki den moduan ; akolito bat besterik ez badago, egin ditzala berak garrantzizkoenak, eta gainerakoak bana ditzatela zenbait laguntzailearen artean.

Hastapeneko ohikuneak

188. Aldarerako bidean gurutzea eraman dezake, kandela piztuak eramanez dituzten bi laguntzailearen erdian. Aldarera heltzean, aldarearen ondoan ezarriko du, aldareko gurutzea izan dadin ; bestela, leku egokian utziko du. Gero presbiterioan doakion lekua hartuko du.

189. Ospakizun osoan zehar behar den guzietan, apezarengana eta diakrearengana hurbiltzea dagokio akolitoari, liburua emaitetia eta gainerako beharretan horiei laguntzeko. Horrengatik, ahal den heinean, jarlekuan nahiz aldarean bere zerbitzua ongi beteko duen lekuan egotea komeni da.

Eukaristiaren liturgia

190. Diakrerik ez bada, Jainkoaren herriaren oititza bukatu, apeza jarlekuan dagoela, akolitoak aldare gainean sagara-oihala, garbitzua, kaliza, estalkitxo eta Meza Liburua jarriko ditu. Gero, herriak eramanez emaitzak hartzen lagundu du apeza, behar izanez geroz, eta, bere garaian, arnoa eta ura aldarera eramanez eta

apezari emanen dizkio. Intsentsua erabiltzekoa bada, intsentsu-ontzia apezari ekarriko dio eta oparigaiak, gurutzea eta aldarea intsentsatzen lagunduko. Gero, apeza eta herria intsentsatuko ditu.

191. Ohikunak bere gain dituen akolitoak lagun dezake apeza, ezohiko zerbitzari gisa, herriari Jauna emaiten.¹⁰⁰ Gure Jauna ogi-arno en itxurapean emaitzekoa bada, jaunartzera doazenei kaliza emanen die ; eta, ogi sagaratu arno sagaratu bustirik emaiten bada, kaliza atxikiko du.

192. Molde berean, ohikunak bere gain dituen akolitoak, gure Jauna banatzea bukatzean, ontzi sakratuak garbitzen eta beren lekuetan jartzen lagunduko dio apezari nahiz diakreari. Diakrerik ez bada, ohikunak bere gain dituen akolitoak bazterreko mahaitxora eramaten ditu ontzi sakratuak eta han, ohi den bezala, garbitu, zuku eta beren lekuetan jarriko ditu.

193. Mezaren ospakizuna bukatu, akolitoa eta gainerako laguntzaileak, diakrearekin eta apezarekin batean, sakristiara itzuliko dira prozesioan, etorri diren molde eta ordena berean.

D) IRAKURLEAREN EGINKIZUNAK

Hastapeneko ohikunak

194. Aldararako prozesioan, diakrerik ez bada, irakurleak, onartua dagoen jantzia soinean duela, eraman dezake Ebanjelio Liburua zertxobait altxaturik. Horrelakoetan, apezaren aitzinean joan da ; bestenaz, gainerako laguntzaileekin.

195. Aldarera heltzean, konkortze nagusia eginen du besteekin batera. Ebanjelio Liburua baldin badarama, aldarera joan eta aldare gainean utziko du. Gero, presbiterioan geldituko da bere lekuan, gainerako laguntzaileekin batera.

Hitzaren liturgia

196. Ebanjelio aitzineko irakurgaiak proklamatuko ditu, irakurtokitik. Salmolaririk ez denean, lehen irakurgaiaren ondotik, berak erran dezake erantzun-salmoa.

197. Diakrerik ez bada, Jainkoaren herriaren otoitza egitekoan, apezak sartzea egin ondoan, irakurleak erran ditzake galdeak irakurtokitik.

198. Sartzea eta jaunartze-kanturik ez bada eta Meza Liburuan datozen antifonak fededunek erraiten ez badituzte, irakurleak erran ditzake beren aldi (ik. 48 eta 87. zk.).

II. ELKARMEZA

199. Elkarmezak egoki adierazten du apezgoaren, opariaren eta Jainkoaren herri osoaren batasuna ; ohikunak berak eskatzen du Apezpikua eta apezak ordenatzean, Abadea benedikatzean eta Krisma Mezan.

Fededunen probetxuan dela eta, beste zerbait egin behar ez bada edo komenigarri ez bada, elkarmeza gomendatzen da :

- a) Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezan ;
- b) Kontzilioetan, Apezpikuen Biltzarretan eta Sinodoetan emaiten diren Mezetan ;
- c) Komentu-mezan eta elizetako eta otoitz-lekuetako Meza nagusian ;
- d) apez sekularrek edo erlijiosoek egiten dituzten edozein moldetako biltzarretan emaiten diren Mezetan.¹⁰¹

Apez bakoitzak badu eskubide bakarka Meza emaiteko, baina ez eliza edo otoitz-leku berean elkarmeza ospatzen denean. Baina Jaunaren Afariko Ortzegun Sainduan eta Bazko Gaubeilan ez dago Meza bakarka emaiterik.

200. Bidaian dabiltzan apezak izan bitez gogoz onartuak Eukaristia elkarrekin ospatzeko, betiere apez direla jakinik.

201. Apez-talde handia dagoen lekuan, eman daiteke elkarmeza egun berean behin baino gehiagotan, baldin beharrak edo abantail pastoralak hala eskatzen badu ; baina hori beste ordu batean edo beste lekuren batean egin behar da.¹⁰²

202. Apezpikuari dagokio, eliz legearen arabera, elkarmezari buruzko arau zehatzak bere diozesako eliza eta otoitz-leku guzietan ezartzea.

203. Bereziki aintzat hartzekoa da dioses bateko apezek beren Apezpikuarekin batean elkarmeza

emaitea, lekuko Elizaren biltzarra denean (“*Missa stationalis*” deituan, alegia), bereziki liturgi urteko bestaburu nagusienetan, diozesako Apezpiku berria nahiz Apezpiku Koadjutorea nahiz Laguntzailea ordenatzeko Mezan, Krisma Mezan, Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezan, lekuko Elizaren Saindu Fundatzailearen edo diozesako Zaindariaren ospakizunetan, Apezpikuaren urtemugetan eta, azkenik, Sinodoa eta Apezpiku-ikustaldia denean.

Arrazoin beragatik, gomendagarria da elkarmeza, apezak beren Apezpikuarekin elkartzen diren guzietan, gogoetaldiak direnean edo beste biltzar bat dutenean. Horrelako kasuetan, Apezgoaren eta Elizaren batasuna ageriago agertzen da ; hori da, egiazki, elkarmezaren berezitasuna.¹⁰³

204. Arrazoin jakin batzuk izanik, hala nola ohikunea edo besta bati erranahi handiagoa emaiteko, eman daiteke egun berean bakarmeza edo elkarmeza behin baino gehiagotan, kasu hauetan :

a) Ortzegun Sainduz Krisma Meza eman duen apezak, eman dezake arratsaldean berriz Jaunaren Afariko Meza ;

b) Bazko Gaubeilan bakarka edo elkarrekin Meza eman duenak, eman dezake Meza bigarrenez Bazko-egunean bakarka nahiz elkarrekin ;

c) Jaunaren sortegunean apez guziek hiruna Meza eman dezakete bakarka edo elkarrekin, Meza bakoitza doakion tenorean emanez geroz ;

d) Hil Fededun guzien oroitzapen-egunean apez guziek hiruna Meza eman dezakete bakarka nahiz elkarrekin, ospakizun horiek denbora desberdinetan egiten badira eta bigarren eta hirugarren Mezaren aplikazioari buruz ezarritakoak betetzen direlarik ;¹⁰⁴

e) Apezpikuarekin edo haren ordekoarekin, Sinodo batean nahiz Apezpiku-ikustaldikoan nahiz apezaren biltzarren batean elkarmeza eman duenak, eman dezake beste Meza bat fededunen onerako. Honek berdin balio du, besteak beste, erlijiosoen biltzarretarako.

205. Elkarmeza, edozein moldetan, normalki bete beharrekoak diren arauak kontuan izanik

prestatuko da (*ik. 112-198. zk.*), baina geroago erranen direnak betez nahiz aldatuz.

206. Meza hasi ondoan, ez bedi inor elkarmeza emaitera etorri eta ez bedi inor onartu ere inoiz.

207. Presbiterioan presta bitez :

a) alkiak eta liburuxkak elkarmeza emanen duten apezentzat ;

b) bazterreko mahaitxoan, behar bezain handi izanen den kaliza edo behar bezainbat kaliza.

208. Diakrerik ez bada, elkarmeza-emaileetako batzuek egingen dituzte haren eginkizunak.

Beste zerbitzaririk ere ez bada, egokiak diren beste fededunek egingen dituzte hari dagozkion eginkizunak ; bestela, berriz, beste elkarmeza-emaileek egingen dituzte.

209. Bakarka Meza emaitekoan erabili ohi diren eliz jantziak jantziko dituzte elkarmeza-emaileek, sakristian edo beste leku egokiren batean. Baina arrazoin zuzen bat, hala nola apez-talde handia edo aski jantzirik izanen ez balitz, meza-emaile nagusiak ez bada, gainerakoek kasuila utz dezakete eta estola bakarrik jantzi albaren gainean.

Hastapeneko ohikuneak

210. Dena prest dagoenean, prozesioa hasiko da ohi bezala elizan zehar aldareari buruz. Apez elkarmeza-emaileak meza-emaile nagusiaren aitzinean joanen dira.

211. Aldarera heltzean, elkarmeza-emaileek eta meza-emaile nagusiak, konkortze nagusia egin eta, aldareari errespeturekin musu egingen diote eta doakion jarlekura joanen da bakoitza. Meza-emaile nagusiak, egoki iduritzen bada, gurutzea eta aldarea intsentsatuko ditu eta gero jarlekura joanen da.

Hitzaren liturgia

212. Hitzaren liturgiakoan, meza-emaile bakoitza bere lekuan egonen da, zutik edo jarrita, meza-emaile nagusiak egiten duenaren arabera.

Alleluia hastean, zutik jarriko dira denak, ez bada Apezpikua ; honek intsentsua jarriko

du, ezer erran gabe, eta benedikapena emanen dio Ebanjelioa proklamatu duen diakreari edo, diakrerik ez bada, elkarmeza-emaileari. Elkarmezan buru dena apeza bada, ordea, diakrerik ez delako, Ebanjelioa proklamatu duen elkarmeza-emaileak, ez dio meza-emaile nagusiari benedikapena eskatuko, ez eta harenganik hartuko ere.

213 . Homilia, normalki, meza-emaile nagusiak egingen du edo elkarmeza-emaileetako batek.

Eukaristiaren liturgia

214. Oparigaien prestaera (*ik. 139-146*) meza-emaile nagusiak egingen du ; bitartean, beste elkarmeza-emaileak beren lekuetan egonen dira.

215. Meza-emaile nagusiak oparigaien gaineko otoitza bukatuta eta, elkarmeza-emaile guziak aldarera hurbilduko dira eta zutik emanen dira aldare inguruan, baina ohikuneak egitea eta fededunei ikustea galarazi gabe, eta diakreari ere, bere eginkizuna betetzeko aldarera hurbildu behar duenean, galarazi gabe.

diakrea aldare ondoan egonen da, behar denean kalizarekin edo Meza Liburuarekin doakion eginkizuna betetzeko. Baina, ahal dela, zertxobait giblean atzeratua egonen da, meza-emaile nagusiaren inguruan egonen diren apez elkarmeza-emaileen giblean.

Nola erran Eukaristi Otoitza

216. Prefazioa meza-emaile nagusiak bakarrik kantatu edo erranen du ; **Saindu, saindua** aldiz, elkarmeza-emaile guziek kantatuko edo erranen dute herriarekin eta koroarekin batera.

217. **Saindu, saindua** bukatutakoan, elkarmeza-emaileek Eukaristi Otoitza erraiten jarraituko dute gero aipatuko den moldean, baina keinuak meza-emaile nagusiak bakarrik egingen ditu, kontrakorik erraiten ez bada.

218. Elkarmeza-emaile guziei dagozkien testuak, bereziki denek erran beharrekoak diren sagarako hitzak, guziek batean erranen dituzte, baina ahots apalez, meza-emaile nagusiaren ahotsa garbi entzun dadin. Horrela, herriak hobeki entzunen du erraiten dena.

I. Eukaristi Otoitza edo Erromako Kanona

219. I. Eukaristi Otoitzean edo Erromako Kanonean **Zuri, beraz** meza-emaile nagusiak bakarrik erranen du, besoak zabalik.

220. **Izan gogoan, Jauna, guk gogoan ditugun eta Denek Eliza osoarekin bat eginik** apez elkarmeza-emaileetako batek edo bestek erraitea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozenki.

221. **Huna hemen, Jauna** meza-emaile nagusiak bakarrik erranen du, besoak zabalik.

222. **Benedika, Jauna, eskaintza hau** otoitzetik **Apalik eskatzen dauzugu** bitartean, keinuak meza-emaile nagusiak egingen ditu, baina hitzak elkarmeza-emaile guziek erranen dituzte, honela :

a) **Benedika, Jauna, eskaintza hau**, eskuak oparigaien gainerat luzatuz ;

b) **Berak, hil bezperan eta Molde berean, Afal ondoan** eskuak bilduta ;

c) Jaunaren hitzak, egoki iduritzen bada, eskuineko eskua ogiari eta kalizari buruz luzatuz ; meza-emaile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begiratzuz eta gero konkortze nagusia eginez ;

d) **Horrengatik, Jauna, guk eta Har itzazu begi on eta argiz** besoak zabalik ;

e) **Apalki eskatzen dauzugu** konkorturik eta eskuak bildurik **zure Semearen Gorputz eta Odol sainduak hartzen ditugun guziak** erran arte ; berehala, zutitu eta, aitaren eginez, **zeruko ontasunez eta graziaz bete gaitezen** erranen dute.

223. Hilen aldeko **Izan gogoan, Jauna eta Guri ere, zure bihotz onean** elkarmeza-emaileetako batek nahiz bestek erraitea komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozenki.

224. **Guri ere, zure bihotz onean** erraitean, elkarmeza-emaile guziek bularra joko dute.

225. **Hunen bitartez, Jauna** meza-emaile nagusiak erranen du.

II. Eukaristi Otoitza

226. II. Eukaristi Otoitzean, **Saindu zira, bai, Jauna** meza-emaile nagusiak bakarrik erranen du, besoak zabalik.

227. Egizkizu, bada, **saindu** otoitzetik **Eta apalki eskatzen dauzugu** bitartekoak elkarmeza-emaile guziek batean erranen dituzte, honela :

a) **Egizkizu, bada, saindu** eskuak oparigaien gainerat luzatuz ;

b) **Berak, saldu zutenean** eta **Molde berean, afalondoan** eskuak bilduta ;

c) Jaunaren hitzak, egoki iduritzen bada, eskuineko eskua ogia eta kalizari buruz luzatuz ; meza-emaile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begiratzuz eta gero konkortze nagusia eginez ;

d) **Horrengatik, Jauna** baita **Eta apalki eskatzen dizugu** ere besoak zabalik.

228. **Izan gogoan, Jauna, mundu guzian** bizien aldeko galdea eta **molde berean, izan gogoan, Jauna, pizteko esperanza**n hilen aldekoa, elkarmeza-emaileetako batek nahiz bestek erraita komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozenki.

III. Eukaristi Otoitza

229. III. Eukaristi Otoitzean **Saindu zara, bai, Jauna** meza-emaile nagusiak bakarrik erranen du, besoak zabalik.

230. **Apalki, beraz, Jauna** otoitzetik **Begira, Jauna, zure Elizaren eskaintza huni** bitartekoak elkarmeza-emaile guziek batean erranen dituzte, honela :

a) **Apalki, beraz, Jauna** eskuak oparigaien gainerat luzatuz ;

b) **Berak, saldu zuten gau hartan** eta **molde berean, afalondoan** eskuak bilduta ;

c) Jaunaren hitzak, egoki iduritzen bada, eskuineko eskua ogia eta kalizari buruz luzatuz ; meza-emaile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begiratzuz eta gero konkortze nagusia eginez ;

d) **Horrengatik, Jauna, guk** eta **Begira, Jauna, zure Elizaren eskaintza huni** besoak zabalik.

231. Berak egin gaitzala, Gu zurekin baketzen gaituen opari hau eta **Hil gure haurrideak** galdeak elkarmeza-emaileetako batek edo besteak erraita komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozenki.

IV. Eukaristi Otoitza

232. IV. Eukaristi Otoitzean **Bai, gorensten zaitugu** otoitzetik **saindutasunaren betea emaitako** bitartekoak meza-emaile nagusiak bakarrik erranen ditu, besoak zabalik.

233. **Beraz, Jauna** otoitzetik **Ikusi, begi onez, Jauna** bitartekoak elkarmeza-emaile guziek batean erranen dituzte, honela :

a) **Beraz, Jauna** oparigaien gainerat eskuak luzatuz ;

b) **Eta bera goratzeko ordua etorri zitzaizunean** eta **molde berean** eskuak bilduta ;

c) Jaunaren hitzak, egoki iduritzen bada, eskuineko eskua ogia eta kalizari buruz luzatuz ; meza-emaile nagusiak ostia eta kaliza fededunei erakustean, ostiari eta kalizari begiratzuz eta gero konkortze nagusia eginez ;

d) **Horrengatik, Jauna** eta **Ikusi, begi onez, Jauna** besoak zabalik.

234. Orain, Jauna, **izan gogoan, Izan gogoan Kristoren bakean** eta **Zure seme-alaba** galdeak elkarmeza-emaileetako batek edo besteak erraita komeni da, berak bakarrik, besoak zabalik eta ozenki.

235. Alki Apostolikoak onartutako beste Eukaristi Otoitzei dagokienaz, bete bitez horietako bakoitzarentzat ezarriak daudenak.

236. Eukaristi Otoitzeko azken doxologia meza-emaile nagusiak bakarrik nahiz berarekin batera elkarmeza-emaile guziek erran dezakete, baina ez fededunek.

Jaunartze-ohikunea

237. Gero, meza-emaile nagusiak, eskuak bildurik, **Gure Aita** aitzineko oharpena eginen du eta, gero, besoak zabalduz, gainerako elkarmeza-emaile guziekin, hauek ere eskuak zabalduz dituztela, eta herriarekin batera, Jaunaren Otoitza erranen du.

238. Atera gaitzazu, Jauna meza-emaile nagusiak bakarrik erranen du, besoak zabalik. Bukaeran elkarmeza-emaile guziek, herriarekin batera, Zurea duzu erregetza gorapena erranen dute.

239. Diakreak edo, diakrerik ez bada, elkarmeza-emaile batek Emaiozue bakea elkarri oharpena egin eta, guziek elkarri bakea emanen diote. Meza-emaile nagusiaren ondoan daudenek harenganik hartuko dute bakea, diakrearen aitzinetik.

240. Jainkoaren Bildotsa erran bitartean, diakreek edo elkarmeza-emaile batzuek ogi sagaratua zatitzen lagun dezakete meza-emaile nagusia, bai elkarmeza-emaileek bai herriak jaunartzeko.

241. Ostia-zatitxoa kalizara bota ondoan,, meza-emaile nagusiak, berak bakarrik eta ixilik, Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea edo Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea otoitza erranen du.

242. Jaunartze aitzineko otoitza egin ondoan,, meza-emaile nagusia belaunikatu eta baztertuko da pixka bat. Elkarmeza-emaileak, banan-banan, aldare erdira hurbilduko dira eta, belaunikatu ondoan,, Kristoren Gorputza hartuko dute aldaretik errespeturekin eta, eskuineko eskuan daukatela eta ezkerrekoa azpian emanik, beren lekuetara joanen dira. Elkarmeza-emaileak beren lekuetan ere geldi daitezke eta, meza-emaile nagusiak edo beste elkarmeza-emaile batek edo batzuek, patena eskuetan dutela, handik har dezakete Kristoren Gorputza, haien aitzinetik pasatuz, baita patena batak besteari eman ere, azkenekora heldu arte.

243. Gero, meza-emaile nagusiak Meza hartan sagaratutako ogia hartu eta, patenaren edo kalizaren gainean pixka bat altxaturik, herriari erakutsiko dio, erranez : Huna hemen Jainkoaren Bildotsa eta, elkarmeza-emaileekin eta herriarekin batera Jauna, ni ez naiz on erranen du.

244. Ondotik, meza-emaile nagusiak, aldarera begira, ixilik, Kristoren Gorputzak zaindu nezala betiko bizirako erranen du eta Kristoren Gorputza hartuko errespeturekin. Gauza bera

eginen dute elkarmeza-emaileek bakoitzak gure Jauna hartuz. Hauen ondotik, diakreak meza-emaile nagusiagandik hartuko ditu Jaunaren Gorputza eta Odola.

245. Jaunaren Odola kalizatik bertatik zuzenean edanez har daiteke edo ogi sagaratua bertan bustiz nahiz tutulu edo koilaratxo bat erabiliz.

246. Jaunartzea kalizatik bertatik zuzenean edanez egiten bada, ondotik aipatzen diren bi molde hauetakoren batean egin daiteke :

a) Meza-emaile nagusiak, kaliza harturik, Kristoren Odolak zaindu nazala betiko bizirako erranen du ixilik eta arno sagaratu xorta bat edanen kalizatik ; berehala kaliza diakreari edo beste elkarmeza-emaile bati emanen dio. Gero, fededunei emanen die gure Jauna (ik. 160-162. zk.).

Elkarmeza-emaileak banan-banan edo, bi kaliza erabil ahal baledi, binaka, aldarera hurbildu, belaunikatu, arno sagaratua edan, kalizaren bazterra xukatu eta beren jarlekuetara joanen dira.

b) Meza-emaile nagusiak Jaunaren Odola edanen du, ohi denez, aldare erdian.

Elkarmeza-emaileek beren lekuetan har dezakete Jaunaren Odola, diakreak edo elkarmeza-emaile batek bakoitzari eskainitako kalizatik edanez, nahiz hauek batak besteari kaliza eskura emanez. Kaliza garbitzea, edo edan duenak edo edateko emaiten duenak egin dezake. Jaunartu arau, bakoitza bere lekura joanen da.

247. Gelditu den Kristoren Odol guzia diakreak hartuko du errespeturekin aldarean ; behar izanez geroz, beste elkarmeza-emaile batzuek lagun dezakete ; ondotik, bazterreko mahaitxora eramanez du eta han, diakreak berak edo ohikunez prestatua den akolitoak, ohi den bezala, garbitu, zukatu eta bere lekuan jarriko du (ik. 183. zk.).

248. Elkarmeza-emaileen jaunartzea beste molde honetara ere egin daiteke : banan-banan aldaretik Jaunaren Gorputza hartu eta berehala Jaunaren Odola hartzen dutela.

Honela eginez geroz, meza-emaile nagusiak ohi bezala hartuko du Jauna ogi-arno en itxura pean (ik. 158. zk.), baina kalizatik edateko beste

elkarmeza-emaileentzat hautatu den molde bera erabiliz.

Meza-emaile nagusiak Jauna hartuta, kaliza aldarearen alde batean utziko da, beste sagara-oihal baten gainean. Elkarmeza-emaileek, banan-banan aldare erdira hurbildu eta, belaunikatu eta, Jaunaren Gorputza hartuko dute ; gero, kaliza dagoen aldera joan eta Jaunaren Odola hartuko dute, hortarako hautatu den moldera, lehenago erran bezala.

diakrearen jaunartzea eta kaliza garbitzea lehenago erran bezala eginen dira.

249. Elkarmeza-emaileen jaunartzea ogi sagaratua kalizan bustiz egiten bada, meza-emaile nagusiak ohi denez hartuko ditu Jaunaren Gorputza eta Odola, elkarmeza-emaileek jaunartzeko beharko den bezainbat arno sagaratu kalizan gera dadin kontu izanik. Gero, diakreak edo elkarmeza-emailetako batek aldare erdian edo alde batean utziko du kaliza, beste sagara-oihal baten gainean, ostia zatiak dauzkan patenarekin batera.

Elkarmeza-emaileek, banan-banan aldarera hurbildu, belaunikatu, ostia hartu, kalizan busti eta, azpian patena ezarririk, ahora eramanen dute. Ondotik beren lekuetara joanen dira, Mezaren hastapenan bezala.

Diakreak ere ogi sagaratua kalizan bustiz hartuko du Jauna, eta elkarmeza-emaileak **Kristoren Gorputza eta Odola** erraiten dionean, **Amen** erantzunen du. Gelditu den Kristoren Odol guzia diakreak hartuko du errespeturekin aldarean ; behar izanez geroz, beste elkarmeza-emaile batzuek lagun dezakete ; ondotik, bazterreko mahaitxora eramanen du eta han, diakreak berak edo ohikunez kargatua den akolitoak, ohi den bezala, garbitu, zukatu eta bere lekuan jarriko du.

Bukaerako ohikunea

250. Meza bukatu arteko guziak, meza-emaile nagusiak eginen ditu, ohi den bezala (*ik. 166-168. zk.*), elkarmeza-emaileak beren lekuetan daudela.

251. Aldaretik itzuli baino lehen, konkortze nagusia eginen diote elkarmeza-emaileek aldareari. Eta meza-emaile nagusiak diakrearekin batean musu eginen dio, ohi den bezala.

III. MEZA, ZERBITZARI BAKAR BATEK PARTE HARTZEN DUENEAN

252. Apezak, zerbitzari bakar batek lagunduz eta erantzunez emaiten duen Mezan, herriarekin ospatzen den Mezako ohikune bera erabiliko du (*ik. 120-169. zk.*) ; horrelakoetan, laguntzaileak erranen ditu herriari dagozkion zatiak.

253. Baina laguntzaile hori diakrea bada, berari dagozkionak egiteaz gainerat (*ik. 171-186. zk.*), herriari dagozkion beste zatiak ere eginen ditu.

254. Laguntzailerik edo gutxienean fededun bat gabe ez bedi Mezarik eman, arrazoin garrantzitsu eta larriren bat ez bada. Kasu huntan, ez da agurrik eta oharpenik eginen, ezta benedikapenik emanen ere Mezaren bukaeran.

255. Meza aitzin, beharrezko diren ontziak prestatu eta bazterreko mahaitxoan edo aldarearen eskuinaldean jarriko dira.

Hastapeneko ohikuneak

256. Apezak, aldarera heltzean, konkortze nagusia eginen du laguntzailearekin batean, aldareari musu egin eta jarlekura joanen da. Nahi izanez geroz, aldarean ere geldi daiteke ; kasu huntan, han jarriko du Meza Liburua. Orduan laguntzaileak edo apezak sartzeko antifona erranen du.

257. Ondotik, apezak laguntzailearekin batean, zutik, aitaren eginen du, **Aitaren, eta Semearen** erranez ; eta, zerbitzariari begira, agurtuko du, ohiko formula bat erabiliz.

258. Ondotik, damu-otoitza eginen du eta, arauk dioten moldean, **Urrikal, Jauna** eta **Aintza zeruetan** erranen.

259. Gero, eskuak bilduta, **Egin dezagun otoitza** erran eta, isilaldi egoki bat egin ondoan, besoak zabalik, Mezako otoitza erranen du. Azkenean, laguntzaileak **Amen** erantzunen du.

Hitzaren liturgia

260. Irakurgaiak, ahal dela, irakurtokitik edo atriletik proklamatuko dira.

261. Otoitza erran ondoan,, laguntzaileak lehen irakurgaia eta salmoa irakurriko ditu eta, behar denean, bigarren irakurgaia eta **Alleluia** bere bertsoarekin edo ordezeko beste kantu bat.

262. Gero, apezak, konkortze nagusia eginez, **Garbi itzazu** erranen du eta Ebanjelioa irakurriko, azkenean **Jaunak errana** erranez ; laguntzaileak **Eskerrak Zuri, Jauna** erantzunen du. Ondotik, apezak liburuari musu eginen dio, **Ebanjelioko hitzez** ixilik erranez.

263. Ondotik, arauak hala agintzen badute, laguntzailearekin batean fede-aitormena eginen du apezak.

264. Gero, Meza huntan ere, Jainkoaren herriaren otoitza egin daiteke. Apezak sartzeko eta bukaerako otoitzak eginen ditu, laguntzaileak galdeak eginen dituelarik.

Eukaristiaren liturgia

265. Eukaristiaren liturgian dena herriarekin ospatzen den Mezakoan bezala eginen da, ondotik erraiten direnak ez bada.

266. **Gure Aita**-ren ondoko enbolismoaren azkenean datorren gorapena bukatu, apezak **Jesu Kristo gure Jauna, Zuk errana da Apostolueri** otoitza eginen du ; ondotik **Jaunaren bakea beti zuekin** erranen du eta laguntzaileak **Eta zure Izpirituarekin** erantzunen. Egoki iduritzen bada, bakea emanen dio apezak laguntzaileari.

267. Gero, laguntzailearekin batean **Jainkoaren Bildotsa** erran bitartean, ogi sagaratua zatituko du apezak patenaren gainean. **Jainkoaren Bildotsa** bukatu eta, ostia-zatia kalizara botako du, **Kaliza huntan** erranez ixilik.

268. Hori egin eta, **Jesu Kristo gure Jauna, Jainko biziaren Semea** edo **Jesu Kristo gure Jauna, zure Gorputza eta Odola hartzea** otoitza erranen du apezak ixilik ; gero, belaunikatu eta ogi sagaratua hartuko du eta, laguntzaileak jaunartu behar badu, berari begira eta patenaren edo kalizaren gainean ogi sagaratua pixka bat altxaturik, **Huna hemen Jainkoaren Bildotsa** erranen du eta, segidan, laguntzailearekin batean, **Jauna, ni ez naiz inor**. Ondotik, aldarera begira, Kristoren Gorputza hartuko du. Laguntzaileak jaunartu

behar ez badu, ordea, apezak, belaunikatu, ogi sagaratua hartu eta aldarera begira, **Jauna, ni ez naiz inor** eta **Kristoren Gorputzak zaindu nazala** erranen du ixilik, eta ogi sagaratua hartuko. Jarraian kaliza hartu eta, **Kristoren Odolak zaindu nazala** erran ondoan,, arno sagaratua hartuko du.

269. Laguntzaileari gure Jauna eman aitzinetik, jaunartze-antifona erranen du laguntzaileak nahiz apezak berak.

270. Apezak kaliza garbituko du aldarearen alde batean nahiz bazterreko mahaitxoan. Aldarean garbitu bada kaliza, bazterreko mahaitxora eramanez dezake laguntzaileak, nahiz aldarearen alde batean utzi.

271. Kaliza garbitutakoan, apezak isilaldi bat egitea komeni da ; gero, jaunartze ondoko otoitza erranen du.

Bukaerako ohikunea

272. Bukaerako ohikunea herriarekin ospatutako Mezakoan bezala eginen da, baina **Zoazte Jaunaren bakean** erran gabe. Apezak musu eginen dio aldareari ohi denez eta, laguntzailearekin batean konkortze nagusia egin eta, itzuliko da.

IV. ZENBAIT ARAU OROKOR EDOZEIN MEZA MOLDETARAKO

Aldarea eta Ebanjelio Liburua agurtzea

273. Tradizioari jarraikiz, aldarea eta Ebanjelio Liburua agurtzea musu emanen adierazten da. Baina, ageriko ezaugarri honi herrialderen bateko kultur tradizioan egoki iduritzen ez bazaio, Apezpikuen Biltzarrak beste ezaugarri bat ezar dezake horren orde, Alki Apostolikoaren oniritziarekin.

Belaunikatzea eta konkortzea

274. Eskuineko belauna lurreraino plegatuz egiten den belaunikatzeak gurtza edo adorazioa

erran nahi du ; horrengatik, Sakramendu guziz sailduari egiten zaio baita Gurutze sailduari ere, Ostiral Sailduko Pasionearen Ospakizunetik Bazko Gaubeilaren hastapena bitartean.

Mezan hiru aldiz egiten du meza-emaile nagusi den apezak belaunikatzea : ogi sagaratu erakutsi ondoan, kaliza erakutsi ondoan eta jaunartu aitzin. Elkarmezan bete beharreko xehetasunak bere lekuan adierazi dira (*ik. 210-251. zk.*).

Baina tabernaklea, Sakramendu guziz sailduarekin, aldare ondoan balitz, Mezaren hastapenaren eta bukaeraren belaunikatuko dira apezka, diakrea eta beste laguntzaileak, ez, ordea, Mezaren ospakizun barnean.

Alderantziz, belaunikatuko dira denak Sakramendu guziz sailduaren aitzinetik pasatzean, prozesioan ez badatoz.

Prozesioan gurutzea eta kandelak daramatzaten laguntzaileek, belaunikatu ordez, burua konkortuko dute.

275. Konkortzeak pertsoneri nahiz horien ezaugarriak erakusten zaien errespetua eta ohorea erran nahi du. Bi moldetakoa da konkortzea : buruaz egina edo gorputzaz egina.

a) Jainkozko hiru Pertsonak batera aipatzen direnean eta Jesusen izena, Maria Birjina dohatsuaren eta Meza-ospakizuna egiten zaion sailduarena aipatzen direnean ere, burua konkortuko da.

b) Gorputza konkortzea, berriz, edo konkortze nagusia, beste kasu hauetan egiten da : aldarearen aitzinean ; **Garbi itzazu** eta **Onar gaitzazu**, **Jauna** otoitzak erraitekoan ; fede aitormenean **Eta**, **Izpiritu Sailduaren egitez** erraitekoan ; eta Erromako Kanona edo I. Eukaristi Otoitzean **Apalki eskatzen dauzugu** otoiza erraitekoan. Molde berean, gorputza konkortuko du diakreak, Ebanjelioa proklamatzeko benedikapena eskatzean. Apezka ere konkortuko da pixka bat, sagarakoan Jaunaren hitzak erraitean.

Intsentsatzea

276. Intsentsatzeak errespetua eta otoitza adierazten du, Liburu Sailduetan ikus

daitekeenez (*ik. Sal 141 [140], 2 : Ap 8, 3*).

Edozein Meza-moldetan erabil daiteke intsentsua :

- a) sartzeko prozesioa egiten den bitartean ;
- b) Mezaren hastapenaren, gurutzea eta aldarea intsentsatzeko ;
- c) Ebanjeliorako prozesioan eta Ebanjelioa proklamatzekoan ;
- d) ogi-arnoak aldare gainean jarritik, oparigaiak, gurutzea eta aldarea, eta apezka eta herria ere intsentsatzeko ;
- e) sagara ondotik ostia eta kaliza erakustean.

277. Apezka intsentsua ontzian jarri eta, deus erran gabe, gurutzearen seinalea eginez benedikatu du.

Intsentsatu aitzin eta ondoan, konkortze nagusia egiten zaio intsentsua emaiten zaion pertsonari edo gauzari, baina ez aldareari eta Mezako oparigaiari.

Intsentsu-ontziaren bina kolpe hiru aldiz emanez intsentsatuko dira : Sakramendu guziz saildua, Gurutze sailduaren erlikiak eta jendaitzinean adoratzeko jarriak dauden Jaunaren irudiak, Mezako oparigaiak, aldareko gurutzea, Ebanjelio Liburua, Bazko-xirioa, apezka eta herria.

Bina kolpe bi aldiz emanez intsentsatuko dira : jenden aitzinean adoratzeko jarriak dauden sailduen erlikiak eta irudiak eta, hain zuzen, ospakizunaren hastapenaren bakarrik, aldarea intsentsatu ondoan.

Aldarea honela intsentsatuko da kolpe banaka :

- a) Aldarea murrutik berezia badago, ingurubira eginez intsentsatuko du apezka.
- b) Murrutik berezia ez badago, berriz, lehen aldarearen eskuinaldea intsentsatuko du apezka, eta gero ezkeraldea.

Gurutzea aldarean berean edo ondoan badago, aldarea bera baino lehenago intsentsatuko da. Aldarearen gibelean badago, beraren aitzinean pasatzean intsentsatuko da.

Gurutzea eta aldarea intsentsatu aitzin, oparigaiak intsentsatuko ditu apezka, bina

kolpe hiru aldiz emanez edo oparigaien gainean intsentsu-ontziarekin gurutzearen seinalea eginez.

Garbiketak

278. Ogi sagaratuaren zatiren bat behatzetan lotua gelditzen denean, bereziki ogi sagaratu zatitzean edo fededunei gure Jauna eman eta, patena gainean garbituko ditu apezak behatzak eta, behar izanez geroz, urez ere bai. Molde berean, patenatik kanpo zatirik gelditzen denean, bilduko du.

279. Ontzi sakratuak apezak, diakreak edoprestatu akolitoak garbituko ditu, jaunartze edo Meza ondoan eta, ahal dela, bazterreko mahaitxoan. Kaliza urez bakarrik edo arnoz eta urez garbituko da, eta garbitzen duenak berak hartuko du ur hori. Patena, normalki, nahikoa da garbi-zapitxoaz garbitzea.

Kontu izan bedi, gure Jauna eman ondoan geldi daitekeen Kristoren Odola orduan bertan eta berehala edan behar dela aldarean.

280. Ogi sagaratu edo hunen zatitxo bat lurrera erortzen denean, errespeturekin bilduko da. arno sagaratu zerbait isurtzen denean, isuri deneko lekua urez garbituko da, eta gero ur hori sakristiako urtegi botako.

Ogi-arnoen itxurapean jaunartzea

281. Jaunartzeak, ezaugarri den aldetik, erranahi beteagoa du ogi-arnoen itxurapean egiten denean. Agertu ere, molde huntan agertzen da argien eukaristi apairuaren ezaugarria ; argiago adierazten da Jaunaren Odolean egiten den itun berri eta betikoa onartzeko borondatea ere, eta hobeki ikusten eukaristi apairuak eta Aitaren erreinuko apairu eskatologikoak elkarrekin duten zerikusia.¹⁰⁵

282. Ahalegindu bitez eliz artzainak ohikunean tarteko diren edo esku hartzen duten fededunei Trentoko Kontzilioak jaunartzeko molde honi buruz eman irakaspen katolikoa modurik egokienean gogora ekartzen. Azal bieziaite, lehen, fede katolikoak irakasten diguna : ogiaren edo arnoaren itxura bakarraren pean ere

Kristo osorik dagoela eta egiazko Sakramendua hartzen dela ; horrengatik, jaunartzearen fruituei gagozkielarik, itxura bakarraren pean gure Jauna hartzen duenak ez duela salbamenerako behar diren grazietatik ezer galtzen.¹⁰⁶

Irakats bieziaite, gainerat, Elizak baduela ahalmenik sakramenduak nola eman zehazteko nahiz, betiere mamia begiratu geroz, aldatzeko, fededunentzat onuragarriena zer den ikusiz, bai sakramenduen ohoratzeko, bai hartzaileen onerako, kontuan izanik gauzen, aldien eta lekuen egoera ezberdinek eskatzen dutena.¹⁰⁷ Eta ekar bieziaite gogora, aldi berean, ohikune sainduan ahalik egokien parte hartzen arduratu behar dutela, eukaristi apairuaren ezaugarria hoberena agertzen den moldean, hain zuzen.

283. Sakramendu-liburuetan emanak dauden kasuez gainerat, zilegi dute ogi-arnoen itxurapean jaunartzea :

a) Eukaristia edo elkarmeza ospatu ezin duten apezak ;

b) Mezan eginkizunen bat bete duten diakreak edo beste laguntzaileek ;

c) komentu-mezan edo «elkartekoa» erran ohi den Mezan elkartekideek, baita seminarioetako apezgaiek, gogo-jardunak egiten ari direnek, edo biltzar Izipiritualean nahiz pastoralean parte hartzen dutenek ere.

Jaunartzea ogi-arnoen itxurapean egiteari buruz arauak eman ditzake Apezpikuak bere diozesako, eta bete beharrekoak dira arau hauek baita erlijioso-erlijiosen elizetan eta talde txikietan ere. Ahalmena emaiten zaio Apezpiku berari, ogi-arnoen itxurapean jaunartzeko baimena eman ahal izateko apezari, honek bere ardurapean jarritako kristau-elkartean horrela egitea egoki izanen dela ikusten duen kasuetan, betiere fededunak ondo irakatsiak izanik, Sakramendua profanatzeko arriskurik ez bada eta jendetza handia delako ohikunea zaila gertatzen ez bada.

Gure Jauna fededunei ogi-arnoen itxurapean nola eman eta ahalmen hau zabalago emaitari buruz arauak eman ditzakete Apezpikuen Biltzarrek, Alki Apostolikoaren onepenez.

284. Gure Jauna ogi-arnoen itxurapean emaitetako denean :

a) kalizaren zerbitzua normalki diakreak egiten du edo, diakrerik ez bada, apezak ; baita ohikunez prestatutako akolitoak edo gure Jauna emaitetako ezohiko zerbitzariak ere ; halakoari kasu bakoitzerako emanen zaio eginkizun hau ;

b) Jauna eman ondoan gelditu izanen den Kristoren Odola aldarean bertan edanen du apezak edo diakreak edo kaliza emaiten lagundu duen ohikunez prestatutako akolitoak, eta ondotik garbitu, zukatu eta beren lekuetan jarriko ditu ontzi sakratuak.

Ogi-itxurapean bakarrik jaunartu nahi duten fededunei, hala eman bekie gure Jauna.

285. Gure Jauna ogi-arnoen itxurapean emaitetako presta bidez :

a) jaunartzea arno sagaratua zuzenean kalizatik edanez egitekoa bada, behar bezain handi izanen den kaliza edo behar bezainbat kaliza, kontu izanez, ordea, Kristoren Odol gehiegi geldi ez dadin ospakizunaren bukaeran edateko ;

b) ogi sagaratua kalizan bustiz egitekoa bada, ostiak ez daitezela ahulegiak edo txikiegiak izan, baizik eta ohikoak baino lodixeagoak, parte bat Kristoren Odoletan bustirik egoki eman ahal izateko.

286. Jaunartzea arno sagaratua kalizatik edanez egitekoa bada, jaunartzailea, Kristoren Gorputza hartu ondoan, kaliza daukan zerbitzariarengana joan eta haren aitzinean jarriko da zutik. Zerbitzariak erranen du **Kristoren Odola** ; jaunartzaileak erantzunen **Amen**. Zerbitzariak kaliza emanen dio, eta harek bere eskuz eramanen du ahora ; kalizatik pixka bat edan, berriz zerbitzariari itzuli eta bere lekura joanen da ; zerbitzariak kalizaren bazterra zapitxoaz garbituko du.

287. Jaunartzea ogi sagaratua kalizan bustita egitekoa bada, jaunartzailea, patena kokots azpian jarririk, ogi sagaratu zatien ontzia duen apezarengana hurbilduko da, ondoan kaliza daukan laguntzailea duela. Apezak ostia hartu, zati bat kalizan busti eta erakutsiz erranen du **Kristoren Gorputza eta Odola** ; jaunartzaileak erantzunen du **Amen**. Apezak emanen dion

Sakramendu saildua ahoan hartu eta bere lekura joanen da.

V. KAPITULUA

ELIZEN ANTOLAKETA ETA APAINDURA EUKARISTIAREN OSPAKIZUNERAKO

I. PRINTZIPIO OROKORRAK

288. Eukaristia ospatzeko Jainkoaren herria elizan bildu ohi da gehienetan edo, elizarik ez bada edo txikiegi denean, misterio handi hau ospatzeko duina den beste leku egokiren batean. Elizak eta beste leku hauek, beraz, ekintza saildu hau burutzeko eta fededunek egitez esku hartzeko egokiak izan behar dute. Etxe sailduak eta liturgian erabiltzen diren gauzek, gainerat, hortarako gai eta ederrak izan behar dute, gauza zerutarren agerbide eta sinbolo direlaketz.¹⁰⁸

289. Hona zergatik nahi izaten duen Elizak artegintzaren zerbitzu prestua, eta hona zergatik emaiten dituen ontzat nazio eta herrialde guzietako arte-adierazpenak.¹⁰⁹ Gehiago oraindik, iraganeko mendeetako artelanak eta altxorak zaindu eta betetzen¹¹⁰ eta, behar denean, gure egunetako premietara egokitzen ahalegintzen den bezala, aldi bakoitzari ondo datozkion arte-mota berriak sortzen ere ahalegintzen da.¹¹¹

Hori dela eta, ertilariei heziera emaiten eta elizetarako artelanak hautatzean, izan bedi kontuan artearen egiazko bikaintasuna, fedearentzat eta jainkozaletasunarentzat egiaz onuragarri izan daitezen eta ardietsi nahi diren erranahia eta helburuak lortzeko ere benetan egokiak izan daitezen.¹¹²

290. Eliza guziak sagaratu behar dira edo gutxienean benedikatu. Apezpiku-elizak edo katedralak eta parroki elizak ohikune ospetsuz sagaratu behar dira.

291. Etxe sakratuak eraikitzen, eraberritzen eta egokitzen arta hartu behar dutenek diozesako

Liturgi eta Eliz Artearen Batzordeari aholkua eskatu behar diote. Arlo huntan arauak ezartzeko edo etxe berrien planoak ontzat emateko nahiz garrantzizko arazoei buruz ikus moldea emateko, Batzorde horren kontseilua eta laguntasuna izan behar ditu diozesako Apezpikuak.¹¹³

292. Elizaren apaindurak gehiago begiratu behar dio edertasun apalari, handikeria distiratsuari baino. Apaingarri diren osagaiak hautatzekoan, zaindu bedi gauzen egiazkotasuna eta izan bedi kontuan fededunen heziera eta leku sakratu osoaren duintasuna.

293. Eliza bera eta inguruan dituen beste lekuak ere gure garaiotako beharrei erantzuteko egoki antolatuak izan daitezten, beharrezko da kontuan izaita ez bakarrik ospakizun sakratuekin zuzenean zerikusia dutenak, baita bidezkoa den fededunen erabilgarritasuna eta herria bildu ohi den lekuetan normalki kontuan izan ohi direnak ere.

294. Mezatarako biltzen den Jainkoaren herriak ordena koherentea eta hierarkikoa du bere baitan ; hori ospakizunaren zati bakoitzeko zerbitzu eta ekintza desberdinetan adierazten da. Horrengatik, leku sakratuaren antolaketa orokorrak bildua dagoen biltzarraren irudia nolabait emaita komeni da, denen arteko ordena egokia errextea eta zerbitzu bakoitza ondo egiteko ere lagungarri izaita.

Fededunak eta korala beren esku-hartzetara bizia errestudezakeen lekuan egonen dira.¹¹⁴

Apez meza-emailea, diakrea eta beste laguntzaileak aldare aitzinean egonen dira. Han prestatuko dira elkarmeza-emaileentzako jarlekuak ; asko balira, ordea, elizako beste alde batean, baina aldaretik hurbil, presta bitez horientzako jarlekuak.

Hauek guziak, antolaketa hierarkikoa eta zerbitzuen desberdintasuna adierazteaz gainerat, barne-barneko batasun egokia ere egin behar du, argi ager dadin herri saindu guziaren batasuna. Leku sakratuaren eta beste gauza guzien izaerak eta edertasunak jainkozaletasuna piztu eta ospatzen den misterioaren saindutasuna adierazteko gauza izan behar dute.

II. ALDARE AITZINAREN ANTOLAKETA OSPAKIZUN SAKRATURAKO

295. Aldarea dagoen lekua da aldare aitzina, Jainkoaren hitza proklamatzeko den eta apezak, diakreak eta beste laguntzaileek beren eginkizuna betetzen duten lekua. Bereizia egonen da elizako barne nagusitik, goraxeago dagoelako edo egitura eta apaindura berezia duelako. Baina bertan Eukaristia egoki ospatzeko eta ondo ikusi ahal izateko behar den leku izan behar du.¹¹⁵

Aldarea eta hunen apaindura

296. Aldarean gurutzeko sakrifizioa gertaberritzen da sakramendu-ezaugarriean ; Jaunaren mahaia ere bada, eta bertan parte hartzeko biltzen da Jainkoaren herria ; Eukaristian gauzatzen den eskerrak emateko gunea da gainera.

297. Leku sakratuan egin ohi den Eukaristiaren ospakizuna aldarean egin behar da ; leku sakratutik kanpo ere ospa daiteke mahai egoki baten gainean, beti aldare-zapia eta sagar-oihala, gurutzea eta argimutilak erabiliz.

298. Eliza guzietan aldareak mugiezina izan behar du ; Harri bizia den Kristo Jesus (*1 P 2, 4 ; ik. Ef 2, 20*) irudikatzen du aldareak garbi eta iraunkorki ; ospakizun sakratuak egiteko dauden beste lekuetan, ordea, mugikorra izan daiteke aldarea.

Lurrari loturik dagoelako, lekuz aldatzerik ez dagoen aldareari erraiten zaio mugiezina ; tokiz aldatzeko modukoa bada, berriz, mugikorra.

299. Aldare nagusia murrutik bereizia egin behar da, errex inguratzeke eta ospakizuna herrira begira egiteko moldean, hori baita egokiena, ahal den heinean. Biltzarrean bilduta dauden fededun guziek berez-berez eta adi-adi ikusi ahal izanen duten lekuan egon behar du.¹¹⁶

Aldare nagusia normalki aldaezina eta sagaratua izanen da.

300. Aldareak, mugiezinak nahiz mugikorrek izan, «Pontificale Romanum» delakoak dakartzan ohikuneen arabera sagaratuko dira ; aldare mugikorrek, halere, nahikoa da benedikatzeko.

301. Aldare mugiezina den mahaiak, Elizaren tradiziozko ohituraren eta haren erranahiaren arabera, harrizkoa izan behar du, berezko harriz egina, hain zuzen. Halere, izan daiteke beste gai batez egina, gai hau duina, azkarra eta ongi landua izanez geroz, Apezpikuen Biltzarraren ustez. Mahaiaren oina edo behea edozein gaiz eginikoa izan daiteke, duina eta azkarra izanez geroz.

Aldare mugikorra edozein gaiz egin daiteke, gai duina, sendoa eta liturgiarako egokia izanez geroz, herrialde bakoitzeko tradizioaren eta ohituren arabera.

302. Sagaratuko den aldare azpian sainduen erlikiak, martirienak ezartzeko ohitura betetzea komeni da. Baina erlikia hauek egiazkoak direla jakiteko axola hartu behar da.

303. Eliza berriak egitekoan aldare bakarra eraikitzea komeni da, Kristo bakarra dela eta Elizaren Eukaristia ere bakarra dela adieraz dezan fededunen biltzarrean.

Lehen eraikitako elizetan, aldarea kokatua dagoen moldean kristau-herriaren parte-hartzea zail gertatzen denean eta aldare hori, bere arte-balioari kalterik egin gabe, beste leku batera eramaterik ez dagoenean, eraiki bedi mugiezina den beste aldare bat, artetsu egina eta behar denez sagaratu, eta aldare huntan bakarrik egin bitez ospakizun sakratuak. Fededunen arreta aldare berrira zuzen dadin, ez bedi aparteko apainduraz jantzi aldare zaharra.

304. Jaunaren oroigarriaren ospakizunari eta Jaunaren Gorputza eta Odola banatzen diren apairuari zor zaien errespetua dela eta, ospakizuna eginen den aldare gainean gutxienez zapi zuri bat ezarri behar da ; zapi honek moldez, neurritz eta apainduraz aldarearen beraren egiturari doakiona izan behar du.

305. Aldarearen apainduraz neurritsu izan behar da.

Abendualdian apain bedi lorez aldarea, baina neurritsu, liturgialdi hunen izaerak eskatzen duen bezala, Jaunaren Sortzeari doakion alaitasun bete aurreratu gabe. Garizuman debekatua dago aldarea lorez apaintzea. Salbuespena eginen da, ordea, *Lætare* igandean (Garizumako IV. igandean), bestaburuetan eta bestetan.

Lore-apaindurak neurritsua izan behar du beti, eta hobe da loreak aldare-inguruan jartzea, aldare-mahai gainean baino.

306. Aldare-mahai gainean, hain zuzen, Mezaren ospakizunerako behar direnak bakarrik jar daitezke, hau da : Ebanjelio Liburua ospakizunaren hastapenatik Ebanjelioa proklamatu arte, kaliza patenarekin oparigaien aurkezpenetik ontzi sakratuak garbitu arte, kopoia behar izanez geroz, sagara-oihala, garbi-zapitxoa, kaliza-estalkitxoa eta Meza Liburua.

Jar bedi, gainerat, molde egokian, apezaren ahotsa jasotzeko beharrezko den bozgorailua.

307. Liturgi ekintza bakoitzean beharrezko dira argimutilak, errespetuaren eta besta-giroko ospakizunaren adierazgarri (*ik. 117. zk.*) ; aldare gainean edo inguruan, habekienik datorkeen moldean ezarriko dira, aldarea eta aldare aitzina nolakoak diren kontuan izanik, gauza guzien artean batasun egokia izan dadin eta aldarean eginen edo jarriko direnak ongi ikustea fededunei galaraz ez diezaien.

308. Molde berean, aldare gainean edo ondoan, Kristo gurutziltzatua duen gurutzea ezarriko da, biltzarrean bildua dagoen herriak ondo ikusteko moldean. Gurutze hau, liturgi ospakizunaz kanpo ere, aldare ondoan egotea komeni da, Jaunaren pasione salbagarriaren oroitzapena fededunei gogora ekartzeko

Irakurtokia

309. Jainkoaren hitzaren duintasunak eskatzen duenez, leku berezia izan behar du elizan hitz hori proklamatzeko, Jainkoaren hitzaren liturgi garaian fededunen gogo-begiak bertara berez-berez itzularazteko gisan.¹¹⁷

Leku hau normalki irakurtoki mugiezina izaita komeni da, ez atril mugikor hutsa. Elizaren egituraren arabera, herriak zerbitzari ordenatuak eta irakurleak ongi ikusi eta entzuteko moldean ezarria egon behar du irakurtokiak.

Irakurgaiak, erantzun-salmoa eta Bazko-deia bakarrik proklamatzeko dira irakurtokitik ; homilia eta Jainkoaren herriaren otoitza ere bertatik egin daitezke. Irakurtokiaren

duintasunak eskatzen duenez, hitzaren zerbitzariak bakarrik igan behar du hartarat.

Irakurtoki berria liturgiarako erabili aitzin benedikatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.¹¹⁸

Apez meza emailearen jarlekua eta gainerako jarlekuak

310. Meza-emaile den apezaren jarlekuak biltzarburu eta otoitzaren zuzendari-eginkizuna duena bera dela adierazi behar du. Hori dela eta, hortarako lekuri egokiena aldare aitzineko gorenean, herriari begira dagoen lekua izanen da normalki, baldin eta elizaren egiturak edo beste zerbaitek besterik eskatzen ez badu, hala nola, urrunegi delakotz apezaren eta bildua den biltzarraren arteko harremanak zailtzen baditu, edo tabernaklea aldare gibelesko lekuaren erdian ezarria badago. Ez du tronu-itxurarik izan behar.¹¹⁹ Jarleku hau liturgi ospakizunetarako erabili aitzinetik benedikatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.¹²⁰

Gisa berean, aldare aitzinean jarriko dira apez elkarmeza-emaileentzako alkiak, baita, elkarmeza-emaile ez izana gatik, koru-jantziz elkarmezan dauden gainerako apezentzat ere.

diakrearen alki meza-emaile nagusiaren jarlekuaren ondoan egonen da. Beste laguntzaileentzako alkiak kleroaren alkitatik ondo bereizteko moldean jarriko dira, haiei dagokien eginkizuna errex bete ahal izateko gisan.¹²¹

III. ELIZA NOLA MOLDATU

Fededunen lekua

311. Fededunen lekua axola handiz moldatu behar da, haiek begiz eta Izpirituz ospakizun sakratuetan esku hartu ahal izan dezaten. Normalki alkiak eta jarlekuak izaita onuragarri da. Baina ez da ontzat hartzekoa, pertsona pribatu batzuentzat jarleku bereziak izaiteko ohitura.¹²² Alkiak eta jarlekuak, bereziki berriki eraiki elizetan, egoki den moldean ezarriko dira, ospakizunaren memento bakoitzean izan behar

den gorputz-jarrera fededunek errex har dezaten eta, gure Jauna hartzekoan, errexki ibili ahal izan daitezten.

Kontu izan behar da, fededunek, bai apeza bai diakrea eta irakurleak ez bakarrik ikusi, gaur egungo teknika-bidezko entzungailuen bitartez horiei guzietan ongi entzuteko molde izan dezaten.

Koralaren eta musikagailuen lekua

312. Elizaren egitura kontuan izanik, koralaren lekua argi eta garbi erakutsi behar du zer den : biltzarrean bildua dagoen fededun-elkartearen zati, alegia, ospakizunean berezko eginkizuna duena ; egokia izan dadila leku hori, koralak bere eginkizuna ondo bete dezan, eta kantari bakoitzari Mezan parte hartzea, hau da, sakramenduz parte hartzea ere errestudieziaion.¹²³

313. Organoa eta legez ontzat eman beste musikagailuak beren lekuetan egonen dira, hau da, kantariak eta herria kantuan egoki lagunduko dituzten lekuan eta, haiek bakarrik ari direnean, guziek ondo entzun ahal izanen duten lekuan. Organoa liturgi ospakizunetarako erabili aitzin benedikatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.¹²⁴

Abendualdian organoa eta gainerako musikagailuak neurritsu erabiliko dira, liturgialdi hunen izateak eskatzen duen bezala, Jaunaren Sortzari doakion alaitasun bete aitzindu gabe.

Garizuman kantua laguntzeko bakarrik dago baimendua organoaren eta beste musikagailuen erabilera. Salbuespen eginen da, ordea, *Lætare* igandean (Garizumako IV. igandean), bestaburuetan eta bestetan.

Eukaristia guziz saildua begiratzeko lekua

314. Elizaren egitura eta leku bakoitzeko legezko ohiturak kontuan izanik, Sakramendu guziz saildua tabernaklean emanen da, elizako leku oso duin, eder, ongi ikus daitekeen, apaindutako eta otoitzerako egokia den lekuan.¹²⁵ Tabernakleak normalki bakarra izan behar du, mugiezina, gai azkarrez egina eta hautsezina ; ez du barnea agerian utzi behar eta profanazio-arriskua osoki baztertuko duen moduan itxia egonen da.¹²⁶

Tabernaklea liturgi ospakizunetarako erabili aitzinetik benedikatzea komeni da, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.¹²⁷

315. Ezaugarriak indarra izan dezan, egokiago da Eukaristia guziz saildua bete dagoen tabernaklea Meza emanen den aldarean ez egotea.¹²⁸

Beraz, tabernaklea, diozesako Apezpikuaren ikusmoldearen arabera, honela ezarriko da :

a) aldare aitzinean, ospakizuna eginen den aldaretik kanpo, egokienak diruditen moldean eta lekuan, ospakizunerako jada erabiltzen ez den aldare zaharra baztertu gabe (*ik. 303. zk.*) ;

b) nahiz fededunen adoraziorako eta otoitzerako egokia izanen den kapera batean,¹²⁹ baldin eta elizaren egiturarekin bat eginga eta fededunek ikusteko moduan badago.

316. Aspaldiko ohiturari jarraikiz, tabernakle ondoan argiontzi berezi bat pizturik egonen da beti, olio edo argizariz ase, horrela Kristoren presentzia adierazten eta ohoratzen delarik.¹³⁰

317. Kontuan izan behar dira, molde berean, Eukaristia guziz saildua atxikitzeari buruz zuzenbidearen araudian ezarriak dauden gainerako xedapen guziaz.¹³¹

Irudi sakratuak

318. Elizak, lur honetako liturgia ospatzean, Jerusalemeko hiri sailduan ospatzen duten zerutar liturgian parte hartzen du, eta hura aitzinetik jastatzen ; beilari doa Kristo Jainkoaren eskuinaldean jarria dagoen hiri saildu horretara, eta, sailduen oroimen ohoragarria eginez, haiekin parte izatea eta haien biltzarrean onartua izatea espero du.¹³²

Horrengatik, Elizaren antzina-antzina tradizioaren arabera, Jaunaren, Maria Birjina dohatsuaren eta Sailduen irudiak jar bitez etxe sakratuetan fededunen adoraziorako,¹³³ eta eman bitez, han ospatuko diren fede-misterioetara fededunak, eskutik bezala, eramateko moduan. Horrela, bada, kontu handia izan behar da, alde batetik, itxuragabe irudi gehiegi ez jartzeko eta, bestetik, haiek maila egokian emaiteko eta fededunen gogo-begiak ospakizunetik

ez bazterrarazteko.¹³⁴ Saildu bakoitzak ez dezala normalki irudi bat baino gehiago izan. Orokorrean, elizaren apainduraren eta antolaketan, irudiei dagokienaz, kontuan izan bedi kristau-elkarte osoaren jainkozaletasuna eta irudien edertasuna eta duintasuna.

VI. KAPITULUA

MEZAREN OSPAKIZUNERAKO BEHAR DIRENAK

I. OGIA ETA ARNOA EUKARISTIA OSPATZEKO

319. Kristok egin zuenari jarraikiz, Jaunaren apairua ospatzeko ogia eta arnoa, urarekin nahastua, erabili izan ditu Elizak beti.

320. Eukaristiaren ospakizunerako gari-irinez bakarrik egin ogia behar da, egin berri berria eta, latindar Elizako tradizioaren arabera, ogi hila, altxagarririk gabea.

321. Ezaugarri izaiteak berak eskatzen du, Eukaristiaren ospakizunean erabiliko den gaiak egiazko janari bezala agertzea. Hori dela eta, Eukaristiako ogia, ogi hila eta ohi den moldera egina gatik, herriarekin emaiten den Mezan apezak zatiak egiteko heinekoa izaitea komeni da, gutxienez fededun batzuei eman ahal izateko. Ostia txikiak ez dira inola ere baztertzen, jaunartzeko dagoen jende-kopuruak edo beste arrazoin pastoral batzuek hori eskatzen badute. Baina ogi-zatitzeak –Apostoluen garaian izen haxe emaiten baitzitzaion Eukaristiari– argiago agertuko du guziek ogi batean eta maitasun berean bat egitearen ezaugarriak duen garrantzia eta indarra, haurrideen artean ogi bat bakarra banatzen bada.

322. Eukaristiaren ospakizunerako arnoak «mahatsaren fruitu» (*ik. Lk 22, 18*) izan behar du, hau da, zinezko arno garbia, bestelako gaiekin nahasi gabea.

323. Eukaristiarako diren ogi-arnoek egoera onean egon behar dutenez, kontu handia eduki behar da, arnoa mindu ez dadin eta ogia ere

mutzitu ez dadin, ezta nekez zatitzeko moduan gogortu ere.

324. Sagara ondoan edo jaunartu duen mementoan, apeza ohartzen bada kalizan ez duela arnorik ezarri, ur hutsa baizik, ur hau ontzi batean utzirik, arnoa eta ura kalizan ezarri eta sagara ditzala, kaliza sagartzeko hitzak erranez ; ez du, haatik, berriz ogia sagartzeko hitzak erraiterik.

II. TRESNA SAKRATUAK OROKORREAN

325. Elizak eraikitze bezala, elizako tresneria guziari doakionez ere ontzat emaiten ditu Elizak herrialde bakoitzeko artelanak eta aintzat hartzen herrialde horren izaerari eta ohiturei dagozkien moldeak, baldin eta, elizkizunetarako direnez, hortarako egokiak badira.¹³⁵

Arlo huntan ere berezko edertasun apala zaindu behar da arduraz, egiazko artegintzari ondo baino hobeki doakionez.

326. Tresna sakratuak egiteko gaiak hautatzekoan, orain arte ohituraz erabili izan diren gaiez aparte, erabil daitezke gaur egungo pentsamoldearen arabera bikainak, iraunkorrak eta elizkizunei dagozkientzat jotzen direnak ere. Baina arlo huntan herrialde bakoitzeko Apezpikuen Biltzarra izanen da epaile (*ik.* 390. *zk.*).

III. ONTZI SAKRATUAK

327. Meza emaiteko behar diren gauzen artean, errespetu berezia zor zaie ontzi sakratuei eta, horien artean, kalizari eta patenari, ogia eta arnoa hauetan eskaini, sagaratu eta hartuko baitira.

328. Ontzi sakratuek metal duinaz eginak izan behar dute ; herdoil daitekeen edo urrea bezain duina ez den beste metalez eginak izanez geroz, urrez tatu eginen da barnealdea komuzki.

329. Apezpikuen Biltzarraren iritziz eta Alki Apostolikoak bere onarpena emanik, beste gai gogorrez ere eginak izan daitezke ontzi sakratuak, leku bakoitzeko ikus molde orokorraren arabera duinak izanez geroz, hala nola, ebanoz edo

beste zur gogorren batez, baldin eta liturgian erabiltzeko egokiak badira. Kasu huntan, hobe da puskatzen eta usteltzen ez diren gaiak erabiltzea. Konduan hartu behar da hori ogi sagaratu hartzeko diren ontzi guzientzat, hau da, patena, kopoia, ostien ontzitzoa, kustodia eta gainerako ontzientzat.

330. Jaunaren Odola hartzeko diren kalizei eta gainerako ontziei dagokienaz, isurkia irensten ez duen gai-motaz eginak izan behar dute. Ontzi horien oina, halere, beste molde bateko gai azkar eta duinez egina izan daiteke.

331. Sagaratuko den ogitarako egoki izan daiteke patena handiagoa erabiltzea, bertan bai apezarentzat eta diakrearentzat bai beste laguntzaile eta fededunentzat izanen den ogia jartzeko.

332. Ontzi sakratuen eite edo moldeari gagozkiolarik, artixtei dagokie horiek molderik egokienean sortzea, herrialde bakoitzeko ohiturei hobekienik datozkien ereduak hautatuz, ontzi bakoitza elizkizunetarako egokia izanez geroz eta eguneroko bizitzan erabili ohi direnetatik desberdinak direlarik.

333. Ontzi sakratuak benedikatzeari doakionaz, liturgi liburuetan agindu diren ohikuneak beteko dira.¹³⁶

334. Gorde bedi sakristian garbiuntzia jartzeko ohitura, ontzi sakratuak eta zapitxoak garbitzen erabilitako ura bertan botatzeko (*ik.* 280. *zk.*).

IV. JANTZI SAKRATUAK

335. Kristoren gorputza den Elizan guziek ez dute eginkizun bera betetzen. Eukaristiaren ospakizuneko eginkizun desberdinak jantzi ezberdinez adierazten dira ; horrengatik, jantzi hauek zerbitzari bakoitzari doakion eginkizunaren adierazgarri izan behar dute. Jantzi sakratuek, bestalde, ekintza sakratuaren beraren edergarri ere izan behar dute. Egoki da apez, diakre edo laguntzaile laikoan jantziak liturgi ospakizunean erabili aitzinetik benedikatzeari, Erromako Ohikune Liburuaren arabera.¹³⁷

336. Ordenatutako edo prestatu edozein mailatako zerbitzariak erabili beharreko jantzi

sakratua alba deitzen dena da ; gerrikoaz lotzen da gerrian, baldin eta gerrikorik gabe ere gorputzari ondo egokitzeko moldean egina ez badago. Albak lepo-inguruan norberaren ohiko jantzia ondo estaltzen ez badu, alba jantzi aitzinetik amitoa jarriko da. Albaren orde ez daiteke erroketea erabili kasuila edo dalmatika jantzi behar denean, ezta kasuila edo dalmatikaren orde estola jarri behar denean ere.

337. Meza emaiteko edo Mezarekin zuzeneko zerikusia duten ekintza sakratuak burutzeko apez meza-emailearen jantzi berezia, besterik erraiten ez den bitartean, kasuila da, albaren eta estolaren gainetik jantzia.

338. Diakrearen jantzi berezia dalmatika da, albaren eta estolaren gainetik jantzia ; halaberrez edo jai-maila apalagoa delako, utz daiteke dalmatika.

339. Akolito, irakurle eta beste laguntzaile laikoek alba edo herrialde bakoitzean Apezpikuen Biltzarrak legez onartutako beste jantzi bat jantz dezakete (*ik. 390. zk.*).

340. Estola lepo-inguruan eta aitzinaldetik zintzilika eramaten du apezak ; diakreak, berriz, gurutzatua, ezkerreko sorbaldatik, aitzinaldean zeharkatuz, gorputzaren eskuinaldean lotzen duela.

341. Eliz kapa prozesioan eraman ohi du apezak, baita beste ekintza sakratu batzuetan ere, ohikune bakoitzaren errubrika berezien arabera.

342. Eliz jantzien moldeari doakionaz, Apezpikuen Biltzarrak erabaki ditzake egokitzapenak eta Alki Apostolikoari proposatu, eliz jantziak herrialde bakoitzeko beharrian eta ohituren arabera izan daitezten.¹³⁸

343. Eliz jantziak egiteko, ohiko gaiez gainerat, herrialde bakoitzeko berezko diren zuntzak erabil daitezke, baita ekintza sakratuaren eta pertsonaren duintasunari dagozkion zuntz artifizialak ere. Gauza huntan Apezpikuen Biltzarra izanen da epaile.¹³⁹

344. Jantzi bakoitzaren edertasuna eta duintasuna ez da apaingarri anitz eramatean bilatu behar, gaiaren eta ebakieraren edertasunean baizik. Apaingarri jartzen diren

irudi eta sinboloek gauza sakratuetarako direla adierazi behar dute, horri ez doakion guzia alde batera utzirik.

345. Jantzi sakratuen kolore ezberdinak honetarako dira : begiz ikusten denetik ere egokiago nabarmentzeko, alde batetik, ospatzen diren fedeko misterioen ezaugarriak eta, bestetik, liturgi urtean gaindi kristau-bizitzan aurrera egiten ari garela adierazteko.

346. Jantzi sakratuen koloreari doakionaz, tradizioz hartu ohitura atxiki behar da, hau da :

a) Zuria, Bazkoaldiko eta Eguberrialdiko elizkizun eta Mezetan erabiliko da ; orobat, Pasiokoak ez diren Jaunaren ospakizunetan ; Maria Birjina dohatsuaren, aingeru sainduen eta martiri ez diren sainduen ospakizunetan ; Omiainsinduan (azaroaren 1ean), Jondoni Joane Bataiatzailearen (ekainaren 24an), Jondoni Joane Ebanjelariaren (abenduaren 27an), Jondoni Petri Apezpiku-alkiaren (otsailaren 22an) eta Jondoni Paulo Kristogana itzultzearen (urtarrilaren 25ean) bestaburuetan.

b) Gorria, Jaunaren Pasioneko Erramu-igandean eta Ostiral Sainduan erabiliko da, eta Mendekoste-igandean, Jaunaren Pasioneko ospakizunetan, Apostoluak eta ebanjelariak zerurako sortu ziren besta-egunetan eta martiri sainduen ospakizunetan.

c) Berdea, Urtean Gaindiko elizkizun eta Mezetan erabiliko da.

d) Ubela, Abendualdian eta Garizuman erabiliko da. Hilan aldeko elizkizun eta Mezetan ere erabil daiteke.

e) Beltza, ohi den lekuetan, hilen aldeko Mezetan erabil daiteke.

f) Arrosa-kolorea, *Gaudete* igandean (Abendualdiko III. igandean) eta *Lætare* igandean (Garizumako IV. igandean) erabil daiteke.

g) Bestaburu berezietan besta-giroko jantzi sakratu ederragoak erabil daitezke, egunari doakion kolorekoak ez badira ere.

Liturgi koloreei dagokienaz, halere, Apezpikuen Biltzarrek erabaki ditzakete egokitzapenak eta Alki Apostolikoari proposatu, kolore horiek herrialde bakoitzeko beharrian eta asmamenaren arabera izan daitezten.

347. Sakramendu eta Ohikuneetarako Mezetan Meza horri doakion kolorea erabiliko da, edo zuria edo besta-girokoa; Zenbait Beharralditarako Mezetan, egunekoa edo liturgialdiko kolorea, edo ubela penitentzi erranahia dutenean (hala nola, 31., 33. eta 38. Mezetan); eta Deboziozko Mezetan, hautatu den Mezari doakion kolorea, edo egunekoa nahiz aldikoa.

V. ELIZAN ERABILTZEKO DEN BESTE ZENBAIT GAUZA

348. Gai jakinak izendaturik dituzten ontzi eta jantzi sakratuez gainerat, liturgian erabiltzeko¹⁴⁰ edo nolabait elizarako diren beste gauza guziek ere duintasunez eginak eta duten helbururako egokiak izan behar dute.

349. Kontu berezia izan behar da, liturgi liburuak –bereziki Ebanjelio Liburua eta irakurgaiena, Jainkoaren hitza proklamatzeko izanik, errespetu berezia zor zaielako– gauza zerutarren seinale eta sinbolo izan daitezen egiaz liturgi ekintzan eta, beraz, benetan duinak, egokiak eta ederrak.

350. Molde berean, artoski guziz zaindu behar da aldarearekin eta Eukaristiaren ospakizunarekin zuzeneko zerikusia duen guzia, hala nola, aldareko gurutzea eta prozesioan eraman ohi den gurutzea.

351. Ahalegin handia egin behar da garrantzi txikiagoko gauzetan ere, artearen eskabideak onartuak izan daitezen eta garbitasuna eta edertasun apala batean ager dezaten.

VII. KAPITULUA

MEZA ETA HUNEN OSAGIAK HAUTATZEA

352. Ospakizunaren eragin pastoral handituko da, zalantzarik gabe, irakurgai, otoitz eta kanturik egokienak hautatzen badira, parte hartzen dutenen premiak, gogo-prestaera eta izaera gogoan izanik. Hau ongi kausituko da,

geroago erakutsiko den hautu zabala behar bezala erabiltzen bada.

Apezak, beraz, Meza prestatzekoan Jainkoaren herriaren izpirituzko onari begiratu behar dio, bere gogo pertsonalari baino gehiago. Izan beza gogoan, gainerat, Mezako osagaien hautatze hori ospakizunean egiteko bat izanen dutenekin batera egin behar duela, fededunak, hauei dagozkienetan, alde batera utzi gabe.

Eta Mezako osagaietan zer hautatu handia dagoenez geroz, beharrezkoa da, ospakizunaren aitzinetik, diakreak, irakurleak, salmolariak, kantariak, ohargileak eta koralak bakoitzari doakion zatia zein den garbi jakitea, deus utzi gabe tipustapastean egiteko. Zinez, zerikusi handia du ohikunearen osagai guziak erretx eta ongi burutzeak, fededunen gogo-bihotzak Eukaristian parte hartzeko prestatzearekin.

I. ZEIN MEZA HAUTATU

353. Bestaburuetan, Meza emanen den elizako egutegiari jarraitu behar dio apezak.

354. Igandeetan, Abendualdi, Eguberrialdi, Garizuma eta Bazkoaldiko astelegunetan, bestetan eta beharrezko oroimenetan :

a) Meza herriarekin emaitakoa bada, Meza emanen den elizako egutegiari jarraitu behar dio apezak ;

b) Meza laguntzaile batek bakarrik parte hartuz emaitakoa bada, eliza hartako egutegia nahiz bere egutegia hauta dezake apezak.

355. Hautuzko oroimenetan :

a) Abendualdian abenduko hilabetearen 17tik 24ra bitarteko astelegunetan, Eguberri-zortziurrenean eta Garizumako astelegunetan –Hauste-egunean edo Aste Sainduko astelegunetan bereziki– liturgi egunari doakion Meza berezia emanen du apezak ; halere, Egutegi Orokorrean egun hortarako izendaturik egon daitekeen oroimenetik otoitza har dezake, Hauste-eguna edo Aste Sainduko asteleguna ez bada. Bazkoaldiko astelegunetan sailduen oroimenak bere osoan egin daitezke.

b) Abenduko hilabetearen 17a baino lehenagoko Abendualdiko astelegunetan,

Eguberrialdiko astelegunetan urtarrilaren 2tik harat, eta Bazkoaldiko astelegunetan, astelegunari doakion Meza nahiz egun hortan oroimena egiten den sailduaren edo sailduetako baten Meza nahiz egun hortan sailduen zerrendan agertzen den sailduen baten Meza hauta dezake apezak.

c) Urtean Gaindiko astelegunetan, astelegunari doakion Meza nahiz hautuzko oroimenekoa, egun hortan halakorik balitz, nahiz egun hortan sailduen zerrendan agertzen den sailduen batena edo Zenbait Beharralditarako Meza bat nahiz Deboziozko Meza bat hauta dezake apezak.

Meza herriarekin emaithekoa bada, apezak normalki eta arrazoin handirik gabe ez ditu alde batera utzi behar Irakurgaien Liburuak astelegun bakoitzerako dakartzan irakurgaiak, Elizaren gogoia baita, Jainkoaren hitzaren mahaia kristauei oparoago prestatzea.¹⁴¹

Arrazoin horrengatik, hilen aldeko Mezak neurritz hartu behar ditu ; alabainan, edozein Meza bizien eta hilen alde eskaintzen da eta edozein Eukaristi Otoitzetan ere hilen oroimena egiten.

Maria Birjina dohatsuaren hautuzko oroimenari edo sailduen bati fededunek debozio berezia dioten lekuan, horrelako Meza bat noizbehinka eman bedi, bidezkoa den herriaren zaletasuna asetzeko.

Egutegi Orokorreko oroimen baten eta diozesako edo erlijioso-erlijiosen egutegiko beste oroimen baten artean hauta egin daitekeenean, bestelako arrazoinrik ez bada eta tradizioari jarraikiz, lekuko sailduaren oroimena hobetsiko da.

II. MEZAKO OSAGIAK HAUTATZEA

Liturgiari nahiz sailduei dagozkien Meza osagaien testuak hautatzean, ondotik datozen arauak beteko dira.

IRAKURGAIK

357. Igande eta besta-egunetarako hiru irakurgai izendatu dira : Profetarena, Apostoluarena eta Ebanjelioa ; honela, salbamen-egintzaren jarraipena Jainkoaren asmo miragarriaren arabera ikusten irakasten zaio kristau-herriari. Irakurgai hauek derrigorrez proklamatu behar dira. Bazkoaldian, Elizaren tradizioari jarraikiz, Itun Zaharretik hartu ordez, Apostoluen Egintzak liburutik hartu da irakurgaia.

Besta-egunetarako bi irakurgai jarri ohi dira. Baina araei jarraikiz, besta-eguna bestaburu bihurtzen denean, hirugarren irakurgaia erantsiko zaio eta hau Betikotik hartuko da.

Sailduen oroimenetan, irakurgai bereziak ez badituzte, astelegunari dagozkionak proklamatu dira normalki. Zenbait kasutan, sailduari ongi dagozkion eta haren bizitza izpiritualaren edo jardunbidearen alderdi bereziren bat gogoratzen duten irakurgaiak proposatu dira. Baina ez dira baitezpada behar irakurgai hauek proklamatzetu, arrazoin pastoralen batek hala eskatzen ez badu bederen.

358. Irakurgaien Liburuko astelegunetako zatian urte guziko asteetako egun bakoitzerako irakurgaiak datoz ; beraz, irakurgai hauek izendaturik dauden egunean bertan erabiliko dira normalki, bestaburua edo besta egunean ez bada, edo eguneko sailduaren aipamena egiten duen Itun Berriko irakurgai bereziak dituen oroimena.

Halere, aste barneko irakurgaien jarraipena bestaburu, besta-egun edo ospakizun berezi batengatik kentzen bada, apezak badu eskubidea, aste guziko irakurgaien zerrenda gogoan harturik, utzi behar izan zena beste irakurgaiei gehitzeko edo zein testu hautatu erabakitzeko.

Talde bereziendako Mezan apezak badu eskubidea aipatu ospakizun honetarako egokienak diren irakurgaiak hautatzeko, onarturik dagoen Irakurgaien Liburuko pasarteak izanez geroz.

359. Sakramendu nahiz Ohikune Meza emaiten denerako ere bada Liburu Sailduetako irakurgai-sorta berezia, baita Zenbait Beharralditan emaiten diren Mezetarako ere.

Fededunek, Jainkoaren hitzaren zati egokiagoak entzunez, esku hartzen duten misterioa hobeki uler dezaten eta Jainkoaren hitza aintzat gehiago eduki dezaten egin da irakurgaien hauta hau.

Beraz, liturgi biltzarrean irakurriko diren zatiak hautatzeko orduan, ez zaie arrazoin pastoralei bakarrik begiratu behar ; gogoan izan behar da, molde berean, nolako hautamena emaiten den zenbait egokiera berezitarako.

360. Batzuetan bi moldetara emaiten da irakurgai bera : molde luzean eta molde laburragoan. Bietako bat hautatzekoan izan bedi kontuan ikusmolde pastoralak. Irakurgai luzea edo laburragoa probetxuz entzuteko fededunek duten gaitasunari begiratu behar zaio, eta homiliaren bidez argituko den testu osoagoa entzuteko duten gaitasunari.¹⁴²

361. Ezarriak dauden edo hautuan eman diren bi testuren artean hautatzeko parada eman denean, parte-hartzaileen ongiari begiratu behar zaio, eta bildua dagoen biltzarrarentzat errexagoa eta komenigarriagoa izanen dena hautatuko da ; eta probetxu pastoralak hala eskatzen duenean, errepikatu edo utz daiteke testu bat, ospakizun jakin baterako berezi bezala eta beste baterako hautuan emaiten bada.¹⁴³

Hori gertatu ohi da, testu bat bera hurbileko bi egunetan errepikatu behar denean, hala nola, igandean eta ondoko astelegun batean ; edo susmoa dagoenean testu jakin batek zailtasunak sor ditzakeela fededun-talderen batean. Nolanahi ere, kontu izan behar da, Liburu Sainduetako testuak hautatzean pasarte batzuk beti bazterrerara geldu ez daitezen.

362. Lehenago aipatu den testu egokiago batzuk hautatzeko eskubideaz gainerat, eskubidea eman zaie Apezpikuen Biltzarrei kasu jakin batzuetan irakurgai egokiago batzuk adierazteko, betiere legez onartutako Irakurgaien Liburutik hautatuak izatekotan.

OTOITZAK

363. Edozein Mezan, besterik erraiten ez den bitartean, Meza hortarako izendatuak dauden otoitz bereziak erranen dira.

Sainduen oroimenetan Mezako otoitz berezia erranen da ; berezirik ez bada, berriz, doakion Betikotik hartuko da ; oparigaien gaineko otoitza eta jaunartze ondokoa, aldiz, bereziak ez badira, Betikotik edo Aldiko astelegunetik hartuko dira.

Urtean Gaindiko astelegunetan, aitzineko igandeko otoitzak har daitezke, baina baita Urtean Gaindiko beste edozein igandetakoak edo Meza Liburuan Zenbait Beharralditarako Mezetan datozen otoitzak ere.

Honela, testu-bilduma aberatsagoa eskaini da, fededunen otoitza nasaikiago hazteko.

Halere, urteko aldirik nagusienetan, egokitze hau egina dago, Meza Liburuan aldi horietako egun bakoitzerako ezarriak dauden otoitzen bidez.

EUKARISTI OTOITZA

364. Erromako Meza Liburua prefazio berri anitzez aberastu da. Prefazio horien asmoa, Eukaristi Otoitzean eskerrak emaiteko zergatiak molde zabalagoan agertzea eta salbamen-misterioaren alderdi desberdinak argiago ezagutaraztea izan da.

365. Mezaren Egunerokoan emanak dauden Eukaristi Otoitz bat nahiz bestea hautatzeko, ondoko arau hauek betetzea komeni da :

a) I. Eukaristi Otoitza edo Erromako Kanona, nahiz beti erabil daitekeen, **Denek, Eliza osoarekin bat eginik** berezia erran behar den egunetan edo **Huna hemen, Jauna** berezia daukaten Mezetan erabiliko da gehienbat. Baita otoitz hortan aipatzen diren Apostoluen eta sainduen bestetan ere ; igandean orobat, arrazoin pastoralengatik III. Eukaristi Otoitza nahiago ez bada.

b) II. Eukaristi Otoitza, dituen berezitasunengatik, aste barneko egun arruntetan edo egokiera jakinetan erranen da gehienbat. Nahiz bere prefazioa izan, beste zenbait prefaziorekin ere erabil daiteke ; salbamen-misterioa molde laburragoan dakartenekin, bereziki ; hala nola, astelegunetako prefazioekin. Meza hil norbaiten alde emaiten denean, haren aipamen berezia egin daiteke, **Gogoan izan,**

Jauna, (gaur) mundu huntarik eskari berezia erranez, bere lekuan adierazia dagoen bezala.

c) III. Eukaristi Otoitza edozein prefazioekin erabil daiteke. Igandean eta besta-egunetan erabiltzeko da bereziki egokia. Baina Eukaristi Otoitz hau Hilen aldeko Mezetan erabiltzen denerako bada, **Aita guziz ona, ekarri zureganat mundu zabalean barreiatu dabilzan zure seme-alabak** hitzen ondotik, hilaren aldeko eskari berezia, eta **Gogoan izan, Jauna, [gaur] mundu huntarik** otoitza erran daiteke, bere lekuan adierazia dagoen bezala.

d) IV. Eukaristi Otoitzak bere prefazio aldaezina du eta salbamen-historiaren laburpen osoagoa dakar. Mezak bere prefazio berezirik ez duenean eta Urtean Gaindiko igandean erran daiteke. Otoitz huntan, duen egituragatik, ezin daiteke hil baten aldeko eskari berezirik tartekatu.

KANTUAK

366. Mezaren Egunerokoan jarriak dauden kantuak, hala nola, **Jainkoaren Bildotsa**, ez daitezke beste kantu batzuek ordezkatu.

367. Irakurgai arteko, sartzeko, oparigaien aurkezpenarako eta jaunartze ondoko kantuak hautatzean, leku bakoitzean ezartzen diren arauak beteko dira (*ik. 40-41, 47-48, 61-64, 74, 86-88. zk.*).

VIII. KAPITULUA

ZENBAIT EGOKIERATARAKO MEZAK ETA OTOITZAK ETA HILEN ALDEKO MEZAK

I. ZENBAIT EGOKIERATARAKO MEZAK ETA OTOITZAK

368. Sakramendu eta Ohikuneetarako liturgiaren bidez, Bazko-misteriotik datorren jainkozko graziak saildutzen dituen ongi prestatutako fededunen bizitzako gertaerak,¹⁴⁴ eta Eukaristia sakramendurik bikainena izanik,

Meza Liburuak kristau-bizitzako anitz paradatan erabil daitezkeen Meza-moldeak eta otoitzak dakartza, mundu guziaren nahiz Eliza osoaren edo lekuan lekuko Elizaren beharrianak gogoan harturik.

369. Irakurgaiak eta otoitzak hautatzeko eskubidea hain zabala denaz geroz, Zenbait Egokieratarako Mezak neurritsu erabili behar dira, erran nahi baita, egoerak eskatzen duenean.

370. Zenbait Egokieratarako Meza guzietan, besterik zehazki erraiten ez bada, astelegunetako irakurgaiak eta hauen tarteko kantuak erabil daitezke, ospakizunarekin ongi badatoz.

371. Aipatu Meza hauen artean Sakramendu eta Ohikuneetarako Mezak daude, Zenbait Beharralditarakoak eta Deboziazkoak.

372. Sakramendu eta Ohikuneetarako Mezak sakramendu edo ohikuneren baten ospakizunarekin lotuak egoten dira. Galaraziak daude Abendualdi, Garizuma eta Bazkoaldiko igandean, bestaburuetan, Bazko Zortziurrenean, Fededun hil guzien Oroitzapenean, Hauste-egunean eta Aste Sainduko astelegunetan ; bete bitez, gainerat, ohikune-liburuetan edo Meza horietan beretan ezarri arauak.

373. Zenbait Beharralditarako Mezak noizean behin edo zenbait alditan gertatu ohi diren egokiera jakin batzuetan erabiltzekoak dira. Apezpikuen Biltzarrak urte osoan barna ezar ditzakeen galdeak egiteko, eskumena duen agintariak Zenbait Beharralditarako Mezetatik har ditzake.

374. Beharraldi handiren bat edo egokiera pastoral berezia gertatzen denean, egokiena den Meza eman daiteke, diozesako Apezpikuaren aginduz edo baimenez ; eta hau edozein egunetan, baina ez bestaburuetan, ezta Abendualdi, Garizuma eta Bazkoaldiko igandean, Bazko Zortziurrenean, Fededun hil guzien Oroitzapenean, Hauste-egunean eta Aste Sainduko astelegunetan ere.

375. Jaunaren misterioei buruzko nahiz Maria Birjina dohatsuaren, edo aingeruen, saindu baten edo saindu guzien omenez emaiten diren deboziazko Mezak Urtean Gaindiko astelegunetan eman daitezke fededunen debozia

indartzeko, baita hautuzko oroimena gertatzen denean ere. Baina ez daitezke deboziozko bezala eman Jaunaren eta Maria Birjina dohatsuaren bizitzako misterioei dagozkien Mezak, Mariaren Sortze Garbiari doakiona ez bada ; misterio horien ospakizuna liturgi urtearen joan-hariarekin lotua dago.

376. Beharrezko oroimena den egunetan, edo Abendualdiko astelegunetan abenduko hilabetearen 16a arte nahiz Eguberrialdian urtarrilaren 2tik aitzin edo Bazko Zortziurrenez kanpoko Bazkoaldiko astelegunetan, berez galaraziak daude Zenbait Beharralditarako Mezak eta Deboziozkoak. Baina, egiazko beharraldi batek nahiz egokiera pastoralak eskatuz geroz, herriarekin eginen den ospakizunean, elizako arduradun edo meza-emaile den apezaren iritziz, eman daiteke beharraldi horri erantzuten dion Meza.

377. Urtean Gaindiko astelegunetan, nahiz geroz oroimena edo asteleguneko liturgia denean, edozein Meza eman daiteke eta zenbait egokieratarako edozein otoitz erran, baina ez Ohikune Mezarik.

378. Maria sainduaren oroimena «larunbatean» egitea gomendatzen da bereziki, kultu berezia emaiten zaiolako Elizaren liturgian gure Salbatzailearen Amari, saindu guzien aitzinetik eta gainetik.¹⁴⁵

II. HILEN ALDEKO MEZAK

379. Kristoren Bazkoaren eukaristi oparia eskaintzen du Elizak hilen alde, Kristoren gorputz-atal guzien elkartasunari esker batzuei izpirituzko laguntza ekartzen dien bezala, besteei itxaropenaren kontsolamendua eman diezaien.

380. Hilen aldeko Mezen artean, Ehorzketa Meza da nagusiena ; hau egun guzietan eman daiteke, ondoko hauetan salbu : besta oso diren bestaburuetan, Ortzegun Sainduan, Bazko Hirurrenean eta Abendualdi, Garizuma eta Bazkoaldiko igandeetan, betiere, zuzenbidearen xedapenen arabera begiratu beharrekoak begiratu.¹⁴⁶

381. Heriotzaren albistea hartu eta edo gorpua hilobiratzen denean edo urtemugan eman

daiteke hilen aldeko Meza, baita Eguberri Zortziurrenean, beharrezko oroimena denean eta astelegunetan ere, baina ez Hauste Egunean edo Aste Sainduko egunetan.

Hilen aldeko beste Mezak, «egunerokoak» deitzen direnak, Urtean Gaindiko astelegunetan eman daitezke, astelegun hauetan hautuzko oroimena edo asteleguneko elizkizuna denean, baldin eta zinez hilen alde emaiten badira.

382. Ehorzketa Mezan egin bedi normalkihomilia labur bat, baina hilaren gorespen-hitzaldirik egin gabe.

383. Dei egin bekie fededunei, bereziki hilaren haurrideei, haren alde eskaintzen den eukaristi oparian jaunartuz esku hartzera.

384. Hilobiratzea Ehorzketa Meza ondotik egiten denean, jaunartze ondoko otoitza erran eta, utziko da bukaerako ohikune guzia eta, horren orde, hila Jaunari aurkeztea edo azken agurra eginen da ; ohikune hau gorpua aitzinean dagoenean bakarrik eginen da.

385. Hilen aldeko Mezako osagaiak, bereziki Ehorzketa Mezakoak, hautatzean –hala nola, otoitzak, irakurgaiak, Jainkoaren herriaren otoitza, etab.–, izan bedi gogoan, bidezkoa denez, hilarentzat, ahaideentzat eta bertan diren fededunentzat onuragarri izaita ikuspegi pastoraletik.

Eliz artzainek har bitzate kontuan ardura handiz, hiletak direla-eta liturgi ospakizunetara eta Ebanjelioa entzutera datozenak ; agian, kato liko ez direnak nahiz Eukaristiara inoiz ere ez datozenak izan daitezke ; edo oso gutxitan da tozen katoliko epelak nahiz fedea bera ere galdua dutela iduri dutenak ; Kristoren Ebanjelioaren zerbitzari da apeza guzientzat.

IX. KAPITULUA

APEZPIKUEI ETA HAIEN BILTZARREI DAGOZKIEN EGOKITZAPENAK

386. Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoak eman dekretuen arabera gure garaiotan moldatua izan den Erromako Meza Liburuan arta handia jarri izan da beti, eukaristi ospakizunean fededun guziek parte-hartze betea, ohartua eta ekintzazkoa izan dezaten ; hain zuzen, liturgiaren izaerak berak eskatzen du hori eta fededunek berek ere eskubide eta eginkizun dute hori, beren izaeraz.¹⁴⁷

Ospakizunak liturgia sakratuaren arauak eta izpirituari hobeki erantzun diezaien, zenbait egokitzapen proposatu da Antolaketa huntan eta Mezaren Egunerokoan ; diozesako Apezpikuaren edo Apezpikuen Biltzarren ikus moldearen esku jarri dira aipatu egokitzapenak.

387. Bere artaldearen apez nagusitzat hartu behar den diozesako Apezpikuaren baitan eta haren esku dago nolabait fededunen bizitza Kristoren baitan ;¹⁴⁸ berari dagokio liturgi bizitza bera diozesan sustatzea, antolatzea eta zaintzea. Antolaketa Orokor huntan haren esku jarri da elkarmezaren antolatzea (*ik. 202 eta 374. zk.*), arauak ezartzea aldarean apezari laguntzeko eginkizunari buruz (*ik. 107. zk.*), gure Jauna ogi-arnoek itxurapean emaiterari buruz (*ik. 283. zk.*) eta elizak eraiki eta moldatzeari buruz (*ik. 291. zk.*). Baina, lehenik eta behin, liturgia sakratuaren izpiritua apezaren baitan, diakreen baitan eta fededunen baitan sustatzea dagokio diozesako Apezpikuari.

388. Hemen ondotik aipatzen diren eta koordinaketa gehiago eskatzen duten beste egokitzapenak Apezpikuen Biltzarrek zehaztu beharrekoak dira, zuzenbidearen arauak dioten moldean

389. Apezpikuen Biltzarrei dagokie, lehenik eta behin, Erromako Meza Liburu hau ontzat eman herri-hizkuntzetan prestatzea, onartzea eta argitaratzea, Alki Apostolikoak bere oniritzia eman ondoan, haiei dagozkien herrialdeetan erabilia izan dadin.¹⁴⁹

Erromako Meza Liburua, latinez nahiz herri-hizkuntzetara egindako eta legez onarturiko itzulpenetan, osorik argitaratu behar da.

390. Apezpikuen Biltzarrei dagokie egokitzapenak erabakitzea eta, Alki Apostolikoak bere oniritzia eman ondoan, Meza Liburuan sartzea ; hauek dira Antolaketa Orokor huntan eta Mezaren Egunerokoan adierazten direnak : fededunen keinuak eta gorputz-jarrerak (*ik. lehenago, 43. zk.*) ; aldareari eta Ebanjelio Liburuari egin beharreko errespetu-keinuak (*ik. lehenago, 273. zk.*) ; sartzeko, oparigaien aurkezpeneko eta jaunartzeko kantuen testuak (*ik. lehenago, 48, 74 eta 87. zk.*) ; egokiera berezietan Liburu Sainduetatik hartu behar irakurgaiak (*ik. lehenago, 362. zk.*) ; elkarri bakea emaiteko moldea (*ik. lehenago, 82. zk.*) ; gure Jauna hartzeko moldea (*ik. lehenago, 160 eta 283. zk.*) ; aldarea eta tresneria sakratua egiteko gai egokiak, bereziki ontzi sakratuenak, eta liturgiako jantziak egiteko gaia, moldea eta kolorea (*ik. lehenago, 301, 326, 329, 339 eta 342-346. zk.*) ; Apezpikuen Biltzarrek egoki deitzen dituzte Argibideak edo Irakaspen pastoralak, Alki Apostolikoak bere oniritzia eman eta, Meza Liburuan sartu ahal izanen dira, leku egokian.

391. Apezpikuen Biltzarrei dagokie, Mezaren ospakizunean erabiliko diren pasarte biblikoen itzulpena arta bereziz zaintzea. Hain zuzen, Liburu Sainduetatik hartu zatiak irakurtzen dira eta horien argitzea egiten homilian, salmoak kantatzen, eta horien arnasa eta zentzua daramaten eskariak, otoitzak eta kantu liturgikoak egiten dira, eta ekintza eta ezaugarriek ere Liburu Saindutik hartzen dute beren erranahia.¹⁵⁰

Erabiliko den hizkerak fededunek ulertzeko modukoa izan behar du, eta jenden aitzinean proklamatzeko egokia, Bibliako liburuetan erabili ohi diren hizkera desberdinak bereziz.

392. Molde berean, Apezpikuen Biltzarrei dagokie gainerako testuen itzulpena ere arta handiz prestatzea, hizkuntza bakoitzaren nortasun berezia errespetatuz, latinezko jatorrizko testuaren erranahia bere osoan eta leialki emana izan dadin. Itzulpen hauek egitean kontuan izan behar dira Mezakoan erabili ohi diren hizkera

desberdinak, adibidez, biltzarburuaren otoitzak, antifonak, gorapenak, erantzunak, litani eskariak, etab.

Ez da ahantzi behar, testuen itzulpenak ez direla, lehenik eta behin, gogoetarako, baizik ospakizuneko ekintzan jenden aitzinean proklamatzeko edo kantuan erabiltzeko.

Erabiliko den hizkerak herrialdeko fededunei dagokiena izan behar du, baina aldi berean duina eta literatur ikuspegitik kalitatezkoa ; betiere beharrezko izanen da zenbait hitz eta errana diren erranahi biblikoari eta kristauari buruzko katekesia egitea.

Hizkuntza bera duten herrialdeetan itzulpen bera izaitea komeni da, ahal den neurrian, testu liturgikoei dagokienez, eta bereziki testu biblikoari eta Mezaren Egunerokoari dagokienaz.¹⁵¹

393. Kontuan izanik ospakizuneari kantuak, liturgiaren zati beharrezkoa eta osagarria delako, duen garrantzia,¹⁵² Apezpikuen Biltzarrei dagokie kantuen doinuak onartzea, bereziki Mezaren Eguneroko testuentzat, herriak eman behar dituen erantzun eta gorapenentzat, eta liturgi urtean gaindi izan ohi diren ohikune berezientzat.

Molde berean, beraiei dagokie Jainkoaren kultuan zein musika-mota, doinu eta musikagailu erabil daitekeen erabakitzea, ekintza sakratuetarako zinez egokiak izan daitezten.

394. Diozesa bakoitzak bere liturgi eta Mezen Egutegi Berezia izaitea komeni da. Apezpikuen Biltzarrak, berriz, nazioko Egutegi Berezia egin behar du bere aldetik nahiz lurralde zabalagoa hartzen duen egutegia, gainerako Biltzarrekin batean ; Egutegi honi Alki Apostolikoak eman beharko dio oniritzia.¹⁵³

Lan hori egitekoan, artarik handiena jarri behar da igandea bete eta kantatzen, lehenasuna duen besta-eguna denez ; horrengatik, igandeari gaitetik ez da beste ospakizun jarri behar, guziz garrantzitsua ez bada bederen.¹⁵⁴ Molde berean, kontu izan bedi, Vatikanoko II. Kontzilioak dekretuz onartutako liturgi urtea bigarren mailako osagaiak sartuz ilundurik utzi ez dadin.

Nazioko egutegia egitekoan Errogazio-egunak eta urteko lau Tenporetakoak zehaztu behar dira (*ik.* 373. zk.), baita ospakizun horiek zein moldetan egin behar diren, horietan erabiliko diren testuak¹⁵⁵ eta gainerako xedapen bereziak ere.

Meza Liburua argitaratzekoan, Egutegi Orokorrean dagokien lekuan sartzeari komeni da nazio edo lurralde osorako diren ospakizunak ; herrialde edo diozesa batekoak direnak, berriz, gehigarri berezi batean jarriko dira.

395. Azkenik, fededunen parte-hartzeak edo haien probetxu izpiritualak aldaketa nahiz egokitzapen sakonagoak egitea eskatuko balu, ospakizun sakratua herri desberdinen izpiritura eta tradizioa hobeki egokitu dadin, Apezpikuen Biltzarrek proposamenak egiten ahalko dituzte Alki Apostolikora, liturgia sakratuari buruzko Konstituzioaren 40. zenbakian errana dagoenaren arabera, eta hunen oniritziarekin Meza Liburuan sartu ere bai, bereziki Ebanjelioaren proklamapena entzun berria duten herrien faboretan.¹⁵⁶ Kontuan har bitez artoski «*Erromatar liturgia eta inkulturazioa*» Irakaspeneari emanak dauden arau bereziak.¹⁵⁷

Gai honi doakionean, honela jokatu da.

Lehenik, xeheki adieraziko zaio Alki Apostolikoari egin nahi dena, hango baimena lorturik, egokitzapen bakoitza lantzen joateko.

Proposamen hauei Alki Apostolikoak bere oniritzia eman ondoan, epe eta leku jakinetan erabiliko dira esperientzia moduan. Gauza ondo badoa, Apezpikuen Biltzarrak, epea bukatutakoan, egokitzapenarekin jarraitzeko erabakia hartzen ahalko du eta Alki Apostolikoaren eskura jarriko, azken formulazioa eman diezaion.¹⁵⁸

396. Egokitzapen berriak, bereziki sakonagoak, egiten hasi aitzin, benetako ahalegina egin beharko da, kleroari eta fededunei heziera emaiten molde jakintsu eta ordenatuan, lehenik emanak dauden eskubideak egikaritzen eta ospakizunaren izpirituari dagozkion arau pastoralak ondo betetzen.

397. Atxiki behar den printzipioa da, Eliza partikular bakoitzak bat egina egon behar duela Eliza unibertsalarekin ; batasun horrek ez du fedeari buruzko doktrinari eta sakramenduen

ezaugarriei dagokiena bakarrik izan behar ; mundu guzian onartuak diren Apostoluengandiko eta etengabeko tradiziozko ohiturei dagokiena ere izan behar du ; beharrezkoa da, zinez, tradizio eta ohitura horiek zaintzea, alde batetik, okerreko doktrinak saihesteko eta, bestetik, fedea bere osotasunean transmititzeko, Elizaren otoitz-legeak fede-legearen arabera izan behar baitu.¹⁵⁹

Erromako ohikunea Eliza katolikoak duen liturgi altxorraren eta ontasunaren zati garrantzitsua eta ederra da ; aberastasun hori Eliza unibertsalari doakion ontasuna da ; horrengatik, hori galtzeak kalte handia ekarriko lioke.

Erromako ohikunea ez da Erromako hirian sortu liturgi ohikuneak zaintzeaz bakarrik arduratu ; beste herrialde eta Mendebaldeko nahiz Ekialdeko Eliza partikularretako ohitura eta asmamenetik sortutako beste hainbat ohikune ere bereganatu du molde sakon, organiko eta egokian, horrela lurralde batekoa baino izaera zabalagoa hartuz. Gure garaiotan, Erromako ohikune horren nortasunaren eta batasunaren adierazgarria Aita Sainduaren aginduz argitaratuak diren liturgi liburuetan dago, eta horien itzulpen diren liturgi liburuetan, Apezpikuen Biltzarrek beren lurraldeetarako onartu eta Alki Apostolikoak bere oniritzia eman dietenetan.¹⁶⁰

398. Erromako ohikunearen inkulturazioa egin nahi denean ere, Vatikanoko II. Kontzilioak ezarri araua bete behar da,¹⁶¹ hau da, liturgiaren eraberrikuntza egitekoan ez direla aldaketak sartu behar, baldin eta egiazkoa eta ziurra den Elizaren probetxuak hala eskatzen ez badu, eta kontu handia izan behar dela forma berriak lehendik ezagunak diren formatatik organikoki sortuak izan daitezten.¹⁶² Inkulturazioak, bestalde, gutxieneko epe bat eskatzen du, gauzak presaka eta artarik gabe egiteagatik liturgi tradizio jatorra ez hondatzeko.

Inkulturazioa egin nahi izateak ez du erran nahi ohikune-familia berriak sortu behar direnik ; kultura jakin batek izan ditzakeen premiei erantzutea da helburua ; baina Meza Liburuan edo beste liturgi liburuetan sartu egokitzapenak Erromako ohikuneari kalterik

ez egiteko moduan egin behar da inkulturatzelana.¹⁶³

399. Beraz, hizkuntza-desberdintasuna eta kultura-aniztasuna onarturik ere,¹⁶⁴ Erromako ohikunearen osotasunaren eta batasunaren tresna eta ezaugarri argi izan behar du etorkizunean Erromako Meza Liburuak.¹⁶⁵

- 1 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Biltzarraldia (1562.09.17) : Denz.-Schönm. 1738-1759.
- 2 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 47. zk. ; ik. Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 3 eta 28. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2, 4 eta 5. zk.
- 3 Jaunaren Afariko arratsaldeko Meza, oparigaien gaineko otoitza. Ik. Sacramentarium Veronense, L.C. Mohlberg-en argitarapena, 93. zk.
- 4 Ik. III. Eukaristi Otoitza.
- 5 Ik. IV. Eukaristi Otoitza.
- 16 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 7 eta 47. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5 eta 18. zk.
- 17 Ik. PIO XII.a, Humani generis Entziklika (1950.08.12) : A.A.S. 42 (1950), 570-571. or. ; PAULO VI.a, Mysterium fidei Entziklika (1965.09.03) : A.A.S. 57 (1965), 762-769. or. ; Sollemnis professio fidei (1968.06.30), 24-26. zk. : A.A.S. 60 (1968), 442-443. or. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 3f eta 9. zk. : A.A.S. 59 (1967), 543 eta 547. or.
- 18 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XIII. Biltzarraldia (1551.10.11) : Denz.-Schönm. 1635-1661.
- 19 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2. zk.
- 10 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 11. zk.
- 11 Ibid., 50. zk.

- 12 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Biltzarraldia, Mezako Opari Sainduari buruzko Irakaspena, 8. kap. : Denz.-Schönm. 1749.
- 13 Ibid., kan. 9 : Denz.-Schönm. 1759.
- 14 Ibid., 8. kap. : Denz.-Schönm. 1749.
- 15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 33. zk.
- 16 Ibid., 36. zk.
- 17 Ibid., 52. zk.
- 18 Ibid., 35. zk., § 3.
- 19 Ibid., 55. zk.
- 20 TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Biltzarraldia, Mezako Opari Sainduari buruzko Irakaspena, 6. kap. : Denz.-Schönm. 1747.
- 21 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 55. zk.
- 22 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 41. zk. ; Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 11. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2, 5 eta 6. zk. ; Christus Dominus Apezpikuek Elizan duten zeregin pastoralari buruzko Dekretua, 30. zk. ; Unitatis redintegratio ekumenismoari buruzko Dekretua, 15. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 3e eta 6. zk. : A.A.S. 59 (1967), 542 eta 544-545. or.
- 23 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 10. zk.
- 24 Ik. ibid., 102. zk.
- 25 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 10. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk.
- 26 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 14, 19, 26, 28 eta 30. zk.
- 27 Ik. ibid., 47. zk.
- 28 Ik. ibid., 14. zk.
- 29 Ik. ibid., 41. zk.
- 30 Ik. Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 13. zk. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 904.
- 31 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 59. zk.
- 32 Mezaren ospakizun berezietan bete bedi agindua dagoena : ik. Talde berezietarako Mezak : JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Actio pastoralis Irakaspena (1969.05.15) : A.A.S. 61 (1969), 806-811. or. ; haurrekin emaiten diren Mezetarako : Haurrekin emaiten diren Mezetarako Argibideak (1973.11.01) : A.A.S. 66 (1974), 30-46. or. ; Orduetako Liturgia Mezarekin elkartzeko erari buruz : Orduetako Liturgiaren Antolaketa Orokorra, 93-98. zk. ; zenbait benedikapen eta Maria Birjina dohatsuaren irudia koroatzea Mezarekin elkartzeko erari buruz : ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De Benedictionibus, ed. typ., 1984, Antolaketa Orokorra 28. zk. ; Maria Birjina dohatsua Koroatzeko Ohikune Liburua, ed. typ., 1981, 10 eta 14. zk.
- 33 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Christus Dominus Apezpikuek Elizan duten zeregin pastoralari buruzko Dekretua, 15. zk. ; ik. baita ere Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 41. zk.
- 34 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 22. zk.
- 35 Ik., baita ere, VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 38 eta 40. zk. ; Paulo VI.a, Missale Romanum Konstituzio Apostolikoa, ik. lehenago.
- 36 JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, Varietates Legitimæ Irakaspena (1994.01.25) : A.A.S. 87 (1995), 288-314. or.
- 37 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk. ; Sacrosanctum Concilium Liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 33. zk.
- 38 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXII. Biltzarraldia, Mezako Opari Sainduari buruzko Irakaspena, 1. kap. : Denz.-Schönm. 1740 ; ik. PAULO VI.a, Sollemnis professio fidei (1968.06.30), 24. zk. : A.A.S. 60 (1968), 442. or.
- 39 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 7. zk. ; PAULO VI.a, Mysterium fidei Entziklika (1965.09.03) : A.A.S. 57 (1965), 764. or. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 9. zk. : A.A.S. 59 (1967), 547. or.
- 40 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 56.

- zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 3. zk. : A.A.S. 59 (1967), 542. or.
- 41 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 48 eta 51. zk. ; Dei Verbum Jainkoaren agerpenari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 21. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 4. zk.
- 42 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 7, 33 eta 52. zk.
- 43 Ik. *ibid.*, 33. zk.
- 44 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 14. zk. : A.A.S. 59 (1967), 304. or.
- 45 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 26 eta 27. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 3d zk. : A.A.S. 59 (1967), 542. or.
- 46 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 30. zk.
- 47 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 16a zk. : A.A.S. 59 (1967), 305. or.
- 48 HIPONAKO SAN AGUSTIN, Sermo 336, 1 : PL 38, 1472.
- 49 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 7 eta 16. zk. : A.A.S. 59 (1967), 302 eta 305. or.
- 50 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 116. zk. ; *ik. ibid.*, 30. zk. ere.
- 51 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 54. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 59. zk. : A.A.S. 56 (1964), 891. or. ; Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 47. zk. : A.A.S. 59 (1967), 314. or.
- 52 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 30 eta 34. zk. ; *ik. ibid.*, 21. zk. ere.
- 53 Ik. *ibid.*, 40. zk. ; JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, Varietates legitimæ Irakaspena (1994.01.25), 41. zk. : A.A.S. 87 (1995), 304. or.
- 54 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 30. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena, (1967.03.05), 17. zk. : A.A.S. 59 (1967), 305. or.
- 55 Ik. JOAN PAULO II.a, Dies Domini Gutun Apostolikoa (1998.05.31), 50. zk. : A.A.S. 90 (1998), 745. or.
- 56 Ik. geroago, 1285-1288. or.
- 57 Ik. TERTULIANO, Adversus Marcionem, IV., 9 : CCSL 1, 560. or. ; Origenes, Disputatio cum Heracleida, 4. zk., 24 : SCh 67, 62. or. ; Statuta Concilii Hipponensis Breviata, 21 : CCSL 149, 39. or.
- 58 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 33. zk.
- 59 Ik. *ibid.*, 7. zk.
- 60 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA, Ordo lectionum Missæ, ed. typ. altera, 1981, 28. zk.
- 61 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 51. zk.
- 62 Ik. JOAN PAULO II.a, Vicesimus quintus annus Gutun Apostolikoa (1988.12.04), 13. zk. : A.A.S. 81 (1989), 910. or.
- 63 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 52. zk. ; *ik. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea*, kan. 767 § 1.
- 64 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 54. zk. : A.A.S. 56 (1964), 890. or.
- 65 Ik. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 767 § 1 ; ZUZENBIDE KANONIKOAREN KODEA ONGI INTERPRETATZEKO BATZORDE PONTIFIZIOA, kan. 767 § 1aren inguruko zalantzari erantzuna : A.A.S. 79 (1987), 1249. or. ; Ecclesiæ de mysterio apezten ministerioan fededun laikoek izan dezaketen lankidetzari buruzko zenbait eztabaidaren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 3. art. : A.A.S. 89 (1997), 864. or.
- 66 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 53. zk. : A.A.S. 56 (1964), 890. or.
- 67 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 53. zk.

- 68 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 56. zk. : A.A.S. 56 (1964), 890. or.
- 69 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 47. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 3ab zk. : A.A.S. 59 (1967), 540-541. or.
- 70 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 91. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or. ; Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 24. zk. : A.A.S. 59 (1967), 554. or.
- 71 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 48. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 12. zk. : A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.
- 72 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 48. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezan ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 12. zk. : A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.
- 73 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 31 eta 32. zk. : A.A.S. 59 (1967), 558-559. or. ; SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Immensæ caritatis Irakaspena (1973.01.29), 2. zk. : A.A.S. 65 (1973), 267-268. or.
- 74 Ik. SAKRAMENDUETARAKO ETA JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inæstimabile donum Irakaspena (1980.04.03), 17. zk. : A.A.S. 72 (1980), 338. or.
- 75 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 26. zk.
- 76 Ik. *ibid.*, 14. zk.
- 77 Ik. *ibid.*, 28. zk.
- 78 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 26 eta 28. zk. ; Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 42. zk.
- 79 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 26. zk.
- 80 Ik. Cæremoniale Episcoporum, 175-186. zk.
- 81 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 28. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezan ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 2. zk.
- 82 Ik. PAULO VI.a, Sacrum diaconatus Ordinem Gutun Apostolikoa (1967.06.18) : A.A.S. 59 (1967), 697-704. or. ; ERROMAKO PONTIFIKAL LIBURUA, De Ordinatione Episcopi, presbyterorum et diaconorum, ed. typ. altera, 1989, 173. zk.
- 83 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 48. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 12. zk. : A.A.S. 59 (1967), 548-549. or.
- 84 Ik. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 910 § 2 ; Ecclesiæ de mysterio apezan ministerioan fededun laikoek izan dezaketen lankidetzari buruzko zenbait eztabaidaren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 8. art. : A.A.S. 89 (1997), 871. or.
- 85 Ik. SakramenduEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Immensæ caritatis (1973.01.29), 1. zk. : A.A.S. 65 (1973), 265-266. or. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 230 § 3.
- 86 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 24. zk.
- 87 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 19. zk. : A.A.S. 59 (1967), 306. or.
- 88 Ik. *ibid.*, 21. zk. : A.A.S. 59 (1967), 306-307. or.
- 89 Ik. LEGEEN TESTUAK INTERPRETATZEKO KONTSEILU PONTIFIZIOA, kan. 230 § 2.ari buruz adierazitako zalantzari erantzuna : A.A.S. 86 (1994), 541. or.
- 90 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 22. zk.
- 91 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 41. zk.
- 92 Ik. Cæremoniale Episcoporum, 119-186. zk.
- 93 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 42. zk. ; Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 28. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezan ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO

- SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 26. zk. : A.A.S. 59 (1967), 555. or.
- 94 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 47. zk. : A.A.S. 59 (1967), 565. or.
- 95 Ik. *ibid.*, 26. zk. : A.A.S. 59 (1967), 555. or. ; Musicam sacram Irakaspena (1967.03.05), 16 eta 27. zk. : A.A.S. 59 (1967), 305 eta 308. or.
- 96 Ik. Ecclesiae de mysterio apezten ministerioan fededun laikoek izan dezaketen lankidetzari buruzko zenbait eztabaidaren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 6. art. : A.A.S. 89 (1997), 869. or.
- 97 Ik. SAKRAMENDUETARAKO ETA JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inaestimabile donum Irakaspena (1980.04.03), 10. zk. : A.A.S. 72 (1980), 336. or. ; Ik. Ecclesiae de mysterio apezten ministerioan fededun laikoek izan dezaketen lankidetzari buruzko zenbait eztabaidaren inguruan dikasterio arteko Irakaspena (1997.08.15), 8. art. : A.A.S. 89 (1997), 871. or.
- 98 Ik. geroago gehigarria, Gure Jauna emaiteko laguntzailea «ad actum» izendatzeko Ohikunea, 1289. or.
- 99 Ik. Cæremoniale Episcoporum, 1118-1121. zk.
- 100 Ik. PAULO VI.a, Ministeria quædam Gutun Apostolikoa (1972.08.15) : A.A.S. 64 (1972), 532. or.
- 101 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 57. zk. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 902.
- 102 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 47. zk. : A.A.S. 59 (1967), 566. or.
- 103 Ik. *ibid.*, 565. or.
- 104 Ik. BENEDIKTO XV.a, Incruentum altaris sacrificium Konstituzio Apostolikoa (1915.08.10) : A.A.S. 7 (1915), 401-404. or.
- 105 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 32. zk. : A.A.S. 59 (1967), 558. or.
- 106 Ik. TRENTOKO KONTZILIO EKUMENIKOA, XXI. Biltzaraldia (1562.07.16), jaunartze eukaristikoari buruzko Dekretua, 1-3. kap. : Denz.-Schönm. 1725-1729.
- 107 Ik. *ibid.*, 2. kap. : Denz.-Schönm. 1728.
- 108 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 122-124. zk. ; Presbyterorum Ordinis apezten ministerioari eta bizitzari buruzko Dekretua, 5. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 90. zk. : A.A.S. 56 (1964), 897. or. ; Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 24. zk. : A.A.S. 59 (1967), 554. or. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 932 § 1.
- 109 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 123. zk.
- 110 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 24. zk. : A.A.S. 59 (1967), 554. or.
- 111 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 123 eta 129. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 13c zk. : A.A.S. 56 (1964), 880. or.
- 112 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 123. zk.
- 113 Ik. *ibid.*, 126. zk. ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 91. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or.
- 114 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 97-98. zk. : A.A.S. 56 (1964), 899. or.
- 115 Ik. *ibid.*, 91. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or.
- 116 Ik. *ibid.*
- 117 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 96. zk. : A.A.S. 56 (1964), 899. or.
- 118 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Irakurtoki berriaren benedikapena, 900-918. zk.
- 119 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 92. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or.
- 120 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Biltzarburuaren alkiaren benedikapena, 880-899. zk.
- 121 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Inter Œcumenici Irakaspena (1964.09.26), 92. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or.
- 122 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 32. zk.
- 123 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Musicam sacram Irakaspena

- (1967.03.05), 23. zk. : A.A.S. 59 (1967), 307. or.
- 124 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Organoaren benedikapena, 1052-1067. zk.
- 125 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 54. zk. : A.A.S. 59 (1967), 568. or. ; Inter Cœumenici Irakaspena (1964.09.26), 95. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or.
- 126 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 52. zk. : A.A.S. 59 (1967), 568. or. ; Inter Cœumenici Irakaspena (1964.09.26), 95. zk. : A.A.S. 56 (1964), 898. or. ; SakramenduETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Nullo unquam tempore (1938.05.28), 4. zk. : A.A.S. 30 (1938), 199-200. or. ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam, ed. typ., 1973, 10-11. zk. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 938 § 3.
- 127 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Eukaristia betetzeko tabernakle berriaren benedikapena, 919-929. zk.
- 128 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 55. zk. : A.A.S. 59 (1967), 569. or.
- 129 Ibid., 53. zk. : A.A.S. 59 (1967), 568. or. ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam, ed. typ., 1973, 9. zk. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 938 § 2 ; JOAN PAULO II.a, Dominicæ Cenæ Gutuna (1980.02.24), 3. zk. : A.A.S. 72 (1980), 117-119. or.
- 130 Ik. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 940 ; OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Eucharisticum mysterium Irakaspena (1967.05.25), 57. zk. : A.A.S. 59 (1967), 569. or. ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De sacra communione et de cultu mysterii eucharistici extra Missam, ed. typ., 1973, 11. zk.
- 131 Ik., bereziki, SAKRAMENDUETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Nullo unquam tempore (1938.05.28) : A.A.S. 30 (1938), 198-207. or. ; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 934-944.
- 132 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 8. zk.
- 133 Ik. PONTIFICALE ROMANUM, Ordo Dedicacionis ecclesiæ et altaris, ed. typ., 1977, IV. kap., 10. zk. ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Fededunen gurtzarako ipintzen diren irudien benedikapena, 984-1031. zk.
- 134 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 125. zk.
- 135 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 128. zk.
- 136 Ik. PONTIFICALE ROMANUM, Ordo Dedicacionis ecclesiæ et altaris, ed. typ., 1977, Kalizaren eta patenaren benedikapena ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Liturgi ospakizunetan erabiltzekoak diren tresnen benedikapena, 1068-1084. zk.
- 137 Ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, Liturgi ospakizunetan erabiltzekoak diren tresnen benedikapena, 1070. zk.
- 138 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 128. zk.
- 139 Ik. ibid.
- 140 Liturgian erabiltzeko eliz etxeetan betetzen diren gauzen benedikapenaz, ik. ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, De benedictionibus, ed. typ., 1984, III. atala.
- 141 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 51. zk.
- 142 ERROMAKO MEZA LIBURUA, Ordo lectionum Missæ, ed. typ. altera, 1981, Antolaketa Orokorra, 80. zk.
- 143 Ibid., 81. zk.
- 144 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 61. zk.
- 145 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Lumen gentium Elizari buruzko Konstituzio dogmatikoa, 54. zk. ; PAULO VI.a, Marialis cultus Aholku Hitz Apostolikoa (1974.02.02), 9. zk. : A.A.S. 66 (1974), 122-123. or.
- 146 Ik., bereziki, Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 1176-1185 ; ERROMAKO OHIKUNE LIBURUA, Ordo Exsequiarum, ed. typ., 1969.
- 147 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 14. zk.
- 148 Ik. ibid., 41. zk.
- 149 Ik. Zuzenbide Kanonikoaren Kodea, kan. 838 § 3.
- 150 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 24. zk.

- 151 Ik. *ibid.*, 36. zk. § 3.
- 152 Ik. *ibid.*, 112. zk.
- 153 Ik. *Normæ Universales de Anno liturgico et de Calendario*, 48-51. zk., hemen geroago, 71-72. or. ; JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Calendaria particularia Irakaspena* (1970.06.24), 4 eta 8. zk. : A.A.S. 62 (1970), 652-653. or.
- 154 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa*, 106. zk.
- 155 Ik. *Normæ Universales de Anno liturgico et de Calendario*, 46. zk., hemen geroago, 71. or. ; JAINKOAREN GURTZARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, *Calendaria particularia Irakaspena* (1970.06.24), 38. zk. : A.A.S. 62 (1970), 660. or.
- 156 VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa*, 37-40. zk.
- 157 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, *Varietates legitimæ Irakaspena* (1994.01.25), 54 eta 62-69. zk. : A.A.S. 87 (1995), 308-309 eta 311-313. or.
- 158 Ik. *ibid.*, 66-68. zk. : A.A.S. 87 (1995), 313. or.
- 159 Ik. *ibid.*, 26-27. zk. : A.A.S. 87 (1995), 298-299. or.
- 160 Ik. JOAN PAULO II.a, *Vicesimus quintus annus Gutun Apostolikoa* (1988.12.04), 16. zk. : A.A.S. 81 (1989), 912. or. ; JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, *Varietates legitimæ Irakaspena* (1994.01.25), 2 eta 36. zk. : A.A.S. 87 (1995), 288 eta 302. or.
- 161 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO ETA SAKRAMENDUEN ARAUBIDERAKO KONGREGAZIOA, *Varietates legitimæ Irakaspena* (1994.01.25), 46. zk. : A.A.S. 87 (1995), 306. or.
- 162 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa*, 23. zk.
- 163 Ik. *ibid.*, 36. zk. : A.A.S. 87 (1995), 302. or.
- 164 Ik. *ibid.*, 54. zk. : A.A.S. 87 (1995), 308-309. or.
- 165 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA, *Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa*, 38. zk. ; PAULO VI.a, *Missale Romanum Konstituzio Apostolikoa* : ik. hemen lehenago, 4. or.

MYSTERII PASCHALIS

IDAZKI APOSTOLIKOA «MOTU PROPRIO» MOLDUZ EMANA

LITURGI URTEAZ ARAU OROKORRAK
ETA ERROMAKO EGUTEGI BERRI OROKORRA
ONARTUAK

PAULO VI.a AITA SAINDUAK

BAZKO MISTERIOAREN ospakizunak kristau-kultuan garrantzirik handiena duela eta misterio hori egunen, asteen eta urte osoaren joan-etorrian azaltzen dela argi eta garbi irakatsi digu Vatikanoko II. Kontzilioak. Horrengatik, Kontzilioak emandako araei jarraikiz¹ liturgi urtea eraberritzean, argiago jarri behar da Kristoren Bazko-misterioa, bai Aldiko Berezia eta Sainduen Berezia eratzekoan, bai Erromako Egutegia berrikustekoan.

I

Egia erran, mendeen joanean hara zer gertatu den: gaubeilak, bestak eta zortziurreneko ospakizunak ugaltu direlako eta liturgi urtean beste zer batzuk sartu direlako, fededunek, batzuetan, debozio-egintza bereziak gauzatu dituzte, eta, horrengatik, haien gogoak inoiz Jainkoaren erospeneko misteriorik garrantzitsuenetatik aldentu dira.

Edonork daki Gure Aitzinetiko Pio X.a sainduak eta Joan XXIII.a gogoangarriak zenbait arau eman dutela, igandeari berritz jatorrizko bere duintasuna itzultzeko –igandea «lehenetasuna duen besta-eguntzat»² eduki behar baitute guziek egiaz eta berez– eta Garizuma sainduaren liturgi ospakizuna eratzeko. Molde berean, guziek dakigu Gure Aitzinetiko Pio XII.a gogoangarriak Mendebaldeko Elizarentzat Bazko Gaubeila nagusia eraberritzea erabaki zuela;³ Gaubeila hortan, Jainkoaren herriak, kristau-sarbideko sakramenduak ospatuz, berritzen du Kristo Jaun berpiztuarekiko elkartasun Izpirituala.

Aita Saindu hauek, Eliz Guraso sainduen irakatsiei eta Eliza katolikoaren tradizioari adoretu jarraikiz, bide zuzenean zebiltzan honako hau uste izaiten eta zentzu honez irakastea: alde batetik, liturgi urtean gairi, Jesu Kristok gure onerako jasan zuen heriotza eta egin zituen beste egintza salbagarriak gogoratzen ditugula eta lehenaldiko zenbait gauza gogoetatzen, horrela edozein kristau, lau-laua izanda ere, eskolatuz eta janaritzuz; eta, bestetik, liturgi urtea ospatzeak «berariazko indarra eta sakramendu-eragina duela kristau-bizitza sendotzeko».⁴ Hau guzia Guk ere honela dela sinesten dugu eta aitortzen.

1 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 102-111. zk.

2 Ik. ibid., 106. zk.

3 Ik. OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Dominica Resurrectionis Dekretu orokorra (1951.02.09): A.A.S. 43 (1951), 128-129. or.

4 OHIKUNEETARAKO KONGREGAZIO SAKRATUA, Maxima redemptionis nostrae mysteria Dekretu orokorra (1955.11.16): A.A.S. 47 (1955), 839. or.

«Kristoren Sortzearen misterioa»⁵ eta munduari Agertzea ospatzean, arrazoinez eskatzen dugu «kanpotik gure antzeko aitortzen dugun hark eraberi gaitzala barnetik bere antzeko eginez»;⁶ eta, Kristoren Bazkoa berritzen dugunean, Kristorekin berriz sortu direnentzat «sinesmenez hartu dugun sakramendua geure bizitzan zintzo bete dezagula»⁷ eskatzen diogu Jainkoari. Izan ere, Vatikanoko II. Kontzilioaren hitzak aipatuz, Elizak «Erospeneko misterioak gogoratzean, bere Jaunaren ahalmen saildutailearen eta merezimenduen aberastasunak zabaltzen ditu eta, nolabait, aldi guzietan gertaberritzen, fededunak, aberastasun hauek berenganaturik, salbameneko graziaz bete daitezten».⁸

Hau dela eta, liturgi urtearen berrikusteak eta horren eraberrizetik datozkeen arauak helburu hau besterik ez dute : fededunak, sinestearen, itxaropenaren eta maitasunaren bidez, «urte osoan barna agerian jartzen den Kristoren misterio osoarekin»⁹ biziago elkartzea.

II

«Hautsezinezko lokarriz bere Semearen salbamen-egintzari loturik dagoen»¹⁰ Maria Birjina dohatsuaren jaiek eta saildunen oroimenek –eta, bidezko denez, hauen artean aurkitzen dira «gure jaundone Martirien eta Garaileen sortegunak»¹¹– berariazko argiz egiten dute argi. Ez dugu uste, hau lehen errandakoaren aurka dagoenik; izan ere, «saildunen jaiek Kristok bere zerbitzariengan egindako harrigarriak iragartzen dituzte, eta fededunentzat jarraibide egokiak dakartzate».¹² Eliza katolikoak gauza sendo eta ziurtzat eduki izan du beti, saildunen besteek Kristoren Bazko-misterioa iragarri eta gertaberritzen dutela.¹³

Mendeetan zehar saildunen besta-egun gehiegi sartu izan dela ezin daiteke uka. Horrengatik, Biltzar Sailduak ohar egoki hau egiten du: «Salbamen-misterioak berberak ospatzen dituzten besta-egunen gainetik saildunen bestak jar ez daitezten, besta horietako askoren ospakizuna lekuan lekuko eliza, herrialde eta erlijioso-elkarteentzat utzi bedi, mundu guzian garrantzia duten saildunen oroimena bakarrik ospatuz Eliza osoan».¹⁴

Kontzilioaren erabaki hauek bete ahal izateko, zenbait sailduren izenak kendu egin dira Egutegi Orokorretik; eta beste zenbait sailduren oroimenak eta ospakizunak, egoki iduritzen bada, beren herrialdeetan berriz ezartzeko eskubidea eman da. Hau dela eta, mundu guzian ezagutzen ez diren saildu batzuen izenak Erromako Egutegitik kendu dira, eta Ebanjelioa oraintsuago zabaldu den herrialde batzuetako zenbait martiriren izenak sartu; horrela, Egutegi berriko zerrendan, duintasun-maila berean aurkitzen dira herrialde guzietako ordezkariak, horien bikaintasuna aitortzen delarik, odola Kristogatik isuri zutelako edo aparteko bertuteak erakutsi zituztelako.

Horrela, bada, latin-ohikunearentzat egin den Egutegi Orokor berria aldi honetako pentsarari eta erlijiozko izaerari hobeki datorkiola uste dugu, eta hobeki agertzen duela Elizak berea duen orokortasuna. Egutegi huntan gizon-emazte ospetsuen izenak datoz etorri ere, eta Jainkoaren herri guziari saildutasunaren berariazko ereduak eskaintzen dizkiote, saildutasuna molde askotara bizi

5 SAN LEON HANDIA, Sermo XXVII in Nativitate Domini 7, 1: PL 54, 216.

6 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA [ed. typ., 1962], Agerkundeko otoitza [Meza Liburu huntan, ik. Jaunaren Bataioko bigarren otoitza, 145. or.].

7 Ik. ERROMAKO MEZA LIBURUA [ed. typ., 1962], Bazko Zortziurreneko astearteko otoitza [Meza Liburu huntan, ik. Bazko Zortziurreneko asteleheneko otoitza, 314. or.].

8 VATIKANOKO II. KONTZILIOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 102. zk.

9 Ik. ibid.

10 Ibid., 103. zk.

11 Ik. Breviarium Syriacum (V. mendekoa), B. Mariani argit. (Erroma 1956), 27. or.

12 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA, Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari buruzko Konstituzioa, 111. zk.

13 Ik. ibid., 104. zk.

14 Ik. ibid., 111. zk.

izan dutelako. Ez dago erran beharrik nolako Izpirituzko onura dakarren honek kristau guzientzat.

Gauza hauek guziak Jaunaren aitzinean artarekin gogoetatu ondoan, Erromako Egutegi Orokor berria, liturgia sailduari buruzko Konstituzioa betearazteko Consilium delakoak egina, gure Apostolu-aginpidez onartzen dugu, baita liturgi urtearen erabideari dagozkion Arau Orokorrak ere, eta 1970eko urtarrilaren lehen egunean jarriko dira indarrean, Ohikuneetarako Kongregazio Sailduak aipatu dugun Consilium-ekin batera emanen dituen erabakien arabera eta, Meza Liburuaren eta Orduetako Liturgia liburuaren argitalpen eraberrituak egin arte, indarrean egonen dira.

Gure Idazki huntan erabaki dugun guzia, Motu proprio moldera emana, sendo izan dadila eta indar izan dezala agintzen dugu, Gure Aitzinetikoengandiko Konstituzio eta Agindu Apostolikoak, horrelakorik izan baledi, edo beste edozein erabaki eragozpen izanen ez direlarik, aipagarrienak eta indargetzekoak izanik ere.

Erroman San Pedro baitan emana, 1969ko otsailaren 14an, gure Aitasaindutzaldiko seigarren urtean.

PAULO VI.a AITA SAINDUAK

LITURGI URTEAZ ETA EGUTEGIAZ

ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA

LITURGI URTEA

1. Kristok bururatu salbamen-egintzaren oroimen sakratua ospatu ohi du Eliza sailduak urte osoan zeharreko egun jakinetan. Astero, igandez, Jaunaren piztearen oroimena ospatzen da –horregatik, igandeari «Jaunaren eguna» deitzen da– ; oroimen hori urtean behin, pasione sailduarekin batera, Bazko-bestaburu nagusian ospatu ohi da ; urte betearen zikloan, Elizak Kristoren misterio osoa garatzen du eta sailduen sortegunen oroimena egiten.

Liturgi urteko aldietan tradizioz egiten diren ospakizunen arabera, Elizak eskolatzen ditu fededunak arimari eta gorputzari dagozkien jaierazko jardunez, irakaskuntzaz, otoitzez eta penitentziatzko eta errukizko egintzez.¹⁵

2. Ondotik datozen argibideak Erromako ohikuneari edo beste ohikuneei dagozkie eta hala hartu beharrekoak dira ; bainan bete beharreko arauak Erromako ohikuneari bakarrik dagozkio, beren izatez beste ohikuneei ere dagozkien arauak izan ezean.¹⁶

I. Izenburua

EGUN LITURGIKOAK

I. Egun liturgikoa orokorki

3. Egun bakoitza Jainkoaren herriaren ospakizun liturgikoen bidez saildutzen da; bereziki, eukaristi opariaren eta Orduetako Liturgiaren bitartez.

Egun liturgikoa gauerdian hasten da eta ondoko gauerdian bukatzen. Igandearen eta bestaburuaren ospakizuna, halere, bezperako arratsaldean hasten da.

II. Igandea

4. Asteko lehen-egunari Jaunaren eguna edo igandea deitzen da ; egun huntan, Elizak, Kristoren pizte-egunean bertan hasitako tradizio

apostolikoari jarraikiz, Bazko-misterioa ospatzen du. Horregatik, lehenasuna duen bestatzat hartu behar da igandea.¹⁷

5. Garrantzi berezia duelako, igandea, besta-buruetan eta Jaunaren besta-egunetan bakarrik gelditzen da bere ospakizuna gabe ; Abendualdiko, Garizumako eta Bazkoaldiko igandek, halere, Jaunaren besta-egun guziak eta bestaburu guziak baino lehenagokoak dira. Igande hauetan gertatzen diren bestaburuak ondoko astelehenean ospatuko dira, salbu Erramu-igandean edo Jaunaren Pizteko igandean gertatzen badira.

6. Igandek, berez, ez du onartzen egun horretan beste ospakizunen bat betiko ezartzea. Hala ere, igandez ospatzen dira :

a) Eguberri Zortziurreneko igandean, Familia Sailduaren besta ;

b) urtarrilaren 6aren ondoko igandean, Jaunaren Bataio-besta-eguna ;

c) Mendekoste ondoko igandean, Trinitate Sailduaren bestaburua ;

d) Urtean Gaindiko azkeneko igandean, Jesu Kristo gure Jauna, diren guzien Erregearen bestaburua.

7. Trufania, Salvatore eta Kristoren Gorputz eta Odol Sailduen bestaburuak, besta oso egin beharrekoak ez diren lekuetan, igandez ospatuko dira, igande hori beraien egun berezia bailitzan, eta molde huntan ospatuko dira :

a) Trufania, urtarrilaren 2a eta 8aren arteko igandean ;

b) Salvatore, VII. Bazko-igandean ;

e) Kristoren Gorputz eta Odol Sailduen bestaburua, Trinitate Guziz Sailduaren ondoko igandean.

III. Bestaburuak, bestak eta oroimenak

8. Liturgi urte osoan zehar Kristoren misterioa ospatzekoan, Elizak maitasunezko benerezio berezia erakusten dio Maria Birjina Jainkoaren Ama dohatsuari ere eta martirien eta beste sailduen oroimenak jartzen ditu fededunen deboziorako.¹⁸

9. Mundu guzian garrantzia duten sailduak Eliza osoan ospatu behar dira ; gainerakoak nahierara ospatu ahal izateko ezartzen dira egute gian, edo lekuan lekuko Eliza bakoitzaren edo herrialde edo elkarte erlijioso bakoitzaren kultuarako uzten dira.¹⁹

10. Ospakizunak bereizi behar dira daukaten garrantziaren arabera, eta honelako izenak emaiten zaizkie : bestaburu, besta, oroimena.

11. Bestaburuak dira egunik nagusienak ; hauen ospakizuna aitzineko eguneko I. Bezperetan hasten da. Bestaburu batzuek bezpera-arratsaldeko Meza berezia ere badute, bezperako arratsaldean eman beharrekoa, Meza arratsaldeko orduetan emaiten bada.

12. Bazkoko eta Jaunaren Sortzeko bestaburu nagusien ospakizuna zortzi egunetan zehar luzatzen da etenik gabe. Zortziurren horietako bakoitzak bere legeak ditu.

13. Bestak egunaren berezko muga barnean ospatzen dira ; horregatik, ez dute I. Bezperarik, baldin eta, Jaunaren besta bat izanik, Urtean Gaindiko edo Eguberrialdiko igande baten ordean ospatzen ez bada eta igandeari zegokion Orduetako Liturgia ordezkatzeko ez badu.

14. Oroimenak beharrezkoak edo nahierazkoak dira ; hauen ospakizuna, egun hortan gertatzen den asteleguneko ospakizunarekin konponduko da, Erromako Meza Liburuaren eta Orduetako Liturgiaren Antolaketa Orokorretan errandakoaren arabera.

Garizuman gertatzen diren beharrezko oroimenak nahierazko oroimen bezala bakarrik ospa daitezke.

Egun berean egutegiak nahierazko oroimen bat baino gehiago badakar, horietako bat bakarrik ospatuko da, eta besteak utziko dira.

15. Urtean Gaindiko larunbatetan, beharrezko oroimenik ez baldin bada, Maria Birjina dohatsuaren nahierazko oroimena egin daiteke.

IV. Astelegunak

16. Igandearen ondotik datozen asteko egunei astelegunak deitzen dira ; egun hauen ospakizuna molde ezberdinez egiten da, bakoitzak duen garrantziaren arabera:

a) Hauste-eguna eta Aste Sailduko egunak, astelehentik ortzegunera bitartekoak, gainerako ospakizun guziaz baino lehenagokoak dira ;

b) Abendualdiko astelegunak, abenduko hi-labetearen 17tik 24a artekoak, biak barne, eta Garizumako astelegun guziaz beharrezko oroimenak baino lehenagokoak dira ;

c) gainerako astelegunek, bestaburu eta besta guzian aitzinean, galtzen dute beren ospakizuna eta, oroimenekin batera gertatzen direnean, konponketa egin behar da beren artean.

II. Izenburua

LITURGI URTEA

17. Liturgi urtean gandi, Elizak Kristoren misterio osoa ospatzen du, Gizakundetik Mendekoste-eguna arte, eta Jaunaren etorrerako ospakizuna arte.²⁰

I. Bazko Hirurrena

18. Jesu Kristok, bereziki Bazko-misterioaren bidez egin zuen gizakiaren erospena eta Jainkoaren gorapen bete-betea : bere heriotzaz gure heriotza ezdeustu zuen, eta bere pizteaz gure bizia berri. Horregatik, Jaunaren Pasioneko eta Pizteko Bazko Hirurren Saildua liturgi urte osoaren gailurra da.²¹ Igandeak aste barnean duen lehenetasuna du Bazko-bestaburuak liturgi urtean.²²

19. Jaunaren Pasioneko eta Pizteko Bazko Hirurrena Jaunaren Afariko arratsaldeko Mezaz hasten da; Bazko Gaubeilan jotzen du gailurra, eta Piztuera-igandeko Bezperekin bukatzen da.

20. Jaunaren Pasioneko Ostiral Sailduz²³ eta, egoki iritziz geroz, baita Larunbat Sailduko Bazko Gaubeila arte ere,²⁴ Bazko-barau sakratua egiten da leku guzietan.

21. Bazko Gaubeila, Jaunaren Pizteko gau saildua, «Gaubeila saildu guzian amatzat»²⁵ hartzen da eta Gaubeila huntan Eliza Kristoren piztearen zain egoten da erne, eta sakramentuetan ospatzen du. Horregatik, Gaubeila osoa gauze

ospatu behar da ; beraz, ilundu ondotik hasi eta igandeko argi zirrinda baino lehenago bukatu behar da.

II. Bazkoaldia

22. Piztuera-igandetik Mendekoste-igandea artean dauden berrogeita hamar egunak pozik eta alai ospatu behar dira, besta-egun bakarra eta, areago, «igande nagusi bakarra»²⁶ bailiran.

Egun hauetan bereziki kantatzen da Alleluia.

23. Aldi honetako igandek Bazko-igandetzat hartzen dira eta, Piztuera-igande ondotik, II., III., IV., V., VI., VII. Bazko-igande erraiten zaie ; Mendekoste-igandek bururatzen du berrogeita hamar eguneko aldi sakratu hau.

24. Bazkoaldiko lehen zortzi egunek Bazko Zortziurrena osatzen dute, eta Jaunaren bestaburu bezala ospatuko dira.

25. Bazko-egunetik berrogei egunera Jaunaren Salbatorea ospatzen da, baldin eta besta oso ez den lekuetan VII. Bazko-igandera aldatzen ez bada (ik. 7. zk.).

26. Salbatoretik Mendekoste aitzineko larunbata arteko astelegunetan, biak barne, Izpiritu Saindu Laguntzailearen etorrerarako prestatzen da Eliza.

III. Garizuma

27. Garizuman Bazkoa ospatzeko prestatzen da Eliza : Garizumako liturgiak Bazko-misterioa ospatzeko prestatzen ditu, bai kristaugaiak, kristau-sarbidea mailaz maila eginez, bai fededun guziak ere, beren Bataioa gogoratzen eta penitentzia egiten dutelarik.²⁷

28. Hauste-egunean hasten da Garizuma eta Jaunaren Afariko Meza aitzin bukatzen. Garizumaren hasieratik Bazko Gaubeila arte ez da Alleluia erranen.

29. Garizuma-hasierako Hauste-eguna barau-eguna da leku guzietan,²⁸ eta errautsa emaiten da.

30. Aldi honetako igandeei, Garizumako I., II., III., IV., V. igande erraiten zaie. Seigarren igandeari, Aste Saindua hasten duenari, Jaunaren Pasioneko Erramu-igandea deitzen da.

31. Aste Sainduan, Kristo Jerusalemen Mesias bezala sartu zenetik hasita, haren pasionea gogoratzen da.

Ortzegun Sainduz, goizean, Apezpikuak, bere apezekin elkarmeza emanez, olio sainduak benedikatzten ditu eta krisma sagaritzen.

IV. Eguberrialdia

32. Bazko-misterioaren urteroko ospakizunaren ondotik, Elizak ez du Jaunaren Sortzea eta haren lehen agerpenak gogoratzea baino ospakizun zaharragorik eta ohoragarriagorik, eta hori Eguberrialdian egiten da.

33. Jaunaren Sortzea-eguneko I. Bezperetatik Trufania ondoko edo urtarrilaren 6aren ondoko igandea arte, biak barne, izaten da Eguberrialdia.

34. Jaunaren Sortzeko bezpera-arratsaldeko Meza abenduko hilabetearen 24ko arratsaldean ematen da, I. Bezperen aitzin nahiz ondotik.

Jaunaren Sortze-egunean hiru Meza eman ditzake apez bakoitzak, antzinako tradizio erromatarraren arabera, erran nahi baita, gauean, argi zirrintan eta egunean.

35. Eguberrialdiak bere zortziurrena du, honela moldatua:

a) zortziurren barneko igandean edo, iganderik ez bada, abenduaren 30ean, Jesus, Maria eta Josepen Familia Sainduaren besta ospatzen da ;

b) abenduaren 26an, Jondoni Estebe lehen martiriaren besta ;

c) abenduaren 27an, Jondoni Joani Apostolu eta Ebanjelariaren besta ;

d) abenduaren 28an, Haur Hobengabe Sainduen besta ;

e) abenduaren 29, 30 eta 31 zortziurreneko egunak dira ;

f) urtarrilaren lehen-egunean, Eguberri Zortzigarrenean, Jainkoaren Ama Mariaren bestaburua ospatzen da eta Jesus Izen Saindua ezartzearena.

36. Urtarrilaren 2tik 5era artean gertatzen den igandea Eguberri ondoko II. Igandea da.

37. Jaunaren Trufania urtarrilaren 6an ospatuko da, baldin eta besta oso ez delako 2a eta 8aren arteko igandera aldatua izan ez bada (ik. 7. zk.).

38. Urtarrilaren 6aren ondoko igandea Jaunaren Bataioaren besta da.

V. Abendualdia

39. Abendualdiak bi alderdi ditu : batetik, Jainkoaren Semea gizakien artera lehen etortzearen oroimena egiten den Eguberri-bestarako prestatze-aldia da, eta, bestetik, aitzineko hori guziaz gogoratuz, azken aldietan Kristok eginen duen bigarren etorrera itxarotera fededunen gogo-bihotzak zuzentzeko aldia. Bi arrazoin hauen gatik, Abendualdia itxaropen jaierratsua eta pozgarriaren aldia dela agertzen zaigu.

40. Azaroaren 30ean edo egun honetatik hurbilena gertatzen den igandeko I. Bezperetan hasten da Abendualdia, eta Jaunaren Sortzeko I. Bezperen aitzin bukatzen.

41. Aldi honetako igandeei Abendualdiko I., II., III., IV. igandea deitzen dira.

42. Abenduko hilabetearen 17tik 24ra bitarteko astelegunek, biak barne, zuzen-zuzenean Jaunaren Sortzea prestatzea dute helburu.

VI. Urtean Gaindiko aldia

43. Eite berezia duten aldiez gainera, beste 33 edo 34 aste gelditzen dira liturgi urtea osatzeko ; aste hauetan ez da Kristoren misterioaren alderdi berezirik ospatzen, baizik eta Kristoren misterio hau bere osoan gogoratzen da, batez ere igandean. Aldi honi «Urtean Gaindiko» aldia deitzen da.

44. Urtarrilaren 6aren ondoko igande ondorengo astelehenean hasten da «Urtean Gaindiko» aldia eta Garizuma aitzineko astearte artean, biak barne, luzatzen ; Mendekoste-igande ondoko astelehenean hasten da berriz, eta Abendualdiko I. igandeko I. Bezperen aitzin bukatzen.

Horregatik, aldi honetako igande eta astelegunetarako, Meza Liburuan eta Orduetako Liturgian datozen otoitz-gaiak erabiliko dira.

VII. Errogatibak eta urteko Lau Aroak

45. Errogatibetan eta urteko Lau Aroetan Elizak gizon-emakumeen zenbait beharraldiren alde otoitz egiten dio Jainkoari, batez ere lurteko fruituen eta giza lanaren alde, eta eskerrak ematen dizkio agerian Jainkoari.

46. Errogatibak eta Lau Aro hauek leku bakoitzeko fededunen beharraldietara egokitzeko, Gotzainen Batzarrek noiz eta nola ospatu behar diren erabakitzea komeni da.

Ospakizun hauek zenbat egunetan, batean ala gehiagotan, egin behar diren, eta liturgi urte osoan zehar zenbat aldiz egin behar diren jakiteko, eskumena duen agintariak behar diren arauak ezarriko ditu, lekuan lekuko beharrak gogoan izanez.

47. Egun horietako bakoitzean emango den Meza Zenbait Beharraldietarako izeneko Mezetatik aukeratuko da, eskarien asmoari hoberena datorkiona.

II. KAPITULUA

EGUTEGIA

I. Izenburua

EGUTEGIA ETA BERTAN AZALDU BEHAR DUTEN OSPAKIZUNAK

48. Ospakizunen Antolaketa liturgi urteko egutegiaren arabera eginen da ; orokorra nahiz berezia izan daiteke egutegia : orokorra, Erromatar ohikunea erabiltzen den toki guzietarako bada ; berezia, Eliza berezi batean nahiz bazkun edo familia erlijioso batean erabiltzekoa bada.

49. Liturgi Egutegi Orokorra ospakizunen aldi osoa dakar, bai salbamen-misterioarenak Aldiko Berezian bai, Eliza osorako garrantzizkoak direnez, guziek ospatu beharrekoak diren sainduen elizkizunak, bai Jainkoaren herriaren sandutasuna orokorra eta etengabekoa dela erakusten duten beste sainduenak.

Liturgi Egutegi Bereziak hurbilagokoak diren eta aldi osoa gogoan izanik eratzen eta atontzen diren ospakizunak dakartza.²⁹ Hain zuzen ere, ondo dago Eliza edo familia erlijioso bakoitzak bereziki bereak dituen sailnduei aipamen bereziz gur egitea.

Eskumena duen agintariak atonduriko Egutegi Bereziak Alki Apostolikoak onartu behar ditu.

50. Egutegi Bereziak egitekoan, puntu hauek izan behar dira gogoan:

a) Aldiko Berezia –erran nahi baita, erosparen misterioa liturgi urtean gaindi azaldu eta ospatzen den aldi, bestaburu eta jaien aroa– beti osorik bete behar da eta ospakizun bereziak baino lehenagokoa izan behar du.

b) Ospakizun bereziak ospakizun orokorrekin egoki konpondu behar dira, liturgi egunetako zerrendan kasu bakoitzerako ezarri diren molde eta lehentasuna gorderik. Egutegi Bereziak gehiegi pizutu ez daitezten, sailndu bakoitzak ospakizun bakarra izango du liturgi urtean ; arrazoin pastoralek eskatuko balute, Eliza edo familia erlijiosoaren Zaindari edo Sortzaile sailnduaren lekualdatzea edo aurkikuntza gogoratzeko, bigarren ospakizuna ere antola daiteke, nahierazko oroimen bezala.

c) Onetsitako ospakizunek ez dute Aldiko Berezian egiten diren salbamen-misterioaren ospakizunen bikoizketa izan behar, eta ez dira ugaltu behar bidezkoa den baino gehiago.

51. Diozesa bakoitzak bere egutegia eta Orduetako Liturgiaren eta Mezen Berezia edukitzea ondo badago ere, ez dago eragozpenik eliz probintzia oso batean, herrialde edo nazio batean nahiz lurralde zabalago batean denentzako Egutegi eta Berezi berberak izateko ; honelako egutegia eta Berezia elkarrekin lan eginez prestatu behar dituzte arduradun guziek.

Hori bera egin daiteke, arrazoin berdinengatik, erlijioso-erlijiosen egutegietan, herrialde bereko probintzia ezberdinetarako egiten direnean.

52. Egutegi Berezia, lekuan lekuko bestaburu, besta eta oroimen bereziak Egutegi Orokorrean ezarriz osatzen da, erran nahi baita:

a) Diozesako egutegian, Zaindarien eta Gotzain-eliza sagaratzearen ospakizunetaz gainera, diozesarekin aparteko zerikusia duten sailndu eta dohatsuenak ere ezarriko dira ; esate baterako, bertan jaio, luzaroan bizi edo hil zirelako.

b) Erlijioso-erlijiosen egutegian, Elkartearen Izenaren, Sortzailearen eta Zaindariaren ospakizunetaz gainerat, familia erlijioso horretakoak izan ziren sailndu eta dohatsuenak edo berarekin aparteko zerikusia izan zutenenak ere ezarriko dira.

c) Eliza bakoitzeko egutegian, diozesako nahiz familia erlijiosoko ospakizun berezietaz gainerat, beste hauek sartzen dira: egun liturgikoen zerrendan ezarriak dauden eliza bereko ospakizunak eta baita beren gorpuzkiak eliza hartan dituzten sailnduenak ere. Familia erlijiosoetako direnek lekuko eliz elkartearekin bat egiten dute, Gotzain-eliza sagaratzeta eta bizi diren lekuko eta lurraldeko Zaindari nagusiaren eguna ospatzeko.

53. Diozesa edo familia erlijioso batek sailndu edo dohatsu asko duenean, diozesaren edo familia erlijiosoaren egutegia ez da gehiegi pizutu behar. Hortarako :

a) Lehen eta behin, diozesako edo familia erlijiosoko sailndu eta dohatsu guzien ospakizuna edo gutxienez talde batean batean egin daiteke.

b) Diozesa edo familia erlijioso osoarentzat garrantzi berezia duten sailnduetaz eta dohatsuetaz baizik ez dute izango aparteko ospakizuna egutegian.

c) Gainerako sailndu eta dohatsuen ospakizunak zerikusi berezi-berezia duten lekuetan nahiz horien gorpuzkiak daudenetan bakarrik egiten dira.

54. Lekuan lekuko ospakizunak beharrezko edo nahierazko oroimen bezala ezarri behar dira egutegian, baldin eta horietako batzuentzat egun liturgikoen zerrendan besterik esana ez badago edo historia nahiz pastoraltza aldetik beste arrazoin berezirik ez badago. Halere, ospakizun horietako batzuk, leku jakinetan handikiroago egin daitezke diozesa guzian edo familia erlijiosoan baino.

55. Egutegi Berezi bateko ospakizunak egutegi hori erabiltzea dagokien guzietan burutu behar

dituzte eta, Alki Apostolikoaren baimenik ez bada, ezin daitezke ospakizun hauek egutegitik kendu, ezta aldatu ere horien maila.

II. Izenburua

OSPAKIZUNAK ZEIN EGUNETAN EGIN

56. Sainduak, zerurako sortu ziren egunean ospatu ohi ditu Elizak, hil ziren egunean erran nahi baita. Egutegi Berezian ezarritako lekuko ospakizunekin ere hori bera egin behar da.

Halere, ospakizun bereziek lekuko Eliza edo familia erlijioso bakoitzarentzat aparteko garrantzia izanik ere, oso ongi legoke, ahal den neurrian, Egutegi Orokorreko bestaburu, besta eta beharrezko oroimenen ospakizunetan batasuna izatea.

Hau dela eta, lekuko egutegian jarri behar diren ospakizun berezietan, ondoko hauek bete behar dira :

a) Egutegi Orokorrean datozen ospakizunak egun berean ezarri behar dira Egutegi Berezian ere, ospakizunen maila, behar izanez geroz, aldatuz.

Hori bera egin behar da eliza jakin baterako ospakizunekin ere, diozesa edo familia erlijiosoko egutegiari doakionez.

b) Egutegi Orokorrean ez datozen sainduen ospakizunak, hil ziren egunean egin behar dira. Hil ziren eguna zein den inork ez badaki, beste egunen batean eginen da saindu horren ospakizuna; esate baterako, apez egin zuten egunean edo aurkitu nahiz lekuz aldatu zuten egunean; hori ere ezinezkoa bada, Egutegi Berezian beste ospakizunik ez den egunen batean.

c) Nahiz eta maila txikiagokoa izan, Egutegi Orokorra edo lekukoak dakarren beharrezko ospakizunen bat egin behar delako, hildako egunean nahiz berari doakion egun berezian ospatzerik ez badago, libre dagoen hurbileneko egunera aldatuko da.

d) Bainan arrazoin pastoralengatik beste egun batera aldatu ezin bada, eragozpena sortzen duen beste ospakizun hori aldatuko da.

e) Onetsiak deitzen diran beste ospakizunak, pastoraltzaren aldetik egokiena den egunean ezarriko dira.

f) Liturgi urteko aldia bere argi bete-betean ager dadin eta sainduen ospakizun batzuk betiko galarazirik gerta ez daitezten, Garizuman eta Bazko Zortziurrenean gertatu ohi diren egunetan, ez da eskuarki ospakizun berezirik jarriko, ezta abenduko hilabetearen 17tik 31 arteko egunetan ere, non eta beharrezko ez diren oroimenak edo 8. zenbakiko a, b, c, d egun liturgikoetako bestak edo beste aldi batera aldatu ezinezko bestaburuak ez diren. San Josepen bestaburua (martxoaren 19a) Garizumaz kanpoko beste egun batera alda dezakete Gotzainen Batzarrek, baldin eta besta oso egin beharreko eguna ez bada.

57. Saindu edo dohatsu batzuk egutegian batean ezarriak badaude, batean ospatuko dira beti, ospakizun-maila bera dutenean, nahiz eta horietakoren bat edo batzuk bereziagoak izan. Bainan saindu edo dohatsuetakoren bat edo batzuk goragoko maila batean ospatu behar badira, Orduetako Liturgia hauena bakarrik egingen da, gainerakoan ospakizuna bertan behera utzirik, beharrezko oroimen bezala beste egun batera aldatzea egoki izan ezean.

58. Fededunen onura pastoralagatik zilegi da aste barnean gertatzen diren eta fededunen aldetik biziro onartuak diren ospakizunak Urtean Gaingoko igandeetan ospatzea, baldin eta ospakizun hauek lehentasun-zerrendaren arabera igandea baino lehenagokoak badira. Herriarekin emaiten diren Meza guziak ospakizun horiei dagozkienak izan daitezke.

59. Ospakizunari doakionez, egun liturgikoen lehentasuna ondoko zerrendaren arabera erabakiko da :

EGUN LITURGIKOEN ZERREDA

Lehentasun-mailaz moldatua

I.

1. Jaunaren Pasione eta Pizteko Bazko Hirurrena.

2. Jaunaren Sortzea, Trufania, Salvatore eta Mendekoste.

Abendualdiko, Garizumako eta Bazkoaldiko igandeak. Hauste-eguna.

Aste Sainduko egunak, astelehen saindutik ortzegun saildua arte, biak barne. Bazko Zortziurreneko egunak.

3. Egutegi Orokorrean azaltzen diren Jaunaren, Maria Birjina dohatsuaren eta sailduen bestaburuak.

Hildako Fededun guzien Oroitzapena.

4. Bestaburu bereziak, erran nahi baita:

a) Lekuko, herriko nahiz hiriko Zaindari nagusiaren bestaburuak.

b) Eliza jakin baten sagaratze-eguneko eta urtemugako bestaburuak.

c) Eliza bakoitzeko Titularren bestaburuak.

d) Fraide, seror edo erlijioso-erlijiosen elkarteko Titularren, Fundatzailearen nahiz Zaindari nagusiaren bestaburuak.

II.

5. Egutegi Orokorrean azaltzen diren Jaunaren bestak.

6. Eguberrialdiko eta Urtean Gaindiko igandeak.

7. Egutegi Orokorrean azaltzen diren Maria Birjina dohatsuaren eta sailduen bestak.

8. Besta bereziak, erran nahi baita:

a) Diozesako Zaindari nagusiaren besta.

b) Apezpiku-eliza sagaratzearen urtemugako besta.

c) Herrialde, probintzia, nazio edo lurralde zabalagoko Zaindari nagusiaren besta.

d) Fraide, seror edo elkarte erlijioso nahiz probintzia erlijioso bateko Titularren, Fundatzailearen edo Zaindari nagusiaren besta, gorago 4. zenbakian erranak aintzat hartzen direla.

e) Eliza jakin bateko beste besta bereziak.

f) Diozesaren nahiz fraide, seror edo erlijioso-elkarteko egutegian azaltzen diren beste bestak.

9. Abenduko hilabetearen 17tik 24a arteko Abendualdiko astelegunak, biak barne.

Eguberri Zortziurreneko egunak. Garizumako astelegunak.

III.

10. Egutegi Orokorrean azaltzen diren beharrezko oroimenak.

11. Beharrezko oroimen bereziak, erran nahi baita:

a) Leku, diozesa, herrialde, probintzia, nazio, lurralde zabalagoko, fraide, seror edo elkarte nahiz probintzia erlijiosoko bigarren Zaindariaren oroimenak.

b) Gainerako oroimen beharrezkoak, diozesako nahiz fraide, seror edo erlijioso-erlijiosen elkarteko egutegian azaltzen direnak.

12. Nahierazko oroimenak 9. zenbakian izendatutako egunetan ere egin daitezke, baina Mezako eta Orduetako Liturgiaren Erakuntza Orokorretan erraiten den molderat.

Molde hortarat egin daitezke beharrezko oroimenak ere, Garizumako astelegunetan gertatzen direnean.

13. Abenduko hilabetearen 16a arteko Abendualdiko astelegunak.

Eguberrialdiko astelegunak, urtarrilaren 2tik Trufania ondoko larunbata arte. Bazkoaldiko astelegunak, Bazko Zortziurrenaren ondoko astelehenetik Mendekoste aitazineko larunbata arte, hau ere barne.

Urtean Gaindiko astelegunak.

60. Egun berean ospakizun bat baino gehiago gertatzen bada, liturgia egunen zerrenda huntan goragoko maila duenaren ospakizuna egingen da.

Halere, egun berean goragoko mailako beste batek aurrea hartzen diolako, bestaburu bat ospatzerik ez balitz, libre dagoen hurbileneko beste egun batean ospatuko da, erran nahi baita, liturgi egunen zerrendan 1-8. zenbakietan sartzen ez den egunean, bainan betiere liturgi urteari buruzko Arauetan, 5. zenbakian erraiten direnak aintzat hartzen direla. Jaunaren Gizakundearen Adierazpeneko bestaburua, ordea, Aste Sainduko egun batean gertatzen denean, II. Bazko-igandearen ondoko astelehenean ospatuko da beti. Gainerako ospakizunak egin gabe utziko dira urte hartan.

61. Egund berean, eguneko Bezperak eta hurrengo eguneko I. Bezperak ospatu beharra gertatuko balitz, liturgi egunen zerrenda huntan goragoko maila duenaren Bezperak ospatuko dira ; maila berekoak balira, berriz, eguneko Bezperak.

- 15 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA,
Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari
buruzko Konstituzioa, 102-105. zk.
- 16 Ik. ibid., 3. zk.
- 17 Ik. ibid., 106. zk.
- 18 Ik. ibid., 103-104. zk.
- 19 Ik. ibid., 111. zk.
- 20 Ik. ibid., 102. zk.
- 21 Ik. ibid., 5. zk.
- 22 Ik. ibid., 106. zk.
- 23 Ik. PAULO VI.a, Pænitemini Konstituzio
Apostolikoa (1966.02.17), II. §3: A.A.S. 58 (1966),
184. or.
- 24 Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIOA,
Sacrosanctum Concilium liturgia sakratuari
buruzko Konstituzioa, 110. zk.
- 25 SAN AGUSTIN, Sermo 219 : PL 38, 1088.
- 26 SAN ATANASIO, Epist. fest. I.a : PG 26, 1366.
- 29 Ik. JAINKOAREN GURTZARAKO
KONGREGAZIO SAKRATUA, Calendaria
particularia Irakaspena (1970.06.24): A.A.S. 62
(1970), 651-663. or.

ERROMAKO EGUTEGI OROKORRA ETA BAIONAKO DIOZESAKO EGUTEGI BEREZIA

URTARRILA

1	MARIA SAINDUA, JAINKOAREN AMA	Bestaburua
2	San BASILIO HANDIA eta GREGORIO NAZIANZEKOA, apezpikuak eta eliz erakasleak	Oroimena
3	JESUSEN IZEN GUZIZ SAINDUA eta Santa JENOFA	
4		
5		
6	TRUFANIA	Bestaburua
7	San ERRAMUN PEÑAFORTEKOA, apeza	
8		
9		
10		
11		
12		
13	San HILARIO, apezpiku eta eliz erakaslea	
14		
15	San REMI, apezpikua	
16		
17	San ANTON, abadea	Oroimena
18		
19		
20	San FABIEN, aita saildu eta martirra, eta San SEBASTIEN	
21	Santa AINES, birjina eta martirra	Oroimena
22	Jondoni BIXINTXO, diakrea eta martirra	
24	San FRANTSSES SALESEKOA, apezpiku eta eliz erakaslea	Oroimena
25	Jondoni PAULO, APOSTOLUAREN KONBERTITZEA	Besta
26	San TIMOTEO eta TITO, apezpikuak	Oroimena
27	Santa ANGELA MERICI, birjina	
28	San TOMAS AKINAKOA, apez eta eliz erakaslea	Oroimena
31	San JOANES BOSCO, apeza	Oroimena
	Urtarrilaren 6aren ondoko igandean : JAUNAREN BATAIOA	Besta

OTSAILA

1		
2	JAUNAREN ESKAINTZEA - GANDERAILU	Besta
3	San BLADI, apezpiku eta martirra San ANZGARIO, apezpikua	
4		
5	Santa AGATA, birjina eta martirra	Oroimena
6	San PAULO MIKI eta LAGUNAK, Japonian martirrak	Oroimena
7	San AMANDO, apezpikua	Oroimena
8	San HIERONIMO EMILIANO Santa JOSEFINA BAKHITA, Birjina	
9		
10	Santa ESKOLAZTIKA, birjina	Oroimena
11	LURDEKO MARIA BIRJINA DOHATSUA	
12		
13		
14	San ZIRILO, fraide, eta METODIO, apezpikua	Besta
15		
16		
17	ZAZPI ZERBITAK	
18	Santa BERNADETA SOUBIROUS, birjina	
19		
20		
21	San PIARRES DAMIEN, apezpiku eta eliz erakaslea	
22	Jondoni PETRIREN ALKIA, apostolua	Besta
23	San POLIKARPO, apezpiku eta martirra	Oroimena
24		
25		
26		
27		
28		

MARTXOA

1	San LEON, apezpiku eta martirra	
2		
3		
4	San KASIMIR	
5		
6		
7	Santa PERPETUA eta FELIXI, martirrak	Oroimena
8	San JOANES Jainkoarena, fraidea	
9	Santa FRANTSISKA ERROMANA, fraidea	
10		
11		
12		
13		
14		
15	Santa LUISA Marillac-ekoa (<i>ikus Maiatzaren 9a</i>)	
16		
17	San PATRIZIO, apezpikua	
18	San ZIRIL Jerusalemekoa, apezpiku eta Eliz erakaslea	
19	San JOSEP, Maria Birjinaren senarra	Bestaburua
20		
21		
22		
23	San TORIBIO MONGROVEJOKOA, apezpikua	
24		
25	JAUNAREN ANONZIAZIONEA	Bestaburua
26		
27	LOUIS EDOUARD CESTAC dohatsua, apeza	Oroimena
28		
29		
30		
31		

APIRILA

1		
2	San FRANTSES PAOLAKOA, ermitaua	
3		
4	San ISIDRO, apezpiku eta Eliz erakaslea	
5	San BIXENTE FERRIER, apeza	
6		
7	San JOANES BATISTA SALAKOA, apeza	Oroimena
8		
9		
10		
11	San ESTANISLAS, apezpiku eta martirra	
12		
13	San MARTIN Ia, aita saindu eta martirra	
14		
15		
16	Santa ENGRAZI	
17		
18		
19		
20		
21	San ANSELMO, apezpiku eta eliz erakaslea	
22		
23	San JURGI, martirra	
	San ADALBERT Pragekoa, apezpiku eta martirra	
24	San FIDEL Sigmaringengoa, apez eta martirra	
25	San MARK, ebanjelista	Besta
26		
27		
28	San PIARRES XANEL, apez eta martirra	
	San LUIS MARIE GRIGNION Montfortekoa, apeza	
29	Santa KATALINA Sienekoa, birjina eta eliz erakaslea	Besta
30	San PIO Va, aita saindua	

MAIATZA

1	San JOSEP, langilea	
2	San ATANASIO, apezpiku eta eliz erakaslea	Oroimena
3	San FILIPE ta JAKOBE, apostoluak	Besta
4		
5		
6		
7		
8		
9	Santa LUISA Marillac-ekoa	
10		
11		
12	San NEREO eta AKILE, martirrak San PANKRAZ, martirra	
13	FATIMAKO MARIA BIRJINA DOHATSUA San ANDRES-HUBERT FOURNET	
14	San MATIAS apostolua	Besta
15	San MIXEL GARIKOITZ	Oroimena
16		
17		
18	San JOANI 1a, aita saildu eta martirra	
19	San YVES, apeza	
20	San BEÑADIN Sienekoa, apeza	
21	San KRISTOBAL MAGALLANES, apeza, eta LAGUNAK, Mexikan martirrak	
22	Santa RITA Casciakoa, serora	
23		
24		
25	San BEDA, apez eta eliz erakaslea San GREGORIO VIIa, aita aaindua Santa MARIA MADALENA Pazzikoa, birjina	
26	San FILIPE NERI, apeza	Oroimena
27	San AGUSTIN Cantorbery-koa, apezpikua	
28		
29	San PAUL VI.a, aita saildua	
30	Santa JOANA ARKEKOA, birjina	Oroimena
31	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN BISITAZIONEA	Besta
	Mendekoste ondoko ortzegunean :	
	JESU KRISTO GURE JAUNA, BETIKO APEZ NAGUSIA	Besta
	Mendekoste ondoko igandea : TRINITATE SAINDUA	Bestaburua
	Trinitate ondoko igandea :	
	KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZIZ SAINDUAK	Bestaburua

EKAINA

1	San JUSTIN, martirra	Oroimena
2	San MARTZELINO eta PIARRES, martirrak San POTHIN, apezpikua, Santa BLANDINA, birjina, eta lagunak	
3	San XARLES LUANGA eta LAGUNAK, Ugandan martirrak	Oroimena
4	Santa KLOTILDA	
5	San BONIFAZIO, apezpiku eta martirra	Oroimena
6	San NORBERTO, apezpikua	
7		
8		
9	San EFRENO, diakrea eta eliz erakaslea	
10		
11	San BARNABE, apostolua	Oroimena
12		
13	San ANTONIO Paduakoa, apez eta eliz erakaslea	Oroimena
14		
15		
16		
17		
18		
19	San ERROMUALDO, abadea	
20		
21	San LUIS GONZAGAKOA, fraidea	Oroimena
22	San PAULINO Nola-koa, apezpikua San JOANI FISHER, apezpikua, eta TOMAS MORE, martirrak	
23		
24	Jondoni JOANI BATISTAREN SORTZEA	Bestaburua
25		
26		
27	San ZIRIL Alexandriakoa, apezpiku eta eliz erakaslea	
28	San IRENEO, apezpiku eta martirra	Oroimena
29	Jondoni PETRI eta PAULO, apostoluak	Bestaburua
30	ERROMAKO LEHEN MARTIRRAK	
	Mendekoste ondoko astelehenean :	
	MARIA BIRJINA DOHATSUA, ELIZAREN AMA	Oroimena
	Mendekoste ondoko III. ostiralean : JESUSEN BIHOTZ GUZIZ SAINDUA	Bestaburua
	Mendekoste ondoko III. larunbatean :	
	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN BIHOTZ GUZIZ GARBIA	Oroimena

UZTAILA

1		
2		
3	San TOMAS apostolua	Besta
4	Santa ELIXABET Portugalekoa	
5	San ANTONIO MARIA ZAKARIA, apeza	
6	Santa MARIA GORETTI, birjina eta martirra	
7		
8		
9	San AGUSTIN ZHAO RONG, apeza, eta LAGUNAK, Txinan martirrak	
10		
11	San BENITO, abadea, Europako patroina	Besta
12		
13	San HENRI	Oroimena
14	San KAMILO LELLIS, apeza JOANES MAIORGA dohatsua eta bere lagunak	
15	San BONABENTURA, apezpiku eta eliz erakaslea	Oroimena
16	KARMEL MENDIKO MARIA BIRJINA DOHATSUA	
17		
18		
19		
20	San APOLINAR, apezpiku eta martirra	
21	San LAURENDI Brindisikoa, apez eta Eliz erakaslea	
22	Santa MARIA MADALENA	Besta
23	Santa BRIJITA, serora, Europako zaindaria	Besta
24	San SARBELIO MAKHLÛF, apeza	
25	Jondoni JAKOBE, apostolua	Besta
26	San JOAKIN eta Santa ANA, Maria Birjina dohatsuaren burasoak	Oroimena
27	San GALAKTORIO	
28		
29	Santa MARTA	Oroimena
30	San PIARRES KRIZOLOGO, apezpiku eta eliz erakaslea	
31	San IGNAZIO LOIOLAKOA, apeza	Oroimena

ABUZTUA

1	San ALFONZO-MARI Ligorikoa, apezpiku eta eliz erakaslea	Oroimena
2	San EUSEBIO Verceil-koa, apezpikua San PIARRES-JULIAN EYMARD, apeza	
3		
4	San JOANES-MARIA VIANNEY, apeza	Oroimena
5	MARIA SAINDUA BAZILIKAREN BESTA	
6	JAUNAREN ITXURALDATZEA	Besta
7	San SIXTO IIa, aita saildua, eta LAGUNAK, martirrak San GAETAN, apeza	
8	San DOMINGO, apeza	Oroimena
9	Santa TERESA-BENEDIKTA GURUTZEKOA, birjina eta martirra, Europako zaindaria	Besta
10	Jondoni LAURENDI, diakrea eta martirra	Besta
11	Santa KLARA, birjina	Oroimena
12	Santa JOANA-FRANTSISKA Chantal-ekoa, serora	
13	San PONZIANO, aita saildua, eta HIPOLIT, apeza, martirrak	
14	San MAXIMILIANO MARIA KOLBE, apez eta martirra	Oroimena
15	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA	Bestaburua
16	San ESTEBE Hungriakoa	
17		
18		
19	San JOANES EUDES, apeza	
20	San BERNAT, abadea eta Eliz erakaslea	Oroimena
21	San PIO X.a, aita saildua	Oroimena
22	MARIA BIRJINA DOHATSUA ERREGINA	Oroimena
23	San JULIAN Lezkarrekoa Santa ARROSA Limakoa, birjina	
24	San BARTOLOMEA, apostolua	Besta
25	San LUIS San JOSEP Kalasantzekoa, apeza	
26	San ZEZARIO Arlekoa, apeza Santa JOANA ELIXABET Bichier des Âges	Oroimena
27	Santa MONIKA	Oroimena
28	San AGUSTIN, apezpiku eta eliz erakaslea	Oroimena
29	Jondoni JOANI BATISTAREN MARTIRIOA	Oroimena
30		
31		

IRAILA

1		
2	FRANTSSES DARDAN dohatsua eta bere LAGUNAK	
3	San GREGORIO Handia, aita saildu eta eliz erakaslea	Oroimena
4		
5		
6		
7		
8	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZEA	Besta
9	San PIARRES CLAVER, apezka	
10		
11		
12	MARIAREN IZEN SAINDUA	
13	San JOANI KRIZOZTOMO, apezpiku eta Eliz erakaslea	Oroimena
14	GURUTZE SAINDUAREN GORESTEA	Besta
15	DOLOREETAKO MARIA BIRJINA DOHATSUA	Oroimena
16	San KORNELIO, aita saildua, eta Jondoni XIPIRINE, apezpikua, martirrak	Oroimena
17	San ROBERT BELARMIN, apezpiku eta eliz erakaslea	
18		
19	San JANUARIO, apezpiku eta martirra	
20	San ANDRES KIM TAE-GON, apezka, eta San PAULO CHONG HA-SANG eta LAGUNAK, Korean martirrak	Oroimena
21	Jondoni MATIU, apostolu eta ebanjelista	Besta
22		
23	San PIO PIETRELCINAKOA, apezka	Oroimena
24		
25		
26	San KOZMA eta DAMIAN, martirrak	
27	San BIXINTXO Paulokoa, apezka	Oroimena
28	San BENZEZLAZ, martirra San LORENTZO RUIZ eta LAGUNAK, martirrak	
29	Jondoni MIKAEL, GABRIEL eta RAFAEL, arkanjeluak	Besta
30	San JERONIMO, apezka eta eliz erakaslea	Oroimena

URRIA

1	Santa TEREXA JESUS HAURRARENA, birjina eta eliz erakaslea	Oroimena
2	AINGERU BEGIRALE SAINDUAK	Oroimena
3		
4	San FRANTSES Asisekoa	Oroimena
5	Santa FAUSTINA Kowalska, serora	
6	San BRUNO, apeza	
7	ARROSARIOKO MARIA BIRJINA DOHATSUA	Oroimena
8		
9	San DIONIXIO, apezpikua, eta haren lagunak, martirrak San JOANES LEONARDI, apeza	
10	BAIONAKO ELIZA NAGUSIAREN BESTA	Besta
11	San JOANES XXIII.a, aita saindua	
12		
13		
14	San KALIXTRO Ia, aita saindu eta martirra	
15	Santa TEREXA Avila-koa, birjina eta eliz erakaslea	Oroimena
16	Santa HEDUIGA, serora Santa MARGARITA MARIA ALACOQUE, birjina	
17	San IGNAZIO Antiokiakoa, apezpiku eta martirra	Oroimena
18	San LUK, ebanjelista	Besta
19	San GRAT, apezpikua San JOANI Brebeuf eta ISAAK Jogues, apezak eta haien LAGUNAK San PAULO Gurutzekoa, apeza	
20		
21		
22	San JOANES PAULO II.a, aita saindua	
23	San JOANES Kapestranekoa, apeza	
24	San ANTONIO-MARIA KLARET, apezpikua	
25	Eliza baten sagaratzea, eguna ez delarik ezaguna	
26		
27		
28	Jondoni ZIMUN eta JUDA, apostoluak	Besta
29		
30		
31		

AZAROA

1	OMIASAINDU	Bestaburua
2	FEDEDUN HIL GUZIEN EGUNA	Oroimena
3	San MARTIN Porresekoa, fraidea	
4	San XARLES BORROMEKO, apezpikua	Oroimena
5		
6		
7		
8		
9	LATRANEKO ELIZAREN SAGARATZEA	Besta
10	San LEON Handia, aita saindu eta Eliz erakaslea	Oroimena
11	Jondoni MARTINE, apezpikua	Oroimena
12	San JOSAFAT, apezpiku eta martirra	Oroimena
13		
14		
15	San ALBERT Handia, apezpiku eta eliz erakaslea	
16	Santa MARGARITA Eskoziakoa Santa GERTRUDA, birjina	
17	Santa ELIXABET Hungriakoa	Oroimena
18	Jondoni PETRI ta PAULOREN ELIZEN SAGARATZEA, apostoluak	
19		
20		
21	MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ESKAINTZEA	Oroimena
22	Santa ZEZILIA, birjina eta martirra	Oroimena
23	San KLEMAN Ia, aita saindu eta martirra San KOLONBAN, abadea	
24	San ANDRES DUNG-LAC, apeza, eta LAGUNAK, Vietnamen martirrak	Oroimena
25	Santa KATALINA Alexandriakoa, birjina eta martirra	
26		
27		
28		
29		
30	Jondoni ANDRES, apostolua	Besta

ABENDOA

1		
2		
3	San FRANTSSES XABIEREKOA, apeza	Oroimena
4	San JOANES Damasekoa, apez eta eliz erakaslea	
5		
6	San NIKOLAS, apezpikua	
7	San ANBROXIO, apezpiku eta Eliz erakaslea	Oroimena
8	MARIA BIRJINA DOHATSUA BEKATURIK GABE KONTZEBITUA	Bestaburua
9	San JOANES DIEGO CUAUHTLATOATZIN	
10		
11	San DAMASO Ia, aita saildua	
12	Guadalupeko MARIA BIRJINA DOHATSUA	
13	Santa LUXIA, birjina eta martirra	Oroimena
14	San JOANES GURUTZEARENA, apez eta Eliz erakaslea	Oroimena
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21	San PIARRES KANISIO, apez eta Eliz erakaslea	
22		
23	San JOANES Kętykoa, apeza	
24		
25		
26	Jondoni ESTEBE, lehen martirra	Besta
27	Jondoni JOANI, apostolu eta ebanjelista	Besta
28	HAUR HOBENGABE SAINDUAK, martirrak	Besta
29	San TOMAS BECKET, apezpiku eta martirra	
30		
31	San SILVESTRE I.a, aita saildua	

LITURGIA URTEKO OSPAKIZUN NAGUSIEN EGUTEGIA

Urtea	Hauste	Bazko	Salbatore	Mendekoste	Kristoren Gorputz-Odolak Besta-Berri	Urtean gaindiko asteak				Abendualdiko lehen igandea
						Garizuma aitzin		Bazkoaldi ondotik		
						noiz arte	astea	noiztik	astea	
2020*	Ots. 26	Api. 12	Mai. 24	Mai. 31	Eka. 14	Ots. 25	7	Eka. 1	9	Aza. 29
2021	Ots. 17	Api. 4	Mai. 16	Mai. 23	Eka. 6	Ots. 16	6	Mai. 24	8	Aza. 28
2022	Mar. 2	Api. 17	Mai. 29	Eka. 5	Eka. 19	Mar. 1	8	Eka. 6	10	Aza. 27
2023	Ots. 22	Api. 9	Mai. 21	Mai. 28	Eka. 11	Ots. 21	7	Mai. 29	8	Abe. 3
2024*	Ots. 14	Mar. 31	Mai. 12	Mai. 19	Eka. 2	Ots. 13	6	Mai. 20	7	Abe. 1
2025	Mar. 5	Api. 20	Eka. 1	Eka. 8	Eka. 22	Mar. 4	8	Eka. 9	10	Aza. 30
2026	Ots. 18	Api. 5	Mai. 17	Mai. 24	Eka. 7	Ots. 17	6	Mai. 25	8	Aza. 29
2027	Ots. 10	Mar. 28	Mai. 9	Mai. 16	Mai. 30	Ots. 9	5	Mai. 17	7	Aza. 28
2028*	Mar. 1	Api. 16	Mai. 28	Eka. 4	Eka. 18	Ots. 29	8	Eka. 5	9	Abe. 3
2029	Ots. 14	Api. 1	Mai. 13	Mai. 20	Eka. 3	Ots. 13	6	Mai. 21	7	Abe. 2
2030	Mar. 6	Api. 21	Eka. 2	Eka. 9	Eka. 23	Mar. 5	8	Eka. 10	10	Abe. 1
2031	Ots. 26	Api. 13	Mai. 25	Eka. 1	Eka. 15	Ots. 25	7	Eka. 2	9	Aza. 30
2032*	Ots. 11	Mar. 28	Mai. 9	Mai. 16	Mai. 30	Ots. 10	5	Mai. 17	7	Aza. 28
2033	Mar. 2	Api. 17	Mai. 29	Eka. 5	Eka. 19	Mar. 1	8	Eka. 6	10	Aza. 27
2034	Ots. 22	Api. 9	Mai. 21	Mai. 28	Eka. 11	Ots. 21	7	Mai. 29	8	Abe. 3
2035	Ots. 7	Mar. 25	Mai. 6	Mai. 13	Mai. 27	Ots. 6	5	Mai. 14	6	Abe. 2
2036*	Ots. 27	Api. 13	Mai. 25	Eka. 1	Eka. 15	Ots. 26	7	Eka. 2	9	Aza. 30
2037	Ots. 18	Api. 5	Mai. 17	Mai. 24	Eka. 7	Ots. 17	6	Mai. 25	8	Aza. 29
2038	Ots. 10	Mar. 28	Mai. 9	Mai. 16	Mai. 30	Ots. 9	5	Mai. 17	7	Aza. 28
2039	Ots. 23	Api. 10	Mai. 22	Mai. 29	Eka. 12	Ots. 22	7	Mai. 30	9	Aza. 27
2040*	Ots. 15	Api. 1	Mai. 13	Mai. 20	Eka. 3	Ots. 14	6	Mai. 21	7	Abe. 2
2041	Mar. 6	Api. 21	Eka. 2	Eka. 9	Eka. 23	Mar. 5	8	Eka. 10	10	Abe. 1
2042	Ots. 19	Api. 6	Mai. 15	Mai. 25	Eka. 8	Ots. 16	6	Mai. 26	8	Aza. 30
2043	Ots. 11	Mar. 29	Mai. 7	Mai. 17	Mai. 31	Ots. 8	5	Mai. 18	7	Aza. 29

* Bisurtea